

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XIII Zenbakia.

**1990
Urrilla-Gabonilla**

AURKIBIDEA

	Orr.
Euzkeraren batasuna. A. Urrestarazu	1
B. Latiegi'ren Elizaren demokrazia. A. Arrinda.	3
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran. B. Latiegi.	9
Aetzen uskaraz. Josu Cabodevilla.	15
I parraguirre eta Gernikako Arbola. L. Akesolo.	22
Etxebarria'ko euskera. M. Aierza.	29
Asko etorri dira eta asko etorri da. A. Zatarain	41
Goi Yakintza. A. Urrestarazu	46
Mari-Jesiak.	49
Argi-bidean. A. Zubikarai.	54
Akatsak eta erderakadak. J. Gaztañaga.	56
Lanaren poza. Aita Santi Onaindia.	58
Bizkaitarroi diñotsuet. Assier Etxaburua.	60
Euskeratze bideetan. Assier Etxaburua.	61
Esaldi jatorrak. M. Oñatibia.	62
Garde tar Martzekino'ri omenaldia. G. Garmendia.	63
Oillar drogosa. M. Olazar (Barruko azalean)	
Gure denbora auetako eliza. (Barruko azalean)	
Esakerak. B. Aurre-Apraiz. (Kanpoko azalean)	

Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

PLORENTZI OILLAR "DROGOSA" (AURKEZPENA)

Liburu barri bat idatzi dau Zubiri'tar Iñaki idazleak. Elabarría da oraingo au. Eta Euskalerrian liburu bat argitaratzen danean, euskaldunak jai egin bear genduke, jai egin eta irakurteko gogoá bizkörtu, gure idazle lana alperrekoa izan ez daitenr
Irakurgarria da Iñaki'ren elebarri au.

Lenengo zorizi orrialdetan elebarriari sarrera egiten dautso idazleak: Ederto asmatua da sarrera au, Goikolanda'ko abade eliztigillea agurtzeko erri aretara osterea eginda eta abade oneri oillar ospetsu baten barriak eskatzen jakozala.

Gero oillarrak berak idatzitako agiri bat oinarri dala, kondaira zuzena da elebarria.

Elebarriaren edeslaria oillarra bera da, sarrera amiatu ezkeró, eta iñoz beronen autuak luzeak diralako, edeslaria aitzuta geratzen da, baiña laster gorotatzen dau irakurleak, oillarrak esandakoa dala dana.

Elebarriaren joanean, aldia zuen doa, baiña sarrera inguruan ba-dira aspaldiko elebarrietan oitzen diran aldiaren atzerakuntza batzuk. Oillarra aundi eginda ikusi ondoren, bere kondaira azaltzeko txita zan aldira atzeratzen da.

Elbarri osoa "Prosopopeia" edo norkigintzaren motara sartu bear da: ulertzen dan idazten daki oillarrak, baiña ez itz egiten.

Oillar ori gaiñera, sarritan, irakasle biurtzen da eta orretan alegien irakaspena dirudi, baiña irakaskintza ez da larregi agertzen liburuan; une batzutan eutanasia txartzat agertzen danean, esker txarra alboratu bear dala esaten danean edo liburuaren azkenerantza umegaiak iltea oillarrak berak be zorakeritzat artzen dauanean.

Gero oillarrak bere edestia esaten dauanean, etxerik-etxe dabil, Goikolanda'ko abadea lenengoa dala, beste askori laguntzen: Errementariari, Aldekone'n, itsu baten etxean, artzain baten txakur zaarraren ordez, lbargane auzoan.

Edestia makobil antzera itxiten da, asi dan lekuan amaitzeko, Goikolanda'ko abadearen etxean bere gomutakiak idazten.

Elebarriaren tokia zeaztutea ez da gauza erraza, erririk-erri dabil, batzutan Goikolanda inguruan, beste batzutan urrin, baiña Goikolanda bera be non dagoan iñoz iragarten ez dala.

Liburuaren bitarte batzutan idazleak asmauriko bertsoak be agertzen dira, abesti antzera. Ba-dakigu gure idazle au olerkigintzan ona dana.

Oilloai buruz baserrietan izan diran oiturak ondo agertzen dira: Janariak billatzen, jatekoa banatzen, arrautzak egiteko sasoiak, eta abar.

Eragiña edo ritmoa ondo daroa idazleak, toki batzutan edestiak, esaterako artzaiñen arteko leiaketa, naikoa luzeak izan arren.

Trebebideari begiratu ezkeró, elebarri onek "GALDU" txakurraren antza badauko, an txakurra edeslari dan antzera, emen oillarra dalako, baiña elebarria oso ezbarðiña da.

Gaurko arazoak agertzen dira liburuan, baiña garaztasun barik, gogotasuna ugari dala.

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao

Olazar'tar Martin



EUZKERAREN BATASUNA

Asko mintzatu da euzkeraren batasunaz, batez ere Euskaltzaindia sortu zane-tik. Erakunde onen lenengo arduraren artean batasunarena agertzen da bizi-bizi-rik; 1922'ko Ilbeltza-Epaila iruilabeteko "Euskera" bere aldizkarian Kanpion eta Broussain euskaltzañen txostena argitaratzen da, euzkeraren batasunari buruz egina, ta aldizkariaren zenbaki orlan bertan gai o ezaz emandako beste iritziak ere azaltzen dira.

Gai ori bera oña iz arturik aburuak ugari urteetan barna, ta 1934'ga enean Azkue ta Garitaonaindia euskaltzañak "Gipuzkera osotua" deitu zuten beren asmoak age erazita, alde geyenetan a era ona izan zuen; bertan gipuzkera oña i bezela onartzea esonatu zuten beste izkelgien bidez osotua izan zedin. Azkue ta Garitaonaindia bizkaita ak ziran eta ala ere gipuzkera artu nai-izan zuten oña-fiz, berena zan bizkayera ortarako baztertuz, oso aipaga ia izan zan jokerez; eta bizkaita en arteko idazle batzuek esondatutako bidea ja aitu zuten, beste izkel-gietakoek ez, iñork ez, oke ezpanago.

Eta gaurko ontan "euskara batua" deitzen dana eskeintzen digute, bide befi ta egokia bezela aurkeztu nai dutena, batasunerako onena izango bailitzan.

Geron ustez arazo oni buruz geyegi edo da itzegin eta idatzi dana, ta batasunaren alde egona en, ez deritzaigu ezinbestekoa dala ta askoz gutxiago a apala-dan eta edonolaz egitea. Mila ta mila urteetan barna bizi da izkelgietan gure euzkera, ta asko galdu badu, ezta izan, iñola ere, batasuna ez izateagatik, auzoak ditugun late iak gogo jazartu dutelako ta gure aldetik zabarkeri aundiaz jokatu dugulako baizik.

Baña ebazkizuna gafantzizkoa dugu ta a etaz begiratzekoa ere. Eman deza-gun gure iritzia.

Berdiñak eztiran izkelgiak lau ditugu gaur berezienak; Bonaparte'k ikusi zituen beste laurak ainbestekoak ez diralarik. Eta lau izkelgi oyen artean, egitan, aundi-go da dagoen batasuna ezberdintasuna baño. Bai, lauretan joskera berbera da, lauretan izen-joko ta aditz-jokoaren egitura ere berbera da, ta berak darabilz-kiten atzizki geyenak berberak dira. Orduan nun dago ezberdintasuna?, egiz ori ba-dago-ta.

Geron ustez, bi azpegi auetan batez ere: euzkera ikastoletan ez tinkotzeagatik, e iz-e i sortu diran aldakuntzetan, bidezkoak bezela begiratu beaf ditugunetan; eta aldameneko erderak jasan-erazi dizkiguten eragipenetan.

Ugariak dira, ugariegi, esandako aldakuntzak, eta oyetatik asko ta asko Eus-kaltzaindia'k egin zuen "Erizkizundi Irukoitza"ri egin zitzaizkion erantzupenetan agertzen dira, ta "Euskera" aldizkariaren 1925, 26, 27 ta 28'ga en urteetan atera ziran zenbakietan ikus ditezke. Argi agertzen da of nolako aldakuntzak dagozen, eta ez izkelgien artean bakafik, izkelgi bakoitzean, aran bateko auzokoak diran efien artean ere; ziñez efi bakoitzean bere aldakuntzak sortu dirala esan diteke.

Auzoak ditugun late i aundiak alegiñetan ari-izan dira beti euzkera itotzeko naye-an, batik bat ikastolaen bitartez; oyetan ezta iñoiz onartu euzkera, ta aitzitik ondo dakigu guztiok nolako zigof aundiak jafierazi zituzten beti, euzkera itzegi-

ten entzuten zizkieten gure auf gaixoai. Gañera gurean indafez ja itako erakunde guztietan erdera baka ik onartu zuten ateman orotarako. Ta jokera guzti oyengatik amaika erderakada sartu ziran euzkeran bertan ere.

Lenengo aldakuntzak e az zuzendu ditezke euzkeraren eliztia, alde guztietan eta ikastoletan batez ere, ondo ikastea. Eta erderakadak, pizkanaka-pizkanaka, geuk astandu ditzakegu, beren orde euzkal-itz jato ak erabiltzean eta bea -izan ezkeror itz be iak antolatzean, euzkerak berak ortarako ematen dizkigun bide zabalak uztiatzen.

Aditz-jokoan eta izen-jokoan ere ba-dagoz ezberdintasunak, baña oyek eztute iñoiz ikutzen joko oyen egitura; beraz ezin oztopo aundizat artu.

Alakotz, batasunerako bideak e az agertzen zaizkigu, ta guri dagokigu oyetan barna joatea, iraduz ibili gabe ta buruz jokatzean; eta ofela jardutean batasuna berez eto iko dala esan dezakegu, beafa izango danez eta ezer ebaki ta arbuyatu gabe. Geron aldetik batez be lan eta lan egiten, euzkera ongienik-ikasten, sakontzen eta edatzen, auxe iñoiz aitzu gabe: Euzkera ikastea ta euzkera erabiltzea Efi ontan jayo ta bizi geran guztiontzat, ori egitea Erri'arenganako guztion eginbide ertsia dugula; eginbide ori guztiok eta bakoitzak geron buruari ja i bea diogu, gogo beroaz onartzean eta naimen osoaz betetzean. Ori batasunerako ere bide egokienetakoa dalarik.

Ba-dakigu eginbide ori betetzeko eragozpen aundiak sortuko zaizkigula, ta oyen artean guregan betidanik izan dan zabarkeria aundienetakoa dugula; zabarkeria izatea gure efua da ta gu gera oiengatik e u ori gugandik astandu beaf dugunok, aitzaki guziak zokoratzean. Euzkalduna ekintza-gizona bezela agertu da beti, lan guztietarako gai izanik; ez al dugu izakera ori gure izkuntza au era ateratzeko erabili bear? Noski baño noskiago, euzkera gure abe iaren bizirako nolako bea a dan argi ikusten.

Argi ere auxe da begiratu bea duguna: euzkera gaurko izkuntzalarientzat, aspaldiko izkuntzaen erkabiderako bide edef eta oso egokia da, ta geuk eusten badiogu jakintzarako lan on eta txaloga ia bete dezakegu; ori izan da orain arte gure e i xumeak, konturatu gabe bada ere, egin duena, ta orixe da, zer dagigun jakitean, geuk burutu bea duguna.

Goazen, beraz, batasunerako u atsak ematen, baña goazen e iarekin jokatzan, eh-izkuntzaren ondotik, efiarekin beti bat egiten, eta o ela gure eginbidea kementsuki betetzen. Bidea oso argi dugu guztiok alkarturik beraren zeaf ibiltzeko, ta gure E i au benetan maite badugu iñor ezin gera diteke bide ortan barna bipilki ibili gabe.

Ta gure eginbidea betetzean, euzkeraren batasuna e azago ta tinkoago egingo da.

U estarazu'ta Andoni



BIXENTE LAITEGI'REN ELIZAREN HISTORIA EUN URTEZ (III) León XIII (II)

"Rerum Novarum" Enziklika

1891'ko Maiatzaren 15'ean agertu zan enziklika ospetsu au, ogei urteko sozio-ekintza katoliko baten ondoren. Gotzaia zala irakurri zitun sozio-ekintzan zebiltzen katolikoen liburuak... Idatzi ere idatzi zuan Pastoral bat gai aueri buruzkoa, gotzai zalarik. Lagun asko zitun ekintza onetan zebiltzenak...

Pio XI'garrenak bere enziklika "Quadragesimo Anno" gogoangarrían, berrogei urte beranduago onela dio:

"Egin zuan oles, trumoiaren antzera, luzaroan itxaroa izandako abots arek; ez zuten ez gaiaren zailtasunak izutu, ez zartzaroak auldu; indar berbistuarekin erakutsi bai zizkion giza-sendiari gizarterako bide berriak"... Arrazoiketa buruzkoegia eta espiritual usaiñekoa; baiña, Liberalismo (eta Totalismo) oien erruak garbi agertzen ditu; baita Proletaritzaren egoera latza ere. Ekonomia, justiziaren barrutia dala eta Laterriak gai orretan sartu bear duela, lege egokiak emanez aldamera begira egon gabe. Sindikalismoaren ateak zabaltzen ditu eta betirako ezarria laga zuan auxe: Elizak gizarte-arazoak zuzentzeko berak ere parte artu bear duela. Gizartean aldakuntzak dirala, eta izango dirala, eta kontuan artu bear dirala".

Sortaldeko Elizak

Sortaldeko Elizekin Erroma'k izan dituan auzi-mauziak dakarzki 22 orrialdietan. Eliza zaarrak izanik, Apostoluen garaikoak ere bai, beti izan dute nortasun bereizi bat. Ia milla urte dira, Aitasantuegandik alde egin zutela... Eta, alde egin ez dutenak ere, gordetzen dituzte euren antolamentu bereziak...

Sortaldeko Elizak, bere izaeraz dira, persona bategan aalmen guztiak biltzearen arerioak; orregaitik edo, Erroma'k ez die antzik ere ematen.

Rerum Novarum Enziklikaren ondorioak

Juan XXIII'garrenak dionez (Mater et Magistra): "Gutxitan izan du Aitasantu baten itzak, orduan izan zuan aiñeko oiartzun orokorra ludian". Katoliko geienen konzientzian eztena bezala sartu zan... Katolikoek lanean asi ziran; baiña, ekintza geienetan jokaera bikoitza zeramaten aurrera; eskubitar integristek Liberalismoaren aurka eta bigarren taldea Demokraziatik gerturaxeago...

Ekintza ederrak sortu ziran, baña eginkizun aietan langillea lankide artu gabe; sortzailleak eurak beuren gixara guzia zuzenduaz... Bildur ziran langilleen eskuetan gauzak utzi ezkeru, anarkisten eta sozialisten eskuetan eroriko zirala... Aizkenerako, ordea, bat baiño geiagok oker ori kontuan artu zuten eta akats orretatik libratzen saiatu.

Bixentek, beti bezala, ekintza bikoitz ori luze eta zabal eskeintzen digu xeetasun guztiakin Europa'ko Laterrietan zear.

Ekintza asko, Alkarte asko langilleen alde etengabeko lanean. Zenbait gotzai eta apaiz-taldea buru-belarri sartuta. Izan ziran bat edo beste, asarratuta, Elizatik alde egindakoak, onek beuren bide arrixkutsua onartzen ez zietelako. Onela amaitzen du Latiegik arazo au:

"Egia; "Rerum Novarum" eta aren ondorengo "Quadragesimo Anno" izan ez ba'lira, Kristo'ren Elizatik kanpo ikusiko bait genituzke gaur, oso-osoan, Kristo'ren gizamaillako gizakumeak: langilleak, proletariak. Orregaitik, Enziklopedi berak aitortzen duanez, "Ordurarte Elizak erabillitako bideetatik irtetze (eta bide berriak erakuste) zirrargaille bizkorra izan zan Rerum Novarum".

Baían ez ornen zuan Leon XIII'garrenak ori lortzerik izango, aren aurretik Pio IX'garrenak aitasantuaren nortasuna, ain sendoki, Elizaren barruan tinkotu ez ba'lu.

Españi Mendearen Erditik Aurrera

Mendearen erditik aurrera goaz, Karlisten lenengo guda bukatuta, Isabel II'garrena erregiñ egiten dutenean. Elizarekin Konkordato bat egin zuan eta kendu zizkioten ondasunak itzultzen alegindu zan, pakeak egin naiean. Bere Jaurlearitza liberala, oso zan konserbatzaile eskubiar. Gotzaiak baiño konserbatzailleagoak ziran apaizak, tradizionalista utsak. Lengo denboren maitaleak; leen ori Felipe II'garren aroa zan: "Urrezko Aroa..." Euskalerruari buruzko 4 orrialde dakarzki benetan interesgarriak.

Isabel'en ondoren Saboia'ko Amadeo italiarra izendatu zuten errege; ez zan onartua izan eta laga zion erregetzari. Alfonso XII'garrena dator gero, Isabel'en semea... Ortik sortzen da Bigarren Karlisten guda.

1876'ean Euskalerriko mendietan karlistak errenditu ziran eta Lege Zarraren azken ondarrak kendu zizkiguten. Azken ondarren ondarrak, berriz, Franko'k Bizkaia menperatu ondoren 1937'an.

XVIII'garren gizaldian Euskalerriko apaizak oso izan ziran argiak; erria, berriz, pake giroan eta jatortasunean bizi zan, kanpotar bisitariak arritzeko moduan. XIX'garrenean pakea, jatortasuna, argia... Guztiak galdu ziran batera... Odolustu zuten erria eta odol-egarriz biotsak kutsutu... Gure mende onetan ere berdin ari zaigu gertatzen: odol geiegi gure artean...

Ipar-ameriketan Eliza sendotzen

(20 orrialde) Demokraziaren pake-giroan bizi zan geroz eta indartsuago, ezberdiñeko jendeen bilduma zan Eliza. 1850'ean bertako katolikoak apur batzuek besterik ez ziran. Arrapalada osoan iritxi ziran kanpotarrak. Geienak Irlanda'tik;

baita Alemania eta Frantzia'tik ere. Amar urteen buruan 2.000.000 irlandar sartu ziran, besteak beste. Jarraitu zuten etengabeko etorreran erbesteko katolikoak Europa guzitik. Esandako guztiak ziran katoliku.

Inmigratzaille txiro aiek, gaiñean zekarzten jantzi zarpailduak, beste aberastasunik ez zuten eurokin. Gotzaiak eta apaizak geienak irlandarrak ziran, katolikoak ere ala ziran-da. Gaiñera ingeles zekitenak eurok bakarrik ziran. Elizak bere altzoan artu zitun enda eta izkera desberdiñeko inmigratzaille aiek eurokin Eliza bat egin arte.

Egia da, Europa'tik joandako katoliko askok fedea galdu zutela bidean, bear ba'da an bertan bere kideko talderik topa ez zutelako.

Elizak ikastolak, lenengo eta bigarren maillakoak, erruz egin zitun naiz-eta Unibersidade bakar bat egiteko bere eztabaidak erabili. Egoera aldatuz joanik da eta ona zer esaten digun Bixentek 422'garren orrialdean:

"Izugarrizko lana egin du Laterri Alkartuetako Elizak erakuskintzaren arloan. Ikus zenbaki batzuk: 1970'garren urtean, 10.927 lenen mailleko ikastola zituan; bigarren maillekoak, 2.341; apaizgaitegi eta praillegaitegi, 575; eta 303 unibersitate..."

:

Beltzen arazoa aitatzten du gero Bixentek luze eta zabal. Beuren garaiko jendea izanik, ez zuten gauza ondoegi ulertu.

Bizkorrago ibilli ziran langillediaren erakundeetan; bertatik sartu bait ziran eurotan inmigrante zarpaillu aiek, proletari margoa Eliza osoari emanaz. Edestilari onenetako batek onela dio:

"Katolikoek Ipar Amerika artako langille-igikundean izan duten itzal eta esku aundiari zor omen zaio bá, an anarkistek eta marxistek jarraillerik aurkitu ez izatea... naikoa etsitzen ornen dute langilleek beren "Labor Unions" edo "Langille-Alkarte" izeneko sindikatoen zugurtasuna, ta kemena, beren eskubideak politikaren arloan ere babestu aal izateko. Bá... zugartasun ori eta kemen eta bizkortasun oiek langille-buruzagi katolikoei zor ornen dizkiete Ipar-Amerika'ko sindikatoek".

"Ekintzaren maillan-dio Bixentek-ederki jokatu zuan, beraz, Eliza katolikoak; sindikatoei emandako babezpean landa, zenbatu ezin aña izan bait ziran karitategintzarako osatu zituan mota guztietako erakundeak".

:

Aitatzten du baita ere "Amerikanismus" deritzan Aitasantuak gaitzetsitako okerra. Baiña, eurak esaten zutenaz, Amerikako katolikoek ez ornen zuten sekulan Aitasantuak aipatutako okerkeri oiek babestu.

Eta, gauza geiagoren artean, Gibbons kardenalaren goraipea egiten du beste guztien eredu bezala eta onela amaitzen du leloa:

"Guk ere Gibbons Kardenalaren oroipena berritzean, ekarri dezagun, batean, gogora Laterri Alkartuetako Eliz osoaren bizkortasuna, bere ariketa sendoa, eta bere pentsaera zabala. Erakus ezaiogun, gañera, gure eskerra; astiro-astiro, baña gero ta geiago, oparo zabaldu bait da Eliz gazte aren itzala munduko beste Elizetara, eta, ziurki, itzal ori onerako izan bait zaigu guztioi".

:

Iber-Amerikan Eliza Sendotzen

Eliz eta Laterrien arteko auziak osatzen dute Histori osoa. Agintariek Elizaren laguntza eskatu dute beti, Liberalak izan ezik.

Laterri aien axaleko Historia matxinadaz eta odol-arazoz beteta dago, España eta Portugal'en seme-alabei dagokien eran... Teoriz beintzat, Liberalen elburua

Laterrian aberastasunak lortzea da, danen onerako; bizitza-maillan, ordea, bakoitza bere aberastasunen billa ibilli oi ziran... Positibistak eta ondoren sinisgabeak. Konserbatzaileak, berriz, ekonomiarik aztu gabe, bere elburu nagusia onetan zeukaten: jendearen eziketa egokia erlijioaren erakundeetan, orrela pakean bizi aal izateko. Ori ere teoria zan; gero, bizikeran, liberalen antzeko.

Liberal antiklerikalak Laterria eta Eliza alkarren artetik bereizita nai zituzten... Konserbatzaileek, berriz, biak alkartuta, Elizak Laterriari laguntzen pakea lortzen, onek indarkeria erabilliko ba'lu ere, elburu ori lortzeko. Gai oneri buruz onela amaitzen du Bixentek:

"Gure egunotan, zorionez, Eliza izan da politikaren barrutian Laterriengandik bereizi dana, eta espairik gabe, teoriz beintzat, beartsuen alde gartsu jeiki zaiguna. "Askapen Teologjia" izan dugu igikunde orren gaillurra. Bai noski, bide berriak irikitzean beti gerta oi dan bezela, izan da igikunde orren altzoan bide zuzena galdu duan teologilari bat edo bat, baiña, ala ta guztiz teoloji ori dugu, "La teología de la Liberación", Elizaren edesti osoko idoroketarik pozgarrienetako bat. Gutierrez deritzan apaiz perutarra izan du sortzaille. Bitez beretzat gure txalorik eskertsuenak". (442 orrialdea)

* * *

Mexiko, Guatemala, Argentina, Ekuador (García Moreno, bereiziki), Perú, Colombia, Brasil, Laterri auen guztien berriak ematen dizkigu...

Liberal-aroa argitzen digu ondoren, Frantziatik artuta eta ez Ipar-Ameriketatik, Mexikon bezala Kolonbian, Txilen, Ekuadorren, Brasilen eta Benezuelan.

* * *

Elizaren Itxarkunde

Ondorengo Elizaren berri ematen digu Bixentek Mexiko'ri buruzkoak, luze eta sakon, la orain arte. Ekuador dator berriro eta ondoren Uruguai, Benezuela, Txile, Kosta Rika, Guatemala eta abar...

Eliz Orokorraren itxaropena Iber-Ameriketako Elizeetan dago, ekaitz artean ibilli arren. Ona zergaitikiak, argibideak eta bitartean dauden arazoak:

- Biztanleen neurrigabeko ugaritzea...
- Jende landerraren ugaritzea...
- Protestalarintzaren aritze...
- Komunismoaren arriskua...
- Proletarien ekintzak...
- Era berriak aurkitu bearra...
- Apaizen urritasuna...
- Sin kretismoaren zabalteza...
- Atzerriko apaizen bearra...

Badu Elizak sekulan izan ez duan askatasuna... Badu gotzaidi jatorra edestiarren samiñak erakutsia... Baditu apaizak beartsuekin bat egiñak... Badu urduritasunik ere eta erakunde berriak, CELAM adibidez... Asmamen berria ernettu zaio Elizari arazo garratzei aurpegi emateko "Askapen Orokorraren Teologjia": Teología de la Liberación... Euskalerriko Mixioak ere aitatzen ditu, Los Ríos eta abar... Amaitzeko ona zer dion:

"Ondo etorria bedi, uda legorrean intza bezala etorri zaigun Askapenaren Teologjia. Eta ezin ukatuko dugu teologilari berri auek badutela teologilari zar batzuekin, Bitori'ko Franzisko'rekin adibidez, aidetasun berezi bat. Bitori'ko Franzisko ere, inditarrak kristau biurtu nai izateak ez ezik, teolojiaren aberastasunak, berak ere, bultzata mintzatu bait zitzaigun gizarteko auzietaz".

* * *

PIO X

Jose Sarto, izen-abizenez, Italia'ko Iparraldean jaio zan. Apaiz-aizken maillatik asi (parroko, kanonigo, Seminarioko erretore, gotzai, Benezia'ko patriarka, kardenal) eta Aitasanturaño eldu zan, 1903'ko Dagonillaren (abustuaren) 4'ean. Gauza guztien gaiñetik, apaiz jator bat izan zan beti il arte; Eliz osoaren apaiz parroko bat.

Politika arloan Italia'n bertan zitun zeregiñik latzenak, batasuna egin eta Aitasantuari bere erregetza kendu ezkeroz. Batasun ori betirakoa izango zala konturatu zan eta obe zuala Agintariekin konponketa on bat egitea. Integristek ez zioten asmo ori onartu; baiña, berak naiago zuan aurpegikera paketsua erakutsi, asarratua baiño.

Onela dio Enziklopedia Britanikak:

"Alkarrekin bizitzeko era egoki baten antzeko zerbait lortu aal izan zuten, amorerik emateke, bi alderdiek", Elizak eta Italia'ko Jaurlaritzak, alegia. Benezia'ko Patriarka zalarik ere, katolikoek (banan-banan, ez Alkarte bezala) liberal baretsuekin, alkarrekin lan egiteko, ez zuan eragospenik jartzen eta zabaltasun ori Jaurleritzarekiko arrematera ere luzatu zuan. Garai aietarako ori asko zan.

Bere ustez, sindikato eta langille-elkartearen elburua, apostoladutza bear zuan izan, geroagoko Azion Katolikaren antzeko zer-edo-zer. Orregaitik, gotzaien eskuetan nai zitun eta marxistekoekin naasi gabeak, Alemania'n ezlk.

Dana dala, ez zuan konfiantzarik, ez politika eta ez diplomaziarekin; berak bere eskuak iare eta libre nai zitun Eliza zuzentzeko.

Modernismo-berrikeriaren arazoa

"Berrikeri" au asmo berri askoren bilduma bat zan: pentsakera bat. Batzuek zuzenak, besteak okerrak. Bereizketa ori egin gabe gaitzetsi zuan Modernismoa Aita santuak.

Aztarrikatu ezkerro, bi gauza auek aurkituko dituzu: protestalarien askatasun-zalekeria eta erromantiko-sentimenkeria. Bi apaiz izan ziran arazo onen sortzailleak, Loisy eta Tyrrel.

Ona Loisy'ren eldozkera nagusiak:

—Orain arte teolojia metafisikan oiñarritua egon da eta eme duan kristau-bizitza legorra izan da.

Giza-arrazaia ez da Jainkoa ezagutzeko gauza. Erljioa ez da arrazoitik sortzen, gure barruko erlijio-sentimen batetik baizik.

Barruko ezagumen ortatik, izadiak historian zear, erlijioaren zentzua garbitzen ari da, etenik gabe.

—Kristautasuna da gizadiak lortu duan erlijio-zentzurik garbiena; baiña galduko da bere zentzu ori garbitzen eta garbitzen ez ba'doa. (Loisy'rentzat erlijio garbitzen aritzea da, besterik gabe).

—Erljio-mota guztiak garbiketa-aritze orren maillak dira, beste gabe.

Sinismena, ez da Jainkoak esaten diguna sinistea, gure barruan Jainkoatzaz, barne-ezagueraren bitartez, sumatzen deguna ontzat artzea baizik. Sentipen utsa.

—Biblia, gizadiak Jainkoa garbiago ezagutzeko saiaketan igaro dituan sentipen-maillen edestia, besterik ez da. Ez da Jainkoaren itza; Jainkoa billatu nai izan duten gizakumeen itza da.

Dogmak, edestian zear, aro bakoitzean, gizadiak Jainkoari buruz bere barruan sumatu duan sentipenaren azalpenak dira. Ez dira aldakaitzak; dogma berriak sortuko dira, gizakiak bere erlijio sentzua garbiagotzen duan eran.

Orrela, kristautasuna, garbitze-bidean aurrera ez ba'doa, galduko da.

Loisy'renak Tyrrel'ek borobildu zitun. Erri-maillara ez zan siniskeri ura jeitxi; bai, ordea, apaizen maillara Frantzia'n bezala Italia'n ere. PASCENDI enziklika eman zuan Aitasantuak Modernismoaren aurka eta bereala asi ziran salaketak integristen aldetik; baiña, ez ziran modernizat salatutakoak baizik; ez benetako modernistak. Apaizak makurtu ziran; Loisy eta Tyrrel ez...

* * *

Integrismoaz landa, egoki ari izan zan beste arazo guztietan:

—Gizarte auzietarako sendo babestu zuan Elizaren eskubideak. Auzi oietan, oitura zuzenak edo moralitatea jokoan daudelako, bai ornen du Elizak arlo orlan bere itza adierazteko eskubidea...

Saiatu zuan Eliza eraberritzen. Konklabeetan Laterriek zituzten eskubide guztiak ezeztu zitun eta konklaberako arau berriak eman.

Eraberritu zitun Erromako Kuria, "Kongregazioak" era berrian antolatuz.

Katekesi-testo bat Italia osorako gertuarazi zuan.

Seminarioak, ugariegiak zeuden Italia'n, bateratuz, egokiagoak moldatzen saiatu zan.

Apaizentzako otoiz-liburu "brebiario" a tajutu zuan.

—Elizetako musika-eresiak garbitze-lanean ekin zuan.

Aldizkari ofiziala eraberritu zuan; Acta Apostolicae Sedis.

"Institutum Biblicum" Erroma'n eraiki zuan, Biblia-ikasketak egiteko eta "Vulgata", latinezko Biblia, bir-argitaratzeko lana beneditarrei eman zien.

Baiña, bi ekintzarik aundienak, Jaunartzea erreztea eta Elizaren Legedia (Codex) eratzea izan ziran.

Elizaren Legedia milla tokietan bilduta zegoean. Pio'k Aitasantutza artu zuan une beretik, agertu zuen lege aiek danak aztertu, araztu, bateratu, eraberritu eta liburu bakar batean argitaratzeko asmoa. Batzorde bat aukeratu zuan orretarako. Mundu guziko Gotzaei galdetu zitzaien beuroen iritzia, tajutzen zituzten eskemeri buruz. Mundu iltzerako, bukaturik zegoan Bilduma Berria, edo Codex Judicis Canonici.

Bigarren ekintza Jaunartzea erreztea zan. Bera izan zan egunero Jaunartzearen apostolua. Jansenio eta Saint-Cyran'en gogorkeriak, arindu zitun Pio X'garrenak. Aientzako gizonak ez zuan merezi Jaunarengana urbiltzea. Errespeto aundia sor zitzaion Jaunari. Gutxitan joan bear zan eta ondo prestatuta, errespetoz eta bildurrez. Pio X'garrenak kendu zitun bildur oiek guztiak eta umetxoak, eza-guerara eltzen ziranean, Jaunartzera eramateko agindu zuan. Jainkoak bakarrik daki zer on aundiak egin dituan Elizan Aitasantuaren zabaltasun orrek.

* * *

1914'ko dagonillaren 20'ean il zan. Maiatzaren 29'an 1954'ean Santu aldarrikatua izan zan. Auxe degu San Pio X'garrena.

Aizkeneko itz auekin amaitzen da Bixente Latiegi'ren liburu eder-eder au. Zorionak egilleari eta eskerrak gure aldetik.

Elizaren Edestiari buruz, liburu aun bezin ederrik ateratzerik, ez da beste inoiz errez izango. Izugarrizko lana egin du, eta ondo egiten ari da. Euskal-kristauen liburutegietan ez luke falta bear. Erderaz ere naiko lan izango da beste orrenbestekorik aurkitzea. Garaiak luze eta lekuak zabal izanda ere, xeetasun gustiz bete-ta dagoz. Itur-begi oparoa eta urak garden, Araxe erreken iturburua bezin ugari-emankorra. Izkera aberatsa, errez eta jatorra. Elizaren okerrak argitzeko, ez du mingaiñean eragozpenik: itzalguneak eta argitasunak, danetarikoak daude garbi adieraziak.

Bijoazkio egilleari gure agurrik beroenak.

Anes Arrinda



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN 867'KO LARRUKI BAT (IV)

Ez diegu oraindik 867'ko Orrillaren 1'eko larruki artan agertzen diran giza-izenei begiraldi bat eman. Eta, nere uste apalez, garrantzi aundikoak ditugu larruki ortako giza-izen oiek.

Bi eratakoak dirala esango nuke nik: Gizaseme aundikien izenak, batzuk: erri landerreko nekazari xumeenak, besteak. Azkeneko auek ditugu ain zuzen, etimologigintzarako, benetan garrantzi aundikoak.

Ona ordea lendabizi jende aundikien izenak:

GUISANDUS.—Abata; larrukiaren eragillea. Ez du esaten zer lekaidetxeko abata dan. 37 urte geroago, agertzen da 903'ko larruki batean Guisandus bat. San Mames'ko abata. Lengoa izatekotan, oso zarra izan bear zuan ordurako. Izen ontaz itzegiñak gera aldizkari ontan bertan. Zenbaki onen aurreko zenbakian ain zuzen.

ELMIRO.—Gotzaia. Ez digu nongoa esaten. Mende artan Baldegobi edo Gobiarran'go Balpuesta'n gotzaiak baziran, baiñan larruki au idatzia izan zan 867'garren urte artan, "Vallis Posita" edo Balpuesta'ko gotziak Sancho zuan izena. Felmiro izeneko bi gotzai ere agertzen zaizkigu Balpuesta'ko episkopolokio edo gotzaizerrendan, baiñan naiz izenez Felmiro'tik Elmiro'ra oso ezberdintasun txikia egon, gure larrukiko Elmiro ez daiteke bi Felmiro aietako bat izan. Aurrenekoa 811'tik 820'ra eta bigarrena 910'tik aurrera izan bait ziran gotzai.

MAURELLUS.—Abata. Nongo abata zan ez du esaten. "Morotxo" esan nai du Maurellus'ek euskeraz, eta 979'garren urtera arte Donemillian'go larrukietan amairuren bat aldiz agertzen dan izena dugu. 867'ko onen ondorean, aurrenekoa, 53 urte geroago, 920'eant, "Maurellus abba", Santxo Naparroa'ko erregearen ingurukoen artean zebillen abata baten izena. Ez daiteke lengoa izan.

AVOMAR.—Lekaidea. Nongoa ez dakigu. Ez da geiago izen au Donemillian'go idazkietan azalduko. Antz-aldatutako euskal-izen bat dala dirudi.

MONIO.—"Presbiter". Bereterra beraz: "presbiteroa". Larrukietan idazten zuten "NI" ori "Ñ" agoskatzen zutelako, bereter aren Monio izena guk ere Moño irakurri bear dugu. Itz euskalduna da. "Muño"ren aldakuntza. Donemillan'go idazkietan maiz agertzen zaigun izena. Au, larruki ontako au, aurrenekoa.

Izen oiek danek badute guretzat garrantzia. Ez bait dira bsigotak.—Eliz oso-koak edo Euskalerrri bertakoak baizik. Bisigoten "santoral" edo donetegian ez dira beintzat agertzen. Eta ori, balio aundiko puntua dugu. Bisigoten kultura Euskalerrria ez zala sartu esan nai bait du. 711'n ezabatu zan España'ko bisigoten jaurreria Afrika'tik etorritako arabitarren ankapetan. Mende'terdi geroago, 867'an, bisigoten jarraipen izan ziran mozarabeen Eliza eratzen ari zan aroan, Euskalerrriko kristautasunak, bisigoten kutsurik gabe jarraitzen zuan oraindik.

Orregaitik, ez diet beñere nik on-iritzi aundiegirik eman bisigotak dirala esan oi dan gure baselizetako leiotxo oiei: Araba'n Ermu'ko baselizako leiotxoari adibidez. Edo, Gipuzkoa'n, Astigarribi'ko beste ari.

Araba'ko "gobiak" ere, —ots—lekaide bakartien bizi-toki izateko, eskuz irikita-ko leize-zuloak—, arabitarren aurrean Euskalerrria igesegindako lekaide bisigotek egiñak izan zirala esan izan da beti. VIII eta X mendeen arteko epean egiñak. Lekuona'tar Imanol'ek bakarrik esaten zuan gure "gobiak" leenagokoak dirala; V, VI, eta VII mendeetakoak dirala. Arrazoi eman dio arkeologiak. "Gobi" oietan VII mendeko illobiak, eta illobi oietan giza-ezurak, aurkitu bait dira.

Badugula euskaldunok, ez dakit nondik sortua, gure Erria erri txiro mottel bat izen dala uste izateko joera gaizto makurra!

* * *

Larruki ontako izenik jakingarrienak ordea, besteak ditugu: nekazari arrunten izenak: Larre, alor, soro, eta masti-jabe arrunten izenak.

Izen oietatik batzuk, —Severo, Eximino—, Eliz osoko santu izenak dira; ez, bisigoten donetegikoak.

Beste batzuetan, argi agiri da izkutatuta daramaten euskal-sustraia:

BEILA.—Ezpairik gabe BELA dugu, autrigoiien artean, batez ere Araba'ko ta egoaldeko autrigoiien artean, arras oiturako giza-izena. Laister Bela izeneko aiten semeak VELEZ izango dira deituak erderazko idaztietan: Velez = BELAKUME. Euskeraz berriz, txit jatorki BELASKO.

GOINA.—Errez nabari da izen ortan "GOI" oiñarri-itx euskalduna. GOIENA zan bearbada jaun aren izena. Seguruaski, gaur bertan ain oiturazkoa dugun lez, bere etxearen izenetik jasotako izena.

ELDUARA.—"Eldu" (Elduaie, Eldua), eta "Ara" (Araba, Aragoi, Araoz, Aramendia...), oso-osoan izen euskalduna da. ELDUARA, noski, nekazari autrigoi arek, bere baserriaren izena zuan.

ORVANO.—Euskal-kutsu nabarmeneko izena. Etxe baten izena ezpairik gabe. "ANO", (Artano, Zurbano, Arano), atzizki toki-adierazlea dugu. "ORBA" berriz, (Orbaizeta, Orbaran, Orbano), zenbaki onen aurrekoan aztertu genduan itza da.

* * *

Ulerkaitzagoak ditugu ondorengo izen auek. Baiñan izen oien zergaitia aditze-ko, badut nik teoritxo bat. Nerea bakarrik dalako ez da bearbada fidagarriegia izango. Baiñan teori bat bada beintzat: gure larruki zaarretako izenak ulertu aal izateko bidetxo bat.

Ona, lendabizi, itxura biurriko itz oien zerrenda:

SABORITO AVENTI MOGESTO BELLITI FLAINO

Izen oiek euskaldunak diran galdetuko didazu arriturik noski. Ta ezetz eran-tzungo dizut nik. Izen oiek, dauden bezala, ez dirala euskaldunak. Baiña, dauden bezala egotera nola iritxi zitezkean aztertzea da euskal-ikerlari oren lendabiziko eingizuna.

Izen oiek zeramazkiten gizakumeak, euskaldunak ziran danak oso-osoan. Beren izenak, ortaz, edo done-izen kristauak edo euskal-izenak izan bear zuten naitanaiez. Izen oiek ordea ez dira done-izenak. Euskaldunak ziran, beraz, izen

oiek erriaren ezpainen, eta latiñera biurtuak izatean galdu zuten beren euskal-itxura.

Lumalarien erruz? Ez, naitanaiez; eta, ziurki, ez beti. Ikus:

1.^a—Egia da larruki auek bein edo bein baiño geiagotan berridatziak izan zira-la. XII mendekoa dugu, guri iritxi zaigun idazkia.

IX mendean larruki au aurreneko aldiz idatzi zuan lekaide ura, euskalduna zan, izkuntze eta biotzez. Arek ondo idatzi zituan seguruaski bere jendearen euskal-izenak.

Ondorengo berridazleek ordea, bearbada, ez ziran ain euskaldunak, ez elez ez biotzez, eta ez zizkiguten garbi aldatu, agian ulertu ere egiten ez zituzten izen aiek.

Ez da ordea ori, gure bots giza-izen trakets auen arazoa.

2'gn.—IX mendeko lekaide euskaldun aientzat ere ez zan euskal-izenak latiñera biurtzea guk uste bezain eginkizun erreza: Batez ere, euskerak ain maite dituan "tt", "dd", "tz", "ts", eta "ñ" beraren doiñuak latiñera jasotzerakoan! Baiñan ori ere ez da gure bost izen auen arazo bakarra.

3'gn.—Euskaldunok betikoa dugu, itzak laburtu, eta, fonetikaren bidez, orrela laburtutako itz oiei beren jatorrizko itxura aldatzeko zaletasun bizkorra.

Bada Betelu'n Lategi deritzan etxe bat. Etxe orren egiazko izena, Latiegi da. Ta, etxe bateko jendeari etxe orren izenez deitzea oiturazko gauza bait dugu, Lategi'ko etxekojanari "LATTEI" esaten zioten bere erriarrek.

Orrela laburtutako izen ori latiñera aldatzerakoan, IX mendeko lumalari batek, "Lathey" idatziko luke noski. LATHEIUS nominatibu-eran. Gero, XII mendean gero, erromantzea jaiotzen ari zan aroan, "Latheius" orren "La" ori, erromantzeko artikuloa zala irudituko zitzaion bir-idazle edo kopiatzailleari, eta, latiñak nominatibu-eran artikulu-bearrik ez bait du, THEIUS idatziko zuan jatorrizko gure euskal-izen ura.

Zumarraga'ko mutil bati, XUMA esaten genion guk gaztetan. Bá, erdiaroko lumalari batek, "X"ren doiñua adierazteko "SI" erabilliz, SIUMA idatziko zuan izen ori. Edo SIUMUS, bearbada, arkunde edo maskulin-eran, izen ori gizaseme batena zalako.

"Iruñako" zeritzan edaritegi bateko jabeari, "ÑAKO" esaten zion jendeak. Izen ori, idazle aietako lumaren-punttan, "Nnacus", "Niacus", "Nniacus" biurtuko zan. Eta, idazle ark latiña obeki ezagutzen baldin ba'zuan berriz, GNACUS. Eta ablatibu-eran GNACO.

Gure "Pallo" ta "Pello" adiskidetasunezko izenek ere aldakuntza portitzak jasan bearko zituzten:

PALHUS edo PALIUS; PALIO ablatibu-eran, Pallo'k. Eta, Pello'k, berdin: PELHUS, PELHO, edo PELIUS, PELIO. Euskaldunek "f" izkia "p" biurtzen dugun bezala, erdeldunek maiz biurtzen bait dute "p" "f" izkia, baleike lumalari aiek gure "Pello" FELIUS eta FELIO idaztea ere.

Ezagutu nuan nik Arantz'eko Arribe'n arotz bat. Naparra. Lakuntza'koa zalako, "Lakuntxe" izan zuan beti, ezagutzen zuten guztientzat, izen bakarra. Esan dugu, nominatibu-eran latiñak artikuluen bearrik ez duala. Lumalari aiek, beraz, "La" ori, kendu egingo zioten "Lakuntxe"ri eta gure "TX" emateko "Cl" artuz, nominatibu-eran QUNCIEUS idatziko ziguten. Eta ablatibu-eran QUNCIO.

Oartu zera noski nola joan diran izen oiek danak beren euskal-itxura guztia galtzen. Nork sinistu lezake Quntieus eta Quncio, Gnaco, eta Gnacus, eta aipatu-berri ditugun beste izen oiek danak, jatorriz euskal-izenak izan ziranik?

Euskeratik-latiñara-bidea, —oraintxe guk ibillia dugun bide ori— oso bide erreza gertatu zaigu. Alderantzizko bidea da zaila: Larruki zarretako latifetik euskerarako bidea. Orregaitik, guk larruki ontatik jaso ditugun, oituraz-kanpoko bost izen oiek beren jatorrizko euskaldun eran zer izan zitezkean jakiterik ez dago.

Ala ere, jostaketa lez, zillegi bezait izen oiek oiñarriztat artuz, etimologiaren

arloan "science fiction" edo "jakintz-ipui" bat antolatzeko, saiotxo bat egin nai izatea.

BELLITI.—Jenitibu-eran dago eskierki. Jenitibu bikoitza darama gaiñera. "BELL-I TI", Itz orlan, sustraia, **Bella** dugu, esanik utzi dugun lez autrigoiei txit atsegin zitzaizen giza-izena. Ortaz "Belli" "Belaren" dugu. BELARENA ote zan gizon aren izena? BELASKO, agian? Baiña bigarren jenitibu bat ere gure **Belliti** orrek bai bait dakar, BELARENA'RENA edo BELASKORENA izango litzake itzaren egiazko euskal-itzulpena. Lumalari ark, "Belarena'ren edo Belasko'ren mastian" lateraz emateko, "in vinea de Belliti" idatzi zigun.

Bai ote? Baiñan izen orren morfologia edo tajukera, "Belli-ti" ez ote da? Guk, Prantxisko, adiskidetasunezko izenez "Patxi" esaten dugun bezala, autrigoie aiek, adiskidetasun-era berean Bela izen-zutenei, ez ote zieten "Belli" deitzen? Orrela ba'ltiz, larrukiko "Belliti" au BELARENA izango genuke.

AVENTI.—Emen ere genitibu batekin topo egiten dugu "Aven-ti". Itzaren enborra beraz "ave" edo "aven" dugu. Eta izen guziak ABE'RENA esan nai digu. "Aben" edo "abe" orrek (Abendaño, Abendiz, Abezia, Abelar) euskal-usai portitza duanik ez dit noski iñork ukatuko!

"Science Fiction"!; baiña, larruki ontako autrigoie ari, bere etxearen izena Abendaño edo orrelako zerbait zalako, erriko jendeak izen laburrez ABE deitzea ere baleiken gauza dugu. Guk, lpiurrea baserriko mutillari "lpi" esaten genion, eta Txartinea'ko jaunari, "Txarti". Eta orrelako laburpenak zuk eta nik, eundaka eza gutzen ditugu.

Jarrai dezagun "science-fiction-gintzan":

SABORITO.—Azkeneko "ito" ori diminutibo edo txipigarri bat dugu lateraz. Eta baita euskeraz ere "to" atzizkia. Baiña Egoaldeko euskeraz, Saborito ori, SABORITXO izanen zan. "Sabor" nondik arraio sortu zuten autrigoie zaar aiek, ez dakit.

Alare zerbait geiago esan-bearra badut izen oni-buruz:

Oroi, euskaldunok, lagunartean izki gogorak goxatzeko, adibidez "Z" eta "TX" gogorren doiñua maitetsuki "X" biurtzeko zaletasun aundia dugula.

Ortaz, autrigoie aren izena edo izengoitia Zabor edo Txabol izanik jendeak ttipigarri-eran Xabortxo edo Xaboltxo esaten ote zion? Orrela izatekotan ez litzake arritzekoa lumalariak autrigoie aren izena Saborito idatzi izatea, oso baldar ibiltzen bait ziran latinez gure "X"ren doiña emateko, eta adibidez Ximeno maiz Simeno idazten bait zuten. XABORTXO ala XABOLTXO ote zuan bá IX mendeko Saborito gure aberkide ark izena?

MOGESTO eta **FLAINO.**—Aurreneko **Mogesto** orri nondik ortzik sartu, ezin igarri dut. Alare, "TO", txipigarri bat duala derizkiot eta "to"ren aurreko "S", ugaritasun-adierazle bat. Ortaz itzaren enborra MOGE genuke. **Moge** ez da euskeran itz arrotza. Oroi Mogel, jatorriz beroien lurraldeko izena; eta jakiña da, beroiak, gaurko errioxarrak, euskaldunak zirala. Eta, egia bait da "o" eta "u" euskeraz errez alkar-trukatzen dirala "MUG"z asten diran izenak, (Muger, Mugerá, Mugertza, Mugiro, Muguruza...), ugari ditugula gogora ekartzen ba'dugu, Mogesto ori, mozorrotutako euskal-izen bat dala bildur aundirik gabe esan genezakela deritzait.

Ez dira errez ikustekoak **FLAINO** itzaren erraiak ere. Ablatibu-eran dator. Nominatibu-eran, **FLAINUS** izango litzake. Era orlan, itz ori, nongotasun edo nozentasun adierazle dan adjetibu edo itz laguntzaille bat izan daiteke. Ortaz, "Flainus" "Flaino'ko edo "Flaino'ren" izango litzake. Ontaraiño ez zaigu zaila izan bidea. Orain FLAI zer izan daitekean asmatzen dago kokka. Araba'n FAIDO izeneko erri bat badugu. "Fai-do. "DO", "NO", toki eta ugaritasun-adierazle diran atzizkiak ditugu. "Fai-do" beraz, "Fai" ugariko tokia da. Bapo! Baiñan..., FAI zer ote da? Eta, zer FLAI? Bureba'ko autrigoie euskaldun aiek, zergaitik esaten ote zioten beren erriar ari FLAI? Ea zuk, irakurle, eper ori lumatzen diguzun. Egizu kontu, "f" ta "p" errez nasten ditugulako, "Flai" ori "Plai" izan daitekeala; eta bai-

ta "BIai" ere. Bardulitarrek, karistiarrek, eta autrigoitarrek, "P" eta "B", bataz beste errez aldatzen bait ditugu, (bake-pake, barkatu-parkatu, portitza-bortitza)...

"Science fiction" guzia, bai noski. Baiñan itxura okerreko izen oiek zeramazkiten autrigoiei euskaldunak izanik, euskaldunak ziran beren egiazko izenak ere. Orregaitik, larrukiak damaizkigun bost izen trakets oien zentzura sartzeko zuk bide ziurrago bat eskeintzen ba'didazu, nik zure bide berri ori oso pozik onartuko dizut.

Danadala, onako auxe adierazi nai nizun nik, egin dizudan saiaketa orren bidez: Euskalerrian eta euskaldunen artean aurki dezakegun izen ulerkaitzen zentzua ulertzeko, iberoar, keltar, edo aien aurreko indeuoparregana jo bearrik ez dugula. Naikoa dugula, euskaldunok izenak ipintzeko oiturazkoak ditugun erak gogoratzea. Eta, ortaz gaiñera, euskaldunak asmatutako, laburtutako eta maiteki itxuraz aldatutako euskal-izen oiek latiñez idazteko lumalari zaar aiek aurkitzen zituzten eragozpenak kontuan eukitzea.

Gure artean sortu-berri zaizkigun latinzaleek ere ongi kontuan euki bear luke ten gauza da, erdiaroko lumalari aiek, al zituzten izen guztiak latiñera itzultzeko izan zuten zaletasun gogorra.

Ala, adibidez, AZKOITI'KO "de Supra Penna" biurtuko zizuten, eta AZPEITI'KO "de Sopenna", aneika aldiz ERREKALDE'KO "de illo ribo", ITURRIETA, "ad Fontes", ARANZABAL, "Valleampla", OLAETA, "Ferrara", eta beste orrelako millaka itz latiñera biurtu zituzten bezala.

Larrukiak bost santu-izen damaizkigu, jenitibu-eran bostak: "Johanis"; (Jon'en izena lateraz barren-atxez idazte ori erdiaroko lumalarien oitura da). "Justi et Pastor"; "Caprasi"; "Mametis", eta lerrotxo batzuk aurrerago "Mames"; "Mametis" aren nominatibu-era.

Done oietatik, bi, Justus eta Pastor, bisigoten donetegikoak dira; Alkala uriko semeak izan ziran biak, eta biak beti batean aipatzen diranak. Poliki-poliki, naiz arras berandu, bisigoten liturgia sartzan asi zitzaigularen adigarri ditugu larruki ontako Justus eta Pastor oiek. Ez da arritzeko gauza, euskotarrak eta bisigotak alkarren ondoan ain luzaro bizitu ziran ezker, eta batzuk eta besteak katolikoak izanik. Bisigoten liturgiko aztarna ori gure a rtera ain berandu, —bisigotak jausi ta eun urte ta geiagoz gero—, sartzan asi izatea gertatzen zaigu arrigarria. (1)

Larruki ontan, "San Mames"ek toki-izena dirudi. Bañan larruki oni 1043'an erantsi zitzaion idazketa batean, "de alia pars vinea de fratres de S. Mames", ots, "San Mames'ko anaien mastiaren beste aldetik" esaten da. Badirudi beraz San Mames lekaidetxe baten izena zala eta "frantres" edo "anai" aiek lekaidetxe artako lekaideak zirala.

Eraskin ontan bi dira doai-emailleak: Jimena andrea ("ego Semena", "i", askotan, "e" idazten bait zuten); eta Izani zeritzan abata bat: ("ego Izani abba"). Izen onek ere, ez al du euskal-usai aundia?

* * *

Emaitzak berriz, Gísando abatak eraikitako lekaidetxe ari egiten zaizkion emaitzak, bai 867'ko larrukian, bai 1043'ko eraskiñean, alorrek eta barrutiak dira; mastiak bereiziki, Gisando berak emandako eliz-liburuetaz gaiñera.


(1) Bisigotak jausi ondorean, aien liturgia mozarabeen bidez sartu zitzaigula, ez da esan-bearrik izango.

Gaur, Bureba'n mastirik ez da. Baiñan ugari ziran orduan Araba'ren zati zan Bureba artan, eta baita Araba'n bertan ere. Txakolingintzarako erabiltzen ziran mastiak. Bere ardo gozo ta guzti Errioxa ez zegoan urruti. Bideak ordea ez ziran gaurkoak bezalakoak eta ezta bidegailluak ere. Zaila ta neketsua, ta arras geldia, izan oi zan gauzen karraioa, eta, orregaitik, tokian-tokin sortuarazten ziran, bearrezkoak zitezkean gauza guztiak. Naiz, txakoliña bezala, tokian-tokiko gauzak kanpotiko aiek baiño minkatzagoak izan.

Errege-aipurik larruki onek ez damaigu. 867'an, Naparroa'n, II Gartzia zan errege. Eta Asturietan III Albontsa. Ain zuzen, urte artan, Araba'n bizi zan au, Asturietan aurka jeiki zitzaizkion etsaiengandik igesi. Alare, ez duzu larruki ontan erregearen aipurik aurkituko. Ezta Naparroa'ko II Gartzia'renik ere. Iruña-inguruaz kanpo, erregeek eusko-laterri iareetan oraindik oso itzal murrirtza zutelaren adigarrri.

Latiegi'tar Bixente





AETZEN USKARAS

Errelatiboa

Aditz laguntzaileari -n bat atxikiz eiten da errelatiboa.
mutila etorria da.
etorri den mutila
lana ein duzu
ein duzun lana

Iragan aldiko errelatiboa aisa berexten da aetzen uskaraz, iraganeko ditzek ez bait daramate -n beren bukaeran:

Neskakoa etorri ze eta etorri zen neskakoa
lana ein zindue eta ein zinduen lana
etxea ikusi nue eta ikusi nuen etxea

-a bukaera duten aditzek -en artzen dute errelatiboarena egitean.
niz, yiz, du, tu ere -en artzen dute.

Lehenengo eta bigarren pertsonetan aldaketa auek ditugu:
-t n -dan
-k n -an
-n n -nan

Gainontzeko bukaera guztiei -n erasten zaie.

Aezkoako uskararen atzizki - aurrizkiak

A. articulo, el, la, lo, gizon, gizona
AALA. cuanto es posible, ekkari aala.
-AEKIN. ver -AREKIN. amaen, aitaen.
-AEN. ver -AREN, -OIN. amaen, aitaen.
AGO, -AO, -AGOTO. mas. aundiago, beltzao, apartexagoto.
AGOTU. hacerse mas. andiagotu, txigiagotu.
ATRE. menera, modo. mintzair, elaire.
AK. 1. los las, (sujeto pasivo plural) gizonak fan zire.
2. el, la lo, (sujeto agente singular) gizonak ekarri du.
Ala. cuanto es posible ein ala, eman ala.

ALDE. 1. region. oionalde.
 2. cercania. elizalde.
 3. parte, lado. goialde
 4. grupo, rebaño. zarralde, aurralde.

ALDI. 1. rato, momento, suceso. eztulaldi, eroaldi.
 2. efecto. aitzukaldi.

ALE. agente. emale, edale, xale. ver zale.

AN. 1. adverbio de modo. atzean la tientas), estalian
 2. sufijo deklinatibo, en el en la, en lo etxean.

ANDA. diminutivo. oilanda.

ANGA. diminutivo. zilanga.

ANTZA. semejanza, parecido. urre antza.

—AR, —TAR. origen. orbaextan, zaizuar.

—ARA. celo de animales. oara, arkara. uskara.

—ARAZI, AZI, AAZI. con verbos: obligar a... edanazi, ein azi
 ARAZLE, —AZLE. que obliga a... edanazle, einazle.

AREKIKOKO —AEKIKOKO para, con respecto a eneaekiko
 AREKIN, —AEKIN. con el, con la... gizonareki.

AREN, —EIN; —AIN, —AEN. del, de la, de lo.. gizonein.

—AENGAN, —ARENGAN. en el, en la/s: animados gizonaengan.

—AENGANA, —ARENGANA. (direccion) a la, a el (s. animados) gizonaengana.
 ARENGENEINO, —ARENGEINO. hasta el, la (s. animados) gizonaengeneino.
 ARENGANIK, —AENGANIK. desde el, la (s. animados). gozonaenganik.

—ARENGANIKO, —AENGANIKO. procedente de. amaenganiko.

—ARENDAKO, —AENDAKO. para el, la. amaendako.
 EINDAKO. para el, la. aiteindako.

ARI. 1. objetivo material. bazkari, edari.
 2. agente. pelotari, aukari, zurrungari.
 3. lugar. atari, elizari.
 4. dativo. gizonari, amari.

ARO. sazón, tempero. azaro, eguaro.

ARTE. espacio, intervalo. aitzarte, lanarta
 medio, entre. artelan.

ARTEAN. entre. oianartean.

ARTIO. hasta. sarri artio, biar artio.

ATS, —AS. desnudo, descubierto, a. buruaatsean eldu da.

ASKI. bastante. aisaski.

ASTE. comienzo. argiazte, udaste.

ASUN, —TASUN. cualidad abstracta. osasun, eritasun

—ATZ. huella, vestigio.

—AURE. intensivo. naure, zaure.
 AZ. gerundio. ikusiaz
 acerca de... semeaz, gizonaz.

AZI. (con verbos) obligar a... edanazi, xanazi.

—AZPI. debajo.

—BA. si condicional. batu.

—BAIT. ver —BEIT.
 BAITAN. ver —BEITAN.

BALIN BA. si condicional. balin badae.

—BANA, —NA. a uno, a tanto a cada uno, a. bana, irurra.

BARNE. interior.

BASA. silvestre. basáka.

BAT. bezanbat.

BE. debajo de. egarbe.

—BEIT. idea indeterminada. norbeit, zerbeit

BEITAN. en, dentro de. (s. animados) ene beitan.

BER. prefijo numeral, dos. berrogei.

—BERA. 1. propenso a eribera.

2. blando. gaztanbera.

3. facil de. egosbera.

—BERATZ. blando.

BETE. completo, un, uno, a. urtebete, ilabete.

BEZIN, —BEZEIN. tan... como (cualidades) gori bezin ona.

—BEZANBAT. tanto que... (cantidades). gorrek duen bezanbat dut nik.

BIDE, —PIDE. 1. médio, método. sendabide, xuxenbide.

2. camino, gurpide, organbide.

—BURU. alto. iriburu.

—DANIK. desde.

DASUN. ver —ASUN. ondasun.

—DEGI, —TEGI, EGI. sitio de, para. egurtegi, txerrindegí.

DEI, —TEI, —EI. sitio de, sitio para. egurtei.

DIK, —RIK, —TIK. de, desde. gendik, gortik, etxerik.

DIKO, —TIKO. procedente de. zerutiko, oianetiko.

—DIN. como, parecido. gordin, urdin.

DOI. sitio de. también —TOI. sagardoi, ariztoi.

DOKI. lugar. ausadoki.

—DU, —TU. suf. verbificadores. gizendu, anditu.

—DUI. sitio de. sagardui, ariztui, elordui —TUI.

DUN. que tiene, poseedor. adardun, eiledun.

DURA, —KURA, —TURA. (CON VERBOS) efecto de. mindura, aztura.

—E—. vocal eufónica. bateko.

—EAN, —AN. en. etxean goizean.

EDO—. —guiera. edonon, edozein.

EGI. 1. demasiado. (con adj.: y adverb.) andiegi, goizegi.

2. ladera. ekia.

3. ver TEGI, —DEGI.

EGILE, —EILE, —LE. agente, hacedor. egile, ekarle.

—EIN. hacer. onein, amets ein, galdein.

EGITU. hacerse demasiado. aundiegitu.

EILE. hacedor de.

ganoso de. logeile, kakeile.

EI. 1. estar ocupado en. elekatzen ei gira.

2. hacer impersonal. auria ei du.

3. a los, a las. gizonei.

EINO. hasta. noreino.

EIN. del, de la. aitein, amein. —OIN. Julioina.

EKIKO. para con los. gizonekiko.

—EKIN. con los, con las. gizoneki, gureki.

EKO. del, de la. etxeko, geineko.

EN. de los, las. gizonen, anaien.

—ENA. 1. posesivo. guzien, lsabelena.

2. el, lo, la mas. aundiena, txikiena.

ENBE TZE. tanto como. gonenbertze gorrenbertze, geinbertze.

ENDAKO. para los, las. gizonendako.

ENEAN, —NEAN. cuando (con verbos) ver —LEIK.

—ENEKO, —NEKO. en cuanto, para cuando. eldu deneko.

ENEZ, —NEZ. según. erraten ginduenez.

ENGAN. en los, las. (s. animados). gizonengan.

- ENGANA. a los, las (s. animados) gizonengana.
- ENGINEINO, -ENGEINO. hasta los, las. (s. ani.) ziengeneino.
- ENGANIK. desde los, las. (s. ani.) gizonenganik.
- ENGATIK. porque... zerengatik, gorrengatik.
- ERA. a, a el, a la. sing. con tema en conson. aranera, oianera.
- ERI. 1. conjunto de. gazteri, zilarrerri, zureri.
- 2. enfermedad. zarreri.
- ERRE. alcance. ikusterre, entzusterre.
- EZTATU, -ESTATU. cubrir de, guardar. loieztatu, urestatu.
- ETA. 1. despues de haber. xan eta, etorri eta.
- 2. pluralizante. nor eta izan zirate?
- ETAKO. de los de las. oianetako, etxetako.
- ETAN. en los, en las. oianetan, harriketan.
- ETRA. a los, a las. oianetra, etxetra.
- ETREINO. hasta los, las. oionetreino, etxetreino.
- ETEIK. desde los, las. oianeteik, etxeteik.
- ETAZ. acerca de (plural). gizonetaz, oianetaz.
- ETIK. del, de la. (sing. con tema en conson.) oianetik, oianerik.
- ETSI. sufijo verbal. tener por... onetsi.
- ETZ. que... baietz, ezetz.
- AZ GEROZ, -AZ GEROS. desde que, posteriormente.
- EZKO. hecho de, materia. zurezko, urrezko.
- GABE. sin. ustegabe, gogogabe.
- GABEKO. in-, des-, sin. ustegabeko.
- GEL. destinado a, apto para. senargei marrogei.
- GAIN. ver -GEIN.
- GAITZ. difícil de, malo.
- GAISTO. ver -GEISTO.
- GAN. en, (seres animados). guregan.
- GANNA. a (seres animados). guregana.
- GANIK. desde, (seres animados). gureganik.
- GARAI. en toponimia, alto, elevado.
- GARREN. ordinal. seigarren.
- GARRI. digno de. ikusgarri.
- apto, próprio. berogarri, lakarri.
- GATIK. por causa de. zurengatik, etortzeagatik.
- AGATIK. a pesar de. etorriagatik, eginagatik.
- GEIN, -EIN. encima. geinean, etxeina.
- GENEINO, -GEINO. hasta (s. animados). gizonengeneino.
- GEISTO. difícil de, malo de. ein geisto.
- GI, -KI. (adverbial). ongi, geizki, poliki, ederki.
- GIBEL. tras, detrás. etxegibela.
- GILE. hacedor de. egurgile, langile, ongile.
- GIN, -KIN. agente; que trabaja en. argin, ikazkin.
- GINGO. profesión. argingo.
- GINTZA. fabricación. ikaskintza.
- GIO. lugar de, sitio de. edangio, xangio, bilgio, langio.
- GISA. según, al modo de... gizonaen gisa.
- GO. 1. profesion. unango, argingo, sorgingo.
- 2. colectividad. aidego.
- 3. cualidad, idea abstracta. ustengo, muturgo.
- GOI, -KOI. propenso a, amante de... berekoi.
- GOI. altura, alto.
- GUNE. lugar de... urgune.

- IDE, —KIDE. colega, compañero de... aurride, lanbide, adixkide.
- I. 1. dativo de nombre propio con tema en consonante. Juani.
2. indefinido con tema en consonante. gizoni.
- IK, —RIK. 1. adverbio modal. ixilik, auferrik, bizirik.
2. gerundio. lotuik, enoiatuik.
3. indefinido. gizonik, etxeik.
- IKO. einiko.
- ILA. mes de. izotzila, otseila.
- INGURU. alrededor de. etxe inguruan.
- IZANA. ex. alkate izana.
- K. sujeto agente singular. nik, yik, guk, gizonak ein du.
- KA. gerundial. estalika, isilka, arrukaldika, bulkaka.
distributivo. asteka, urteka, irurraka.
- KADA. accion, golpe. arrikada.
- KALDI. ver —ALDI.
- KARI. ver —LARI. aukari.
- KATU. sufijo verbal derivado del gerundio modal en —KA. arrikatu.
- KERI. defecto, vicio. arrokeri, zikinkeri, geistokeri.
- KETA. 1. accion, ocupacion. eleketa, egurketa, sagarketa.
2. tropel, abundancia. mendiketa.
- KI. 1. adverbio modal. emeki, biziki, gogorki.
2. materia. ardiki, adarki.
3. cosa para. estalki.
- KIDE. colega. maikide, lankide, adiskide.
- KIN. agente. ikazkin, arakin.
- KO. 1. diminutivo. mandoko. mutiko.
2. golpe en, con. muturreko, zartako.
3. para, de. noizko, biarko.
4. de (TIEMPO). eguneko, atzoko, xazko.
5. compuesto de. bateko, laureko, zortziko, amarreko.
6. de, estancia. etxeke, oianeko, erriko.
7. prenda. lepoko, soineko.
8. tiempo de... gerrako, mezako, prozesioko.
9. por cada. eguneko borts pezeta.
10. sufijo de futuro (verbos). etorriko, puskatuko.
- KOAN. durante gerrakoan, mezakoan, prozesiokoan.
en la idea de... baiezkoan. eldu zelakoan nindego.
- KOTX, —KOITZ. compuesto de... bakotxa.
- KOR. facil de, propenso a. luzakor, izikor.
- KOSKOR. diminutivo. mutil koskor.
- KOTAN, —TZEKOTAN. en caso de. eitekotan, ematekotan.
- KUME, —UME. cria. txerrikume.
- LA. 1. modo. gola, gala.
2. que (completiva). fan dela diok.
3. gerundio. lo zeola, gan zeilela.
- LAKO. 1. modo, clase, tal como. nolako, golako, galako.
2. de que, porque. etorri zelako.
- LAKOAN. creencia. fan zelakoan nindego ni.
- LARI. agente. aizkolari, altzinlari.
- LARIK. ver —LEIK.
- LE. agente. ikusle, entzule, xale.
- LEIK. sufijo gerundial. gan gineleik.
- MEN. acto, accion de, barkamen. poco uso.
- MIN. 1. dolor. biozmina.

2. deseo, ánsia. xakinmina, ikusmina.
 3. intenso. negu minean gaude.
- N. relativizante. que... eldu den astean.
 NA. distributivo. tanto a cada uno. bana, amarna.
 NAKA. de tanto en tanto. banaka, amarnaka, irurnaka.
 —NEAN. ver —LEIK.
 —NEI, —NAI. querer, quiera. nornei, norneik.
 deseo, deseoso. xakinnei.
 —NGO. gorringo, zubingo. diminutivo.
 —NIK. indefinido (tema verbal). ez uste etorriko denik.
 —OLA. sitio. Arriola, bagola.
 ferreria. Orbaextako ola
 tabla, tablilla, etxola.
- ON—. aprobar. onetsi, onartu, onein.
 ORO. cada uno, todos. egunoro, gaboro, asteoro.
 —OTS. ruido. falots, drindots, abarots.
 PE. debajo. estalpe, eskupe.
 PEKO. de debajo. mipeko.
 R. natural de orbaiztar.
 RA. a la, el. etxera, iturrira.
 —RA. ver —NA.
 KAKA. ver —NAKA
 RAKO. destinativo seres inanimados.
 RATU. ir venir, llevar a... etxeratu, oianeratu.
 REINO. hasta. etxereino, oianareino.
 REKI, —REKIN. con, compañía, gorreki, gurekin, gureki.
 RENA, —AENA, —EINA, —OINA. de, posesivo. amaena, aiteina.
 —RENDAKO, —AENDAKO, —EINDAKO. para. amaendako.
 —RENGANA, —AENGANA. a, (s. animados). amaengana.
 RENGEINO, —AENGEINO. hasta (s. animados). amaengeino, amarengeino.
 RI. 1. a el, a la. aitari, amari.
 2. conjunto de gazteri.
- SKA. diminutivo. gorriska.
 SKO. diminutivo. oilasko, berosko.
 TA. sufijo verbal, despues de... etorri ta, erabiliagoa da eta.
 —TADA. acto, zurrutada, tarratada.
 TAKO. indefinido con tema en vocal. zubitako.
 tambien con pronombres... yiretako, guretako.
 TALDE. grupo, rebaño. artalde, biortalde, gizortalde, dantzatalde.
 —TAN. en. gortan, gontan, garlan.
 veces. anitzetan, gutitan, batzutan.
 TRA. a los, a las. etxetra, oianetra.
 medida llena. eskutra, besatra, saskitra.
 TAZI. obligar a... apurtazi.
 TASUN. cualidad. edertasun, gizontasun, gizentasun.
 TAZ. sobre, acerca de. zutaz, nitaz, baita zutas, nitas.
 TE. accion verbal. errate, eite.
 temporada de... idorte, aurite, elude, izozte.
- TEAN. en, al momento de. ikustean, ematean.
 TZEAN. en, al momento de. etortzean.
 TEIK. de los, de las. (desde). etxeteik, oianeteik.
 —TEGI, TEI, sitio de, para. txerritegi, egurtei.
 TEKO, —TZEKO. 1. para. fateko, etortzeko.
 2. digno de. ikusteko da gori.

TEKOTAN, —TEKOAN, —TZEKOTAN. caso de, si es que eitekotan ongi einen dugu.

—TEN, —TZEN. sufijo verbal. ikusten, erretzen.

—TERA, —TZERA. sufijo verbal. ikustera, ekartzera.

—TIK, —RIK. de, desde. etxerik, oianerik, etxetik.

—TOI, —TUI. sitio abundante en... ariztui, ariztoi.

—TOKI. lugar. zerratoki, xostatoki.

TSU. casi, poco mas o menos. berdintsu, gaberditsuan.

—TT—. diminutivo. atsotto.

—TU —DU. sufijo verbalizante. gizendu, gizondu, gareitu.

TURA. ver —DURA.

TZ. aumentativo. tzerria.

—TZU. pluralizador. batzu, zeintzu.

—X—. diminutivo. gixon, xakur, exur.

XKA, —XKO. diminutivo.

Z. 1. acerca de, sobre. xeiaz.

2. tiempo. egunez, gabaz.

3. vez. aldiz, bigarrenez.

4. modo. niarrez, buruz, otzez, gosez.

5. medio. makilaz, trenez.

6. causa material. urez bete.

7. movimiento. karrikaz karrika.

8. en cuanto a. izatez ez da gengoa.

ZALE. 1. aficionado a. errizale, uskarazale, pelotazale.

2. dedicado a ermanzale.

—ZAR. viejo, vieja. artzarra, minzar.

—ZARO. época, sazón. aultzaro, garagarzaro.

—ZE. cuidador de. mandaze, urdaze, bioze, artze.

ZILO. uy apegado a. amazilo.

—ZKI. 1. adverbial de modo. egiazki.

2. pluralizante verbal. dramazkit.


—ZKO. hecho de. zurezko, arrizko.

ocasión. egunezko, gabazko.

—ZU. poseedor de. indarzu, mukizu, zorrizu.

ZUTU. Temporada de la vida. aurzutu, gaztezutu.

Josu Cabodevilla





IPARRAGIRRE ETA GERNIKAKO ARBOLA*

(Illun batzuk argitzen)

Madrillen izan el zan, 1853garren urtean.

Urte bi lenagotik an bizi da Iparragirre, Bilbotar batek, Españaiko gobernuaren ordezkari zan Mazarredo jaunak etxerako bideak zabaldu eta beretarren artera etorri zan ezkeru.

Ama Madrillen eukan ezkeru, ara jo eban lenengo. "Au al da eskolatik etxeratzeko ordua"? esan ei eutsan sartzekoan etxetik iges egin eutsan eskola-mutillari, orain jasa ederreko agertu dan gizon bizartsu elduari.

Laster egin da kantari gaztea oso ezaguna Madrilgo euskaldunen artean. Ezaguna, ain zuzen, orrexegaitik, estarri ederra daukalako eta kantaldi atsegingarriak emoten dakialako. Bere bertso eta soiñurik asko, gaiñera, berak asmauak eta euskerazkoak ditu.

Euskaldunik geienak Montera kaleko kafetxe batera joten ei eben. Araxe dau jokerea Bizkaiko musikarari gazte batek be: Altuna abizeneko Durangoko semeak. Iparragirre ta biak adiskide andi egin dira. Eta bein orra zer iragarten jaken kafelagunai: urrengo egunean, kanta barri bat entzungo dabela. Zer izango ete da?

Urrengo egunean iñozko entzulerik geien agertu da kafetxera. An dira Iparragirre eta Altuna, emoniko berbeari erantzuteko gertu. Iparragirre, oraingoan, euskaldun kantariaren betiko "laguna" itxita, gitarra barik; Altuna, pianoan laguntzaille. Kantua asi daneko, entzuleak menderatuta dagoz. Benetan gauza barria da gaur entzuten dabena. Biotz-biotzetaraiño sartzen jake. Bertsoz bertso Iparragirre aurrera doa bere lanean, eta dana amaitu dauanean, an ziran txaloak, an zan guztien sua eta zoramena! Bein eta barriri entzunazo deutse dana musikarari biai, entzutez ase eziñik, guztiak ikasi daberen arte, guztiak batera abestuteko gauza izan diran arte.

Gau atan sortu zan Gernikako Arbola, andik aurrera urte askotan euskaldunen eresi nagusia, ereserki aberkoia, izango zana. Arrezkeru Iparragirreren izena eta Gernikako Arbolarena batera doaz kantariaren zorionerako eta zoritxarrerako.

Batetik Euskalerrri osoa Iparragirren atzetik doa; bestetik, Madrilgo agintariak kezka eta larri dagoz. Lengo ekatxen durundiak ez dira guztiz ixildu, eta bildur edo dira an goietan kantari bildurgarri onek ekatx barriren bat sortuko ete dauan. Baiña kezka eta bildurra eta da, ba, Madrilgoena? Ez ete da izango an beti dauken gatxa, Euskalerrriko arazoak, Euskalerrriaren arimena ulertu eziña? Iparragirreren bertsoetan ez dago gerrarako otsik ez deirik:

* Karmel 1978-3, 51-62.

Gerrarik nai ez degu,
pakea betiko
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.
Begiratu gaitzazu,
zeruko Erregina,
gerrarik gabetanik
bizi al gagiña,
oraindaiño izan degu
guretako diña.

Ez: Iparragirrek ez ekarren burrukarako gogorik;: gerrarik naiko izan dala uste dau Euskaldunentzat. Gernikako Arbolaren bertsoak argi diño. Baiña euskerarik ulertu ete dabe iñoz Madril-aldean? Eta "poliki-poliki" zibillak bialdu dautsez kantarjad, Euskalerritik alde egin bear dauala agintzen. Eta orra barriro bera, bere errialdea itxi bearrean, erbesteko ogia jaten. Azken baten Ameriketarako bidea artuko dau. Orra Urretxuar ospetsuaren bigarren erbestealdia, lenengoa baiño luzeagoa Arjentinako lurretan. Zoritxarraren gororra! Aberriaren alderako maitasuna besteengan erein ebana, bera aberri barik atzerri latzean, beretarrenganik urrin! Guztiak aiztuta eukela! Askotan iltzat emona!

Igaz bete dira eun urte bigarren erbestealdi oni azkena emon eutsala. Errez igarri geinke aren poza, bere erriko mendi maiteak barriro ikustean:

Ara nun diran, mendi maiteak,

ara nun diran zelaiak:

baserri-etxe, txuri-txuriak,
iturri eta ibaiak!

O Euskalerrri, eder maitea,

ara emen zure semea,
bere lurrari mun egitera
beste gabe etorria.

Zuregatikan emango nuke

pozik bai nere bizia,
beti zuretzat il arteraiño
gorputz ta arima guzia!

Gure artean zan barriro, berak uste barik, bere lurrean azken arnasea emoteko etorrita. Laster izango da bera galdu genduaneko eungarren urtea be. Ori dalata, omenaldirik egiten asi jaso Iparragirreri, eta geiago be egingo jakoz oraindaiño.

Nire lerrook be orretarako datoz. Iparragirreren gomutagarri izan nai dabe eta aren omenaldirako lagungarri, Gernikako Arbolaren iguruan sortu diran eztabaida edo ezmez batzuk argitzen aleginguz; !a itaun batzuei erantzun argigarririk emoten deutsegun.

Gernikako arbola noztikoa dan

Eta ona itaun batzuk: Egia ete Madrillen so rtua dala, eta 1853garren urtean ain zuzen? Egia, doiñu eta bertso, dana Iparragirrek asmaua dala? Doiñuak berak ez ete dau aldakuntzarik artu, edo, bestela esateko, Iparragirrek lenengoz entzunazoa eta orain geien batez entzuten doguna bat eta bera ete dira? Ona ainbeste itaun, erantzun eske.

Goazen lenengo itaunera: "Gernikako Arbola" 1853garrenean Madrillen sortua ete dogu?

Erantzun baiezkoa emon bearren gagoz. Egia esan, Euskalerrrian sortua izan balitz, askoz obe eritxiko geuntsan, pozikago artuko genduan; bai orixe. Baiña alan nai olan, Madrillen sortua izan arren, euskal-giroak emona da, euskal-biotz batek sortua. Ori da beiñena. Eta Madrillen bizi zan euskaldunen giroa bakarrik

ez; euskal-biotz guztien giroa jaso, zuzendu eta bide bateratu nai izan dau kantari bertsolariak bere bertsoetan. Eta Bizkaiko Batzarretxe nausiko aretxaren inguruan ain zuzen. Aretx au, arbola au, nork egin dau euskal-legeen, euskal-ari-maren adierazgarri eta irudi? Urretxuko seme onek. Eta ez bakarrik Bizkaitarren-tzat, euskaldun guztientzat baiño. "Gernikako Arbola" kantuak euskaldun guztien gogo-biotzetan ain luzaro aurkitu dauan oiartzun eta abegi beroak asko esan gura dau.

Aspalditxotik, baiña askozaz geiago, karlisten gerratea euskaldunik geienen kaltetan galdu edo amitu zan eskero, euskal-legeak, euskaldunen betiko askatasuna eta berarizko nortasuna arriskuan dagoz. Dana galdu ez bada be, arerioen asmoak norantza doazen agirian dago:

"Arbola botatzea
dutela pentsatu
Euskalerra guztian
danok badakigu".

Arriskua euskaldun guztiena da, eta orrexegaitik, guztiena dalako, guztiak bat egin bear dabe, alkartu egin bear dabe euren eskubideak eta euren iraupena zaintzeko. Guztiak: Bizkaiak, Gipuzkoak, Arabak. Irurok dagoz Iparragirren bertsoetan izentaut; baiña laugarrena Naparroa, tartean da, ez da kanpo gelditzen:

"Etzera eroriko,
Arbola maitea,
baldin portatzen bada
Bizkaiko juntea:
Iaurok adujo degu
zurekin partea...".
Gipuzkoatik eskeintzarik adoretsuena dator:
"Erori etzaitzen
arrimatu neri,
zure sendogarria
emen naukazu ni".

Euskaldunen batasunerako deia zan Iparragirrek jaurti eta zabaldu ebana, eta ez gudarako irrintzirik, bakezko ekintzarakoa baiño. Bake itza askotan dator kantuan:

"Erregutu deiogun
Jaungoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti.
Bai ta indarra ere
zerorren lurrari,
eta bendizioa
Euskalerrari".

Orixe bai, begoz euskaldunak gertu alkarturik jokatzeko etsaien aurka ("erri alkartua, iñoz ez zapaldua", esango geunke orain), euren foruen ezaugarri daben Arbola orri bizirik iraunazoteko. Bizirik eta zutunik:

"Nere seme maiteak,
ez naiz eroriko.
Beartzen banaiz ere,
egon beti pronto,
nigandikan etsaiak
itzularazteko".

Baiña ori gutzi ori bake-bidez, politikazko ekintzaz, Batzarraren eta euskalgizoneen egitez egitea nai daua eta eskatzen daua naiko argi dagoalakoan nago.

Gogamenok ez jakozan bururatu gure kantariari, European zear, gitarra zartxoa lagun arlote antzean ibilli zan urteetan, bere erritarren artea etorrita gero baiño.

Berak autortua da: "Orduan ez nekian nik foruak zer ziranik; gazte argitu batek erakutsi eustan zer zan Gernikako Arbola. Arexek sutu nindun, eta gau atan bertan atera neban gero erri osoak agotan darabillana". Gazte orrek Iparragirri esana euskaldun askoren gogobiotzetan zirakian zerbait zan, nonbait; baiña Iparragirrek bestek ez eban jakin euskaldunen barruko irakin orri olerki-jantzia ezarten. Eta orra "Gernikako Arbola" zortzikoa, arrezkero euskaldun guztien eresi nagusia, ortxe ustu eta mamitu zituelako kantaria euskaldun guztien kezka, larri, gogo eta amesak.

Irakurri dagigun zortziko ori osorik. Orain orixe egiten be ez dakigu. Lenengo bertsoa bota eta kito. Gitxien diñoan bertsoa, atan be. "Adoratzen zaitugu, arbola santua...; eman da zabal zazu munduan frutua". Itzok be txarto ulertu doguzala uste dot, mundu guztia Gernikako aretxaren babespean jarri gura daualakoan edo. Larregitxo ez ete litzake izango? Iparragirrek ez dau or besterik eskatzen arbola orren iraupena berak esan nai dauan guztiagaz batera. **Munduan** betegarri bat besterik ez da, nire ustez. Urrengo bertsoak ez dabe mundurik ezetako aitatzen, geure mundua besterik ez, Euskalerrria forupean bizi izan dan erria. Erri honek, erri lez, bere buruaren jabe dan erri lez ilteko arriskua dau. Ez dedilla olakorik jazo euskaldunen zabarkeriz, iñondik iñora be. Olakorik jazo ez dedin, begoz euskaldun guztiak, erri eta agintari, ondo alkaturik, gertu eta zur.

Olerkariak, bein berak, eta bein arbolaren izenean berba egiñez, ez darabil besterik gogotan. Orretarako jaurtiten deutse euskaldunei bere irrintzia:

"Ea, bada, jentea,
denbora orain degu,
erori gabetanik
iduki biagu".

Kantariaren oiuk gizon eldu batenak dira. Eta Iparragirrek, berak be aitortu deuskunez, ez eban eldutasun ori lortu, erbestetik etorrita, emen, erri-barrutik, gure politika-egoera larría ikusi eta ausnartu eban arte. Orintsurarte iñok ez dau ukatu "Gernikako Arbola" kantariaren eldutasunean, 1853-garrenean sortua danik. Zeaztasunik barik berba egin edo idatzi dauanen batek, kantariaren bizitzako jazoeren bat jantziago egitearren, iñoz aurkeztu deusku edo iduritaratu deusku bera, esaterako, Londresen, teatro baten, "Gernikako Arbola" abesten. idazlearen irudipen utsa.

Labaien jaunaren okerra

Labaien jauna, gure antzerkigintzan ain ezaguna eta idazle ugaria doguna da "Gernikako Arbolaren" sorrera aurreratu egin gura izan dauana. Oraintsu asi da eretxi au zabaltzen, eta erea dauan guztietan egiten dau. Bere esanen eusgarri, Adema Zaldubi euskal-idazle eta olerkari bikaiñaren autorpen bat, edo esan ebalako bat dakar, Bernadou dalako beste idazle batek dakarrenetik artuta. Bernadou onen liburua, 1893garren urteko Azpeitiko euskal-jaien barri dakarrena da.

Baiña zer da jaun onek diñoskuna? Onen autorrak, onen esanak alderdi ustel bat baiño geiago dauko, eta bat be ez, Labaien jaunak esan-azo nai deusan aldekorik. Adema Zaldubik Larresoron entzun ei eutsan Iparragirrer "Gernikako Arbola" abesten. Noz? Larresoron abadegei zala, 1845-4 inguruan. Bernadou jaunak urte orretakotzat emon nai dau. Baiña erabatera Iparragirre Ameriketara bidean zanekoa dala diño. Beraz ezin izan diñoan urtekoa, amar-amabi urte geroagokoa baiño. Beraz, adema Zaldubi, abadegei barik, irakasle edo zanekoa izan bear.

Baiña eretxi onen ustelik ustelena zera da: ADEMA Zaldubik ez dauala "Gernikako Arbola" aitatu be egiten (ori Bernadou jaunak bere burutik asmau egiten dau), eta Zaldubieren itzetatik euretatik ateraten dala Iparragirrek Madrildik eta Euskalerritik zear ibilli ta gerokoa dala Larresoron emon eban kantaldia. irakurri daiguzan Zaldubiren berbak:

"Oraindiño gogoan daukat gizon aren irudia, iru pobrintzieta ospetsu egindako kantari aren irudia: txapela buruan, gitarrea eskuan, begiak su, arpegia bizarrez oparo jantzirik, gerrian gerriko gorria. Olantxe agertu da entzuleen aurrean, eta plaza-gizon asko ikusiaren antzera agurra egin ondoren, kantaldiari ekin deutso, gitarra-soiñua lagun, abots bete dardagarriaz. Kantarik ederrenak mendiz bes-taldean erriaren agotan zabal dabiltzanak ditu. Abotsa eder gozoa eta bertso-tarako goi-etorri ona; bertso batzuk kantatu ala bertatik bertara datorkioz. Entzuleak ez-titan eta txalo-oska entzuten dabe. Txaloak sutsuago jartzen dabe bera".

Zaldubik orduan entzundako kanturik bat bakarra aitatzten dau, olerkariaren errimiña eta erbestealdia gooratzen dituen:

"Gitarra zartxo bat dut
neretzat laguna;
horrela ibiltzen da
artist euskalduna:
egun batean pobre,
bertzietan jauna,
kantari pasatzen dut
nik beti eguna".

"Gernikako Arbola" kantuaeren aitamenik be ez. Nik uste, kantu ori ez eban Iparragirrek an kantau barik itxiko. Baiña Zaldubiren itzetatik ez da ezer ateraten. Andik ezer aterakotan, zera aterten da: Larresoroko kantaldi ori 1845-koa barik, urteak geroagoakoa, Bernadoy berak diñoanez gure kantaria ameriketara-bidean zanekoa izan zala, iru probintzietan zerar ospetsu eginda gerokoa.

Bernadou orren itzak eta Zaldubirenak ez dago aitatzetik lengo eretxiaren aurka, 1853garren urtearen aurka, Labaien jaunak egin deuskun lez.

Doiñuaren egille, Iparragirre ala Altuna?

Iparragirrer ez deutso iñok ukatu kantuaeren egille danik. Doiñuaren asmatzaille edo egille askok egin dabe J.J. Altuna, Montesa kalean lenengoz pianoz lagundu eutsan musikalaria. Doiñu ori biok baiño lenagokoa ez ete dan diñoanik be bada, doiñu orren otsean Durango ondoan, Garai errian antziña antziñatik Espata-dantza dantzatu dala-ta.

Altunaren alde, Iparragirre bizi zala be, idazle on eta zentzuzkorik izan da. Bat aitatzeta naiko izan begigu: J. Manterola, euskal-olerkizko lenengo bilduma edo sortaren egillea, eta "Euskalerrria" adizkari jakintsuaren sortzaillea. Manterolaren eretxiak, ainbesteko zeatzasunez emonak, asko makurtu zituan Altunaren aldera, Azkue andia, esaterako.

Manterola ez zan edozein. Iparragirre beraren adiskide, gaiñera. ameriketatik etorreran Euskalerrriari egindako agur ederra, Ara nun diran, Manterola oni eskiñi eutsan Iparragirrek.

Eta au arrigarriena; Iparragirrek ez dirudi Manterola guzurtau ebanik. Orregaitik edo, Manterolaren eretxiak jarraitzaille asko izan ditu, gaurko egunotararte, auzi onetan geien ekiana eta siñisgarriena zalakoan.

Alan be, Iparragirre ez zan ixillik gelditu. Gaur argitasun geitxoagoren jabe gara onetan be. Iparragirrek ez eutsan Manterolari erantzun, baiña bai aren eretxiaren jarraitzaille bati, Antonio Trueba jaunari. Trueba, "Gernikako Arbola", doiñu ta bertso, dana Iparragirrerena zalakoan egon zan luzaro; baiña Manterolaren eta beste batzuen argibideak irakurrita, altunaren aldera egiten asi zan, eta alan idazten. Batez be "El Noticiero Bilbaino" egunerokoa. Eretxi onetako artikulu bat irakurrita asi zan Iparragirre arduratan jarten. Mindurik eta asarre samar gaiñera. Adiskide bati adierazo eutsan bere barruki miña eta bere argitasunak kartaz bialdu. Adiskide onek Trueba jaunari eta onek "El Noticiero Bilbaíno" egun-kariaren irakurleai.

Iparragirreraren argitasunak ez ziran, antza, Euskalerrian asko zabaldu; gitxi izan eben euren barri. Donostiaraiño be ez ziran eldu, Manterolaganaiño be ez. Gaur eurak iraku rteko aukera barria dogu. "**La Gran Enciclopedia Vasca**" dalakoan argitaratu dira Historia de Vizcaya, Xgarren tomoan, 1878ko "EI Noticiero Bilbaíno"tik artuta.

Ona emen orain, laburturik, eztabaida au garbitu eta argitzeko Iparragirrek emondako argitasunak: "Gernikako Arbola", eresi eta be rtso, Iparragirrek dana berea ei dau. Altuna adiskideak ez ei eutsan besterik egin Santastebanek beste doiñu batzuetan egin eutsana baiño: Iparragirrek gitarraz jo eta abestutakoa pen aldatu, piano-laguntzaz ornidu eta noizik bein, bera musikalaria ez zan ezkeru, musika-legez oker egoanen bat zuzendu.

Amaituko ete dira, onekin, estabaidak? Ez beingoan, nire ustez. Truebaren itzak edo artikulua bere aldiak gitxi irakurri bazan, gaur barriro argitarau daanean, geiago irakurriko ete da? Ez dau beintzat irakurri oraindik orain Bilbokoe-gunkari baten Altunaren alderako eretxieri gogor eutsi deutanak.

Altuna, "Gernikako arbola"-ren zabaltzaille?

Iparragirren kantu au beingoan zabaldu zan Euskalerritik kanpora be, Parisaldeko idazle ospetsu batzuen bitartez, batez be. Arritzekoa da zelan jakin eben ain laster aren barri. Eta zelan zabaldu eben bere euskaldunen kantu nagusi lez, aberri ereserki lez.

Egia esan, mundua txikia da. Esukalerritik Paris ez dago ain urrin. Gero, atzeritar jakintsu asko ebillen gure gauzen jakingurez, asko barriz bertora etorrita be bai. Alan ta guzti be, nik neure eretxitxo bat agertu nai dot emen. Gure kantuak Parisen artu eban ospeak ez ete dautso Altuna musikalariai asko zor? Montesa kaleko jazoeratik urrengo urtean, musikalaria au Parisera joan zan musika ikasten jarraitzeko.

"Gernikako Arbola" bere bide-zorroan eroan eban, aurki. Eta ez ete eban berak ezaguerazo Parisko musikalaria eta Euskalerriko barri jakingurako guztien artean berak ain maite ei eban kantua eta eurai euskaldunen ereserkitzat erakutsi? Ez da siñistu eziña. Nik ez neuke ezetzik esango.

Doiñuak aldakuntzarik izan ete dau?

Ona azkenengo itauna. Orain eun u rte. Ameriketatik etorri barritan, kantu au entzutean, Iparragirrek esan ei eban, naiko asarre: "ondatu egin deustazue. Len ez eukan lau aldizko re, mi re ori, zaitugu, santua, zabalzazu, frutua, laurak bardin; olan barik, re, sol, do si do, re mi, re zan bi aldiz. Lau biderrezko re mi, re ori aspergarri egiten da. Mesedez, ez egizue olan abestu".

Iparragirreraren asarre eta argitasun oni be ez jako jaramon andirik egin. Nik, beintzat, bei entzun izan dot **re, mi re** aspergarri ori. Eta bein, orain zortzi bat urte, aspergarritasun ori eta Urretxuarraren asarrea aitatu nituanean, laster artu neban Lope Mendizabal zanaren erantzuna a rtikulu baten, nik esanari ezetza emonez. Ez ei dauko re, mi re orrek aspergarri; musika-legez ondo ei dago. Ixaak jaun agurgarria ez edo zan konturatzen, ni aurka barik, Iparragirreraren aurka agertzen zala. Eretxiak eretxi, ni onetan kantuaren egilleagaz nago.

Emen Iparragirreri arrazoi osoa emon bear dautsagula uste dot. "Gernikako Arbola"ren kopiarik zarrenak ez dauke lau biderrezko doiñu bardin ori. Nik neure artikuluan Urretxuarraren alde idazle bat bakarrik aitatzen neban, Adema Zaldu-biren "Euskaldun Pelegrina" liburua, 1877-koa, Iparragirre Ameriketatik etorri zan urte berekoa. Adema Zaldubik Bizkaiko zortziko bat dala diño, eta Iparragirrek esan eban lez dakar doiñu, aita Santuari eskiñitako be rtsoak ari ezarrita.

Baiña Adema ez dago bakarrik. Bidasoaz andik askotan etorri da kanta-libururuetan doiñu bera. Batez be, Donapaleun organu-jotzaille bizi izan zan musikolari aleman baten, Florentin Vogel eritxonaren kanta-liburuetan.

Eta ez Bidasoaz andik bakarrik. Geure artean be kopiari zarrenak bardin dakarre. Zarrena, orraitio, Gernikan bertan daukagu. Ni neu ez nintzan konturatu, auzi au neure artikuluan atera ta geroagorarte. Urrengoz Gernikako Batzar-etxean izan nitzanean, begiak bestetan baiño zorrotzago erabilli nituen. Eta zer ikusten dot? An erakusten dan kopiak Iparragirreri arrazoi osoa emoten deutsal. Orain ori edozeiñek irakurri daike Arana Martija jaunaren **Musica Vasca** liburu ederrean. Eta nozkoa da kopia ori? Batzarretzeko arduradunak diñoanez, 186 ingurukoa, ezagutzen danik zarrena.

Baiña bada besterik. Batzarretzeko kopia zar ori, eskuz egiña, oraintsu an jarria ei da, an Iparragirreren gitarratxo zarraren ondoan; len beste bat erakuste zan, orain barruan gordeta daukena, Arin musikaliaren piano-laguntzarekin. Eta au be **re, mi, re**, aspergarri ori barik dago, Iparragirrek esan eban lez, bardin. Gure egunotan, Bilbon, sotatarren etxeak barriztetako ipiñi dituezan aldamiotan doiñu berbera ikusi al izan dogu.

Orraitio, doiñu okerrak arrera ohea izan dauanik ezin ukatu. Noztik eta nor sortua ete da oker ori? Santesteban ez ete zan izan lenengo zabaltzaillea? Berau dala uste dot, beintzat, oker ori sartuta daukan musikalaririk zarrena. Lenengotan, bear bada, ez zen inprenta utsa besterik; baiña gero eun urteko bizi luzea izan dau, luzeegia benetan.


Ez ete gara barriro lengo doiñu zar jatorrera biurtuko? Ez ete dautsagu Iparragirreri atsegin ori emongo? Orretarako unerik aukerakoena litzake gaiñean dogun eu urtea, kantuarren sortzaillea il zanekoa.


Lan au amaitzeko, bertso batzuk ekarri nai dodaz erdira. Ez dakit norenak diran. Tolosan, Laborderenlitografian, argitaratutako irudi baten azpian datoz. Iru-dia, Gernikako Arbolarena da, bere adar orritsuen artetik, gorantza eta zearretara gurutzearen irudiak urtetan dauala. Garri-inguruan otso bi. Aretxari begira, albo baten gizon bat burutsik, bestean emakume bat bere semearekin, onek txapel gorria eskuetan dauala.

Eta danaren azpian, euskaldunen aspaldiko atsekabe eta itxaropenak aidera-zoten, onako bertsook:

Genikako Arbola, zeruan sortua!
Jaunak egin ziñuzan Euskalerrirako.
Orain tristerik zaude, Arbola, gaixua,
laño beltz ilgarriak jo zaitubelako.
Baiña laster zeruan egun doatsua
agertuko da gure zorionerako.
Ta orduan Euskaldunak, Arbola santua,
pozik biziko dira zurekin betiko!

Lino Akesolo





ETXEBARRIAKO EUSKERA ATZO ETA GAUR

ITZAURREA

Zenbat izkera motaz aurkitzen geran Euskalerrian zear kilometro gutxi barruan. Emen bertan, Lea Artibai inguruan, urrunago joan gabe, badugu mordoxka bat: Ondarrutarrera, Lekeitiarrera, Markinarrera, eta ez asko urrunago Munitxibarrera.

Nik Etxebarriako izkera aukeratu dut nire lanerako, berau bai da nire bizitza osoan entzun eta itz egin dudana. Beraz ondoren Etxebarriako izkera aztertzen saiatuko naiz. Gaur egun zein egoeratan aurkitzen den jakin nai dut, orretarako, leengoarekin konparatuz.

Markina eta Elgoibar bitartean aurkitzen den Etxebarri izeneko erritxo ontan baserria da nagusi; naiz eta oso gutxi izan, gero eta gutxiago, ortik bakarrik bizi direnak. Auzunetan sakabanatuta aurkitzen dira batipat.

Amar urte inguru izango dira, industria errian sartu zela. Inguruko jendea da geien bat emen lan egiten duena: Markina, Barriña, Bolibar, Ondarru, Berritxu, Aulesti... lantegi batetan izan ezik; emen geienak Elgoibar ingurukoak dira, eta asko eta asko erdaldunak.

Baserrian naiko garbi zaintzen da euskera; kalean da zoritxarrez geiago erderatu den tokia. Kalean eta gazte artean.

Joan den urte pila batetan eskola, ateak itxita egon bada ere, orain berrogeitamare uime inguruk euskera utsean ikasten du bertan.

Ikerketa ontan, lortu nai ditudan elburuak, auek dira:

1. Sasoi artan bertoko idazleek erabili zuten iztegia, zenbateraino ezagutzen eta erabiltzen duen gaur egun, izkera berdina itz egiten duen jendeak.

2.—Iztegiaren bezela, beste orrenbeste aditzarekin.

3.—Zenbaterainoko eragina duen erderak eta zein adinetan geiago edo gutxiago.

4.—Ikaren ezagupidea eta erabilpidearen dimentsioa.

Lau elburu nagusi auez baliaturik, momentuko Etxebarriako euskeraren egoera aideatu nai dut.

Lan guztian zear, Etxebarrian gaur egiten den euskera, len egiten zenarekin konparatzen saiatu naiz. Konparaketa au egiteko, jendearen itza jaso bear izan dut alde batetik; eta bestetik, lengo euskeraren berri izateko, textu zaarretara jo bear izan dut. Konkretuki bertoko idazle bik idatzitako textu auetara: "Peru Abar-ka" Juan Antonio de Moguelek idatzia eta "Euscal-errijetaco olgueeta ta danteen neurrizco-gatz-ozpinduba" Fray Bartolome Santa Teresarena.

Lan au egiteko erabili dudan material nagusia, grabaketak izan dira. Adinaren arabera, erriko jendez osoturiko lau talde egin nituen, bost gizonezko eta bost emakumezko bakoitzean jarririk, ondoren danekin banan banan elkarrizketa bat izateko.

Nire estudio txiki au bost zatitan banandu dut: Leenengo itzaurre labur labur bat. Bigarren atala, "Etxebarriako euskerazko iztegia, atzo eta gaur" izenburutu dut. Berton textu zaarretik jasotako iztegia konparatzen dut gaurkoarekin.

Irugarren zatiak, "Etxebarrian aditza, atzo eta gaur" izenburua darama. Textu zaarretatik ateratako zenbait aditz, gaur Etxebarrian esaten ditugun erara jarri ditut, oarpen batzuez lagundurik. "Erdera Etxebarriako euskeran atzo eta gaur" da laugarren atala. Erdalkeri nabarmenenak jaso ditut bere kontextuan, Azkenik, "Ika Etxebarrian". Emen ikaren erabilpidea azaltzen dut jendearen adina kontuan izanik. Itzaurre onen ondoren or duzue Etxebarriako euskeraren momentuko egoera jaso eta agertu nai duen aalegintxo.

ETXEBARRIAKO EUSKERAZKO IZTEGIA ATZO ETA GAUR

Izenburuak argi eta garbi esaten duenez, nire atal ontako zeregina, Etxebarriako euskerazko atzoko eta gaurko iztegia konparatzea da. Orretarako gaurko iztegia jendearengandik jaso izan badut ere, leengoa liburu zaar batetik atera izan dut. Liburu ori, PERU ABARKA da. Bere egitea, Juan Antonio de Moguel, euskal literaturako idazleetatik andienetarikoa dugu. Naiz eta Eibarren jaioa izan, berak Markinartzat zeukan bere burua, bere bizitza geiena emen bizi izan baizuen. Liburua irakurtzerakoan, Mogelek erakusten digun iztegi aberatsaz miratuta geratu nintzen eta aldi berean ea Markinaldeko gaurko jendeak zenbateraino ezagutu eta erabiltzen duen Peru Abarkan agertzen den iztegia jakin nai izen nuen. Orretarako jo dut Etxebarriko jendearengana, liburuko iztegi labur bat jaso ondoren. Ara ona:

PERU ABARKAKO IZTEGIA 1881	ETXEBARRIAKO GAURKO IZTEGIA 1985	60 urte	40- urte	5920- urte	3911-19 urte
ADIUNTZAZ	DENPORAZ	-	-	-	
AILLE	BUZTAN	-	-	-	
ALOGERA	JORNALA	A	A	G	
ARKOSKO	ARRIKOSKOR	-	-	-	
ARRASTEGI	ARRATSALDE	-	G	-	
AUSIABAR	BURUAUSTE	-	A		
AUTUTEN	ELEJITZEN	-	-	-	
AUZKA	BURRUKA	B	G	G	G
AZARTU	ATREBIDU	-	-	-	
BELARLUZE	TXARRI	-	-	-	
BELU	BERANDU	G	G	G	-
BEREINI	ASKORI	-	-	-	-
DANDARRAS	TATARREZ	-	B	G	G
DONGARO	TXARTO	A	A	A	G
DONTSU	ZORIONTZU	-	G	-	-
EKANDUTA	OITUTA	A	A	A	-
ERLOJA	ERLOJUA	-	-	-	-
EZAIÑA	ITXUSIA	-	A	G	-
EZKERGA	AUNDIA	-	-	-	-
GANIBETA	KUTXILLOA	G	G	-	-
GATZ BAGAKÓ	GANORABAKO	A	A	A	A
IGITU	MOBIDU				

PERU ABARKAKO IZTEGIA 1881	ETXEBARRIAKO GAURKO IZTEGIA 1985	60	40-5920-3911-19	urte	urte	urte	urte
INMURTXI	TXATXAM UR KA						
IÑAUSI	PODAU	A	△			A	
IRAURKIÑA	IDEA						
KOSTURA	KONTURA						
LEI	IZOTZ	A	△			B	G
MAURU	MORU						
MENTURAZ	BIERBADA						
OBRERA	KAMISOI					G	
OGITUKO	SERBITZARI						
OILAR IRENA	KAPOIA					G	
OLESA	SALUDOA						
OTSEIÑA	MORROIA	A	△			G	
ORDI	MOZKOR						
SEINDUN	UMEDUN	B		B		G	
TERREIÑA	PALANKANA	A	△			A	G
TRUIXU	TENPORALE	A	△			G	
TXIKERRA	TXIKIA	A	△			A	△
USIGI	AINKA						
ZISKU	POLTSA	B		G			
ZISKUESTU	POLTSAESTU	B		G			
ZURTURIK	IRAKATURIK						

Itz auek ez dira neurri berdinean ezagutu eta erabili egiten, noski. Gaur egun, auetako oso itz gutxi entzun dezakegu Etxebarritarren aietan. Ba dira batzuk. Adibidez:

belu
ekanduta
iñausi
lei
truixu

Orain, ar dezagun Peru Abarkako zati bat, eta konpara dezagun gaur eguneko Etxebarriko aozkerarekin.

PERU ABARKAKO TEXTUA

R.—Zuk eztozu iñoz berba on bat esango; etzara zu kristiñaua. Eztakizu etxakola iñori gatzik opa bear, geure kaltegille ta arerioa bada bere? Barriz zu zara atsoari gatz egin deutzazuna; zuk aurrera beti zaure saill gaiztoari. Zeu ondo bazagoz, or konpon besteak. Jaungoikoaren zigorrak iarraituko deutsu, gizonena austen badozu bere. Atsoaren odolak deadar egingo dau.

ETXEBARRIKO GAURKO AOZKERA

P.—Zuk eztozu iñoz berba on bat esango; eza zu kristiñaua. Ezta-kizu etxakola iñoi txarrik opa bier, geure kaltegille ta arerixue bada be? Barriz zu za atzuai min eiñ deutzazuna; zuk aurrera beti zeure saill gaiztuai. Zeu ondo bazaz orkonpon bestiek. Jaungoikuan zigorrak jarraitxukotsu, gizonena austen bozu be. Atsuan odolak didar eingo dau.

M.J.—Gura dabena egin dagiala, ta ez egidazu geiago aitatu atso benteraren konturik. Emendi aurrera

urten ezkerro tabernati, berba egin bear dogu gauza obagoen ganean.

Gauza batek ikaratuten nau zugan: zein ederto euskera berba egiten dozun eskolarik euki baga. Nik ezin dot irakurlante andia izanda bere. Bati baiño geiagori entzun deusat, baserri-tarretan dagoala euskera garbia; gaztelan izan gareanok ta uribarruetakoak erdera askogaz nastetan dogula euskerea. Zuri entzuten deusadazan izen, neuk eztakidazanak **imiñiko ditut** paperean, euskera ondo berba egiteko.

M.J.—Nai dabena ein daixela ta ezeizu geixa aitxetu atso benterian kontuik. Emendik aurra tabernatik urten ezko, gauza obien gañien berba enbiou.

Gauza batek ikaratzen nau zugan: zelako edarto euskera berba eitxen dozun eskolaik euki barik. Nik ezin dot estudiante aundixe izen da be. Bati baiño geixai entzun deusat baserri-tarretan dauela euskera garbixe; gaztelan izen garrienok ta uri barrukuek erdera askoaz nastetan dogule euskerie. Zuri entzuten deusadazan neuk eztakiazan izenak ipiñikoi-txut paperien, euskera ondo berba eitxeko.

JUAN ANTONIO DE MOGUEL. "Peru Abarka". Bilbo (1970)
49. orrialdea.

Ikus dezakezuen ez dago gorabera andiegirik batetik bestera. Edozein izkeratan, idatzitik aozkora egon daitekezan desberdintasunak baizik. Bestetik, fenomeno fonetikoek sortutakoak. Adibidez:

PERU ABARKAKO
textua

bere
bazagoz
egin
egidazu
geiago
dagoala
egiteko

ETXEBARRIAKO
gaurko aozkera

be
ein
ein
eidazu
geixa
dauela
eitxeko

Bestetik, iztegiak berak dituenak. Adibidez:

GATX itza, oso gutxi erabiltzen da. Onen orde **txar** esaten da.

Askoz ere gutxiago, batere ez, ez esatearren, **IRAKURLANTE** itza. Emen erderazko itz bera esaten da: **estudiante**.

GURA itza ere, oso gutxi entzungo dugu. Onen orde **nai** erabiltzen da.

Mogelek idazten duen **IMINI** itza ez dela emengoa dirudi. Emen **ipiñi** itza esaten da eta esan ornen dute leen ere, gaur larogei urte dituztenek.

BAGA itzaren orde, **barik** esaten da.

Zalantzarik gabe, emen, au da, iztegian, gertatu izan da aldakuntzarik andiena eun urte auetan. Edo bestela, ikusi nola esaten diren gaur egun Etxebarrin, Mogelek "Peru Abarka" liburuan idatzi zituen itz auek:

PERU ABARKA
Ardanetxe
Gerrestua
Zabuka
Doilorrak
Txapel ezkerga
Txaplatatuak
Gizaan
Akiakulea
Oratzail le
Itxurgatu
Ezkotu

ETXEBARRIAN GAUR
Taberna
Gerrikua
Alba-albazka
Ziztriñak
Kapela
Enplastuak
Moduan
Atzekixa
Tenedore
Itxurabako
Umeldu

ETXEBARRIAN ADITZA, ATZO ETA GAUR

Orain arte iztegiari begira egon bagara ere, oso interesgarria iruditzen zait, aditzarekin beste orrenbeste egitea.

Etxebarritarrek, leen erabiltzen zuten aditza gaurkoarekin konparatzea da atal ontako zeregina. Onetarako, leengo aditza ezagutzeko asmoz artu ditut emengo izkeran idatzirik dauden testu zaar bi aukerak: batetik, Juan Antonio de Moguelen "Peru Abarka", eta bestetik Aita Fray Bartolomeren "euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco - gatz - ozpinduba".

Liburuetako zenbait aditz beren kontextuan jaso ondoren, Etxebarrin gaur egun nola erabiltzen diren ikusiko dugu, erabiltzen badira beintzat.

Leenbizi, "Peru Abarka"ko leen autoan agertzen direnak ikusiko ditugu:

- 1.—"..., ta dardaganean 1) **erabili daroadaz** ardaosaltzailak ...,",
ta dardaganien 1) **erabili dabillaz**, arda saltzailik.
- 2.—"**Ezteust** ezek gorroto ta iguin geiago emoten nekezale edanzarri ta ardao-zaalegiak baiño".
Eztoste ezek gorroto ta iguin geixa emoten, nekezale edanzarri ta arda zalegixek baino.
- 3.—"Aserretuko 2) **ezpalizatkio**, jakin gura neuke nor dan da zek ekarri daben ona".
Asarretuko 2) ezpalitzakixo, jakin nai nauke nor dan da zek ekarri daben ona.
- 4.—"Imiñi egizu txapela buruan, ta 2) **esango deutsut** nor nazan".
Ipiñizu txapela buruen, ta 3) **esangotsut** nor nazen.
- 5.—"... ta **deitu nabee** gaiso bategana".
ta deitxu nabe gaiso batena.
- 6.—"...; baiña ain doilorrak izan dira, zein da **ezteusten** atera trago bat ..."
baiña ain zistrinek izen die, zein da **ezteusten** ata trago bat...
- 7.—"... alan sartu naz emen kuartillu bat atera ta zerbait 4) **iaatera ...**"
alan sartu naz emen kuartillu bat ata ta zozer 4) jata...
- 8.—"... bada urrin 5) **egiten iat** neure etxea..."
ba urrin 5) eitxen jate neure etxie...
- 9.—"Nik uste **neban** bene benetako andikiren bategaz berba egiten **nebala**".
Nik **uste neban** bene benetako aundikin batz berba **eitxen nebala**.
- 10.—"**Iakin baneu** lenengoti Barberu txar bat baiño **etziñeala, enintzen** Jaunka zugaz egongo".
Jakin baneu lenengotik Barberu txar bat baiño **eziñela, enintzen** Jaunke zugez egongo.
- 11.—"Lengo Barberu txarrak ibilli **oi zirean** desonretan euren opizio onraua".
Lengo Barberu txarrak ibilli **el zien** desonretan euren ofizixo onraue.

- 12.—"Ostera bere **dirautsut**: ¿zer dala uste dozu Barberua?
Ostabe **diñotsut**: zer dala usto zu Barberue?"
- 13.—"Orra nik **diñodana**:..."
Orra nik **diñotena**
berak orrelangorik uste, ta ori 7) **esango bazeunskio** berari, **entzungo zendukez** entzuteko onak.
Ezta u berak olakoik uste, ta ori 7) **esango bazeunkixo** berai, **entzungo zeunkez** entzuteko onak.
- 15.—"Ak **esango leuskezu**, soiñoko bitxidunak ta ianz-barriak eztakarrela iakituriarik ..."
Ak **esango leuskizu**, soiñeko bitxidunek ta jantzi-barririk eztakarrela jakitxurixaik ...
- 16.—"... **igaroten iakee** denporea zertzuk moda direan konteetan".
pasetan jakue denporie zertzu moda dien konteetan.
- 17.—"... **emoten deusut** berbea **ezteusudala** aitatu ko atsakaba **emongo deusudan** gauzarik".
emototsut berbie **eztotsutela** aitxetuko atsekabeik **emongotsuten** gauzaik.
- 18.—"... iñoren lepotik ondo 8) **edaten dabeela**".
iñon leputik ondo 8) **eraten dabela**.
- 19.—"... **atera egin** azunbre bat ardao, ta **esaion** ugazaba-andreari **imiñi daigula** zerbait bazkaitako".
aterain azunbre bat arda ta **esaixon** ugazaba andriai **ipiñi daigule** zozer bazkaitzeko.
- 20.—"**Ekarriko deuskuen** erretilluak **euko ditu** gitxienez berrogei urte..."
Ekarriko zkuen erretilluek **eukoitu** gitxienez berrogei urte...
- 21.—"Zurezko koillara bat **ekarten badeuskue**, ezta gitxi izango".
Zurezko koillara bat **ekartenbozkue**, ezta gitxi izango.
- 22.—"... zuek tenedoren izena **emoten deutseezunak**".
zuek tenedoren izena **emototsozuenak**.
- 23.—"... bada niri urardoak **egingo leusket** sabeleko miña".
ba niri urardauek **gingo leuskide** sabeleko miñe.
- 24.—"... edo aize dongaz **bete enadin**".
edo axe txarraz **bete eznaixen**.
- 25.—"Zer 9) **daantsut?** ... Kanteetan ..."
' **Zer entsutot**... Kantetan... (daantsut ez da erabiltzen)

OARPENAK

1) Mogelek erabiltzen duen aditz konposatu ontan aditz erro bi bereiztu bear ditugu: batetik **erabilli** eta bestetik **eroan**; eta auekin osotzen du berak **erabilli daroadaz** aditza. Gaur egun beintzat, Etxebarrin ez da onela erabiltzen; orren ordez **erabilli dabillaz** esaten dugu, biak barnean erabilli aditz erroa daramatelarik. Baitere esan bear, oso gutxitan bereizten direla **erabilli** eta **ibilli** aditzak. Sarritan esaten da ibilli, erabilliren ordez.

2) Ikus dezakezuenetz ia ia berdinak dira lengoa eta oraingoa. Gertatzen dena zera da, nik oraingo aditza aozkatzen den bezela aztertzen nagoela eta Mogelek idazterakoan kontrakziorik gabe idatzi zuela, noski.

3) Leen esan dudana argitzeko, emen argibide bat: Mogelek **esango deusut** idatzi zuen, eta nik ere gaur egun Etxebarrieraz idatzi bear banu orrela idatziko nuke; baina aozkatzerakoan kontrakzioa egiten dugu eta **esangotsut** esaten da.

4) Mogelek idazten duen **iaatera**, guk **jata** laburtuaz aozkatzen dugu.

5) Aditz geienak bokalez bukatzen ditugu. Adibidez: Mogelek idazten duen **egiten iat**, guk ez dugu esaten eitzen jat; esaten dugu **eitzen jate**.

6) Gura, ez da asko erabiltzen, ia la batere ez. Mogelek idazten duen, **gura deutsee** guk **gurotsie** esaten dugu eta **gura deutse** denean, **gurotse**.

7) **Bazeunskio** aditzari, guk aozkatzerakoan bukaerako **i** eta **o** bokalen bitartean, **x** sartzen diogu, **bazeunskixo e** sanaz.

8) **Edaten dabeela** idazten du Mogelek; guk **eraten dabela**. Naiz eta berdin idatzi, aozkatzerakoan ongi bereizten dira singularra eta plurala. Singularra denean **be** indartzen dugu eta plurala denean ordea, **da**.

9) Aditz hau: **daantsut** ez da erabiltzen. Au adierazteko, guk beste aditz au esaten dugu: **entsutot**.

• • •

"Peru Abarkako" aditza aztertu ondoren, egin dezagun berdin, Fray Bartolomeren "euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco - gatz - ozpinduba" liburu-ruko aditzarekin.

Onetarako, jaso ditzagun bertako leen eta bigarren kapituloetan agertzen diren zenbait aditz, beren kontextuan.

- 1.—"... pena andija 1) meraciduten davena, da, cristinaubari Jangoicuac 2) imini deustan, baino legue astunagua, ..."
... pena aundixe 1) meezi dabena da, kristiñauai Jangoikuek 2) ipiñitsen, baiño lege astunaue...
- 2.—"Jangoicuac condeneetan davena, guizonac onzat 3) emon ezin leguijee".
Jangoikuk kondenetan dabena, gizonak ontzat 3) ezin leikixe emon.
- 3.—"Batzuc **zabalduten dituvee** olgueetac pecatuzcuetaraguino".
Batzuk **zabaltzeitxue** olgetak pekatuzkuetaiño.
- 4.—"... beste asco dagoz inocentiac, arimara gachic **ezdacarrenac ...**"
beste asko daz inozentiek, arima, txarrik **eztakarreak...**
- 5.—"Ezdago ezerbere munduban, inos ichi bagaric jarduteco, guizonac artuco leuquian cereguinic".
Ezta ezebe munduen, iñoz itxi barik jarduteko, gizonak artuko leuken zeregiñik.
- 6.—"... jagui bagaric beti jardun **biar baleu** diruba conteetan, ta gordeetan;

jaiki barik beti jardun **bier baleu**, dirue kontetan, ta gordetan...
- 7.—"... ta edaaten egon biar baleu, laster **aspertuco litzateque**".
ta eraten egon bier baleu, laster **aspertuko litzake**.
- 8.—"... urte osuan egon biar baleu joculari ichi bagaric, gainia 4) etorrico lichaquio, jokuari isteko".
urte osuen egon bier baleu jokuai itxi barik, gogue 4) etorriko litzakixo, jokuai isteko.
- 9.—"Beste ain beste dauquee, ta gogo betia emoten dabee, inos ichi bagaric equin ezquero, estudijuac, lanac, oracinoiac, errazubac..."
Beste ainbeste **daukie**, ta gogo beti **emoten dabe**, iñoz itxi barik ekin ezkerero, estudixuek bierrak, oraziñoiek, errezuek...
- 10.—"Batzuc uste davee, olgueeta guztiac **diriala** libre cristinaubarentzat".
Batzuk uste dabe, olgeta guztixek **diela** libre kristiñauántat.
- 11.—"... ^yeti vijotz sicu, illum bategaz ezdavillenac, ezin Jaungoicua **servidu leijala**".
beti bixotz siku, illum batatz eztabillenak, ezin Jangoiku **serbidu leikela**.

FRAY BARTOLOME SANTA TERESA. "euscal errijetaco olgueeta ta dentzeen neurrizco - gatz - ozpinduba". Hordago publikapenak.

- 12.—"Lanian **diarduban** gorputzac, ..."
Bierrien **diarduen** gorputzek, ...
- 13.—"... edo beste gauza inocenteetan **bivertituten cirian...**"
edo beste gauza inozentietan **dibertitzen zien...**
- 14.—"Beti tiraan **daguan** arija, laster etetenda".
Beti tiran **dauen** arixe, laster etetenda.
- 15.—"¿Edo ez **citubeela** ichi mediyo segurua euren erliginoetan, gura davena, Santu izateco?"
Edo ez **zitxuela** itxi medixo seguruek euren erligiñoietan, nai dabena Santu izeteko?
- 16.—"Evangelijo Santubac eragotzita **daucalaco**".
Ebangelixo Santuek proibidute **daukelako**.
- 17.—"Ojala, mundutarrak **ezautuco balevee** eguija onen indar guztia!".
Ojala, mundutarrak **ezautuko balebe** egi onen inder guztixe!
- 18.—"... ta mingochai ichita, **juango balira** vizitzaco iturri gozoco ur garbijac
ta mingotxai itxitxe **jungo bali**, bizitzaco iturri gozuko ur garbixek ...
- 19.—"Orduban 5) **ezautuco leuquee** cristinaubac, ce gozua, ce alegueria, ta ce atseginezcua dan gueure vizitzia".
Orduen 5) **ezautuko leukie** kristiñaukek, ze gozue, ze alegrie ta ze atseginezkue dan gure bizitzie.
- 20.—"Batec **irago euquezan** trabajuric andijenac, ta luceenac **irago cituban** Santa Teresac..."
Batec **pasau leikezan** bierrik aundixenac, ta luzienac **pasau zitxun** Santa Teresak...
- 21.—"... **vizi ditezela** espiritu alegueriagaz ..."
bizi daitxezela espiritu alegriaz ...
"Guztiekin 6) **tratau daguijeela**, ta verba egin..."
Guztixekin 6) **tratau daixela**, ta berba eiñ...
- 22.—"Bada naidot nic, **esaten deutsa**, ceuben artian olgуетia, ta alegreetia modu onagaz".
Ba, naiot nik, **esatotse**, zeuen artien olgetie, ta alegretie modu onaz.
- 23.—"... ezer bere ezdirian gauzac, **artuten dituvee** diversinoetzat ..."
ezer be ez dien gauzak, **artzeitxue** dibersiñotzat...
- 24.—"Ta beti gauza bati ichi bagaric 7) **darraicon** gogua, buruba, ta gorputza bere, laster galduten dira eurenaz".
Ta beti gauza bati itxi barik 7) **jarraitzen daben** gogue, burue ta gorputze be, laster galtzen die eurenaz.

OARPENAK

1) Danok dakigunez aozkatzerakoan, asko laburtzen ditugu itzak. Adibidez, Fray Bartolomek bere liburuan, **merciduten davena** idazten duena, Etxebarriko izkeran ori, meezitzen dabena aozkatu bearko litzake; baina merciduten formaren orde, merezi erabiltzen da, **mezi** aozkatuaz.

Gaur idatzi bear bagenu, ez genuke **davena**, v-z idatziko, b -z baizik.

2) Jakin dudanez, Etxebarrin berton ez da inoiz **imiñi** esan. Onen orde **ipiñi** itza erabili du beti adin guztietako jendeak.

Emen, aozkatzerakoan itzak nola lotzen ditugun ikusteko aukera dugu: **lmini deutsan, ipiñitsen** esaten dugu.

3) Itzen tokia aldatzen dugu. Fray Bartolomek idazten duen **emon ezin leguijee**, guk **ezin leikixe emon** esaten dugu.

4) Ia ia berdina da; aldatzen dena zera da, aozkatzerakoan bukaerako i eta o bitartean x sartzen dugula.

5) Ikus, ze gutxi aldatzen den Fray Bartolomeren **ezautuco leuquee** aditza, guk **ezautuko leukie** esaten dugu. Singularrez berdin dira: Fray Bartolomek **ezautuco leuque** idatziko lukena, guk **ezautuko Zeuke** esango genuke.

6) Fray Bartolomek, **tratau daguijeela** idazten du. Guk **tratau daixela** esaten dugu, berdin plurala bada edo ta singularra bada. Badago bereizgarri bat eta da, aozkatzerakoan plurala bada, **tratau daixela** esaterakoan, **dai** indartzen dugula eta ordea, singularra denean, **xe** indartzen dugula.

7) Argitzen dira aditz batzuk, gaur egun erabiltzen ez direnak. Oso ezezagunak gertatzen zaizkigunak, geiago esateko. Auetariko bat **darraicon** dugu.

KONKLUSIO GISA

Ikusi duzuenek, ez da gauza andirik aldatzen. Batzuk balduta dauden arren, geienak erabiltzen dira. Bestalde, konparaketa ontan kontuan izan bear duguna, zera da: lengo aditzak idatziak direla, eta gaurkoak aozkoak.

Esan bearrik ez dagoela uste dut, ortografiaren aldaketa, nabarmena dela, Fray Bartolomeren idazkerari begiraturik, batipat.

Gaur egun, sasoi baten baino askoz ere gutxiago entzuten da erdera. Gizonezkoen artean, batere ez; ez lehen ez orain. Au gauza bitxia da; baina egia da, gizonezkoak ez direla ortan erori eta emakumeak berriz, orain dela amar urte inguru, geienbat, erdera utsean jarduten zutela beraien artean. Uste zuten erderak euskerak baino kategori andiagoa zuela eta eleganteagoa zela noski; eta jo eta ke ari.

Gaur egun, zorionez, emakumeak begiak zabaldu dituzte eta naiz eta orain ere erderak eragin geiago izan auengan, gizonezkoengan baino, ez da au leen bestekoa.

Egia da, erdal itz ugari esaten dugula Markinalde guzian ere, baina au ez da oraingoa bakarrik, bestela irakurri Fray Bartolome Santa Teresaren "Euscal-errijetaco olgueta ta dantzeen neurrizco - gatz - ozpinduba".

1816. urtean idatzitako liburu ontan, onelako iztegi au agertzen zaigu:

trabaju - (lan)	alemanixe - (aberea)
gracijosa - (barregarri)	amau - (maitatu)
cuidado - (kontu)	gracijac - (eskerrak)
cansau - (nekatu)	erremedijau - (erremediatu)
tocamentu - (ikutu)	ocasinoe - (une)
necesidade - (beharrizen)	vecino - (hauzo)
peligruba - (arriskua)	pelietia - (burrukan egitea)
cura - (abade)	gainia - (gogua).
casic - (ia ia)	

Erdal itzak erabiltzea dela eta ez dela, ara zer dion Aita Bartolomek bere beste liburu batetan, "Jaungoicoaren amar agindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac" liburuan:

"Verbeeitia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apaindubeena, ederreena, ta eztsubeena izan ez arren; izan leiteque, Euscaldunen bazter bateti bestera, eche guztietan dei eguinda, iragota, ar naidaven, onduen zaarrari, ta gaztia aiutuco deutseena, ta adierazoco deutseena".

"Cristinautzacoicasi jan dira euscaldun gaistuac. Ez da au eusqueriaren erruba, ez bada gueuria. Ta, ain dauqueez ija artubac erdeera, edo latin verba batzuc ece, euraquin ez bada, aituten ezdavee ondo dotrinia, edo cristinautzaco eracutsija. Bada Cristinautzaco eracutsijau zucen aituten emotia, leenago da, verbeetan eracustia baino".

Gaur berton, belarriak eme, entzun dezagun Etxebarrian edozein adineko jendea itz egiten eta onelako itz auek aterako dira:

Okasiñoie	(Unea).....	Manejau	(Erabili)
Pagamentu	(Ordainketa).....	Bastante	(Naiko)
Arreglau	(Konpondu).....	Aplastauek	(Zapalduak)
Preguntau	(Galdetu).....	Konprobau	(Egiaztatu)
Biaji	(Bidai).....	Sanuek	(Osasuntsuak)
Kazerue	(Eiztari).....	Organizau	(Antolatu)
Premixue	(Saria).....	Enpeñue	-(Aalegina)
Elegantiek	(Dotoreak).....	Konbersaziño	(Elkar izketa)
Kuadrillie	(Taldea).....	Eskribitzeko	(Idazteko)
Entendidu	(Ulertu).....	Okurridu	(Bururatu)
Diferentie	(Ezberdina).....	Konpletamente	(Osoki)
Estudixau	(Ikasi).....	Lesionatu	(Zauritu)
Bajatu	(Jaitsi).....	Mezklaute	(Naastatuta)
Frigorifiku	(Ozkailu).....	Aburridue	(Aspergarria)
Jeneralin	(Orokorki).....	Kotilla	(Marmarti)
Kastigaute	(Zigortuta).....	Anbiente	(Giro)
Allegau	(Eldu).....	Asientu	(Jarleku)
Juntau	(Elkartu).....	Afizionau	(Zale)
Mueblik	(Aitzariak).....	Komedora	(Jangela)
Dirijidu	(Giatu).....	Sustu	(Ikaraldi)
Gustau	(Atsegin).....	Grabedadie	(Larritasuna)
Tamañue	(Neurria).....	Habitasiñoie	(Gela)
Fallue	(Akatsa).....	Ganantzixi	(Irabazia)
Agarrotau	(Karrotatu).....	Distraidu	(Olgatu)
Asuntu	(Arlo)		

Itzak bakarrik balira, ezer ez. Zenbat erdal adierazpenek osotzen dituzte gure esaldiak. Batez ere amaika urtetik berrogeira bitarteko jendeenak. Onekin ez dut errurik gabe utzi nai adin ortatik gorako jendea.

Ikus dezagun, adibidez, zeintzu eta zein kontextutan, erabiltzen dituen, espresio auek, amaika urtetik emeretzira bitarteko gazte jendeak:

SEGUN.— Ba zatoz afaltza? **Segun**, ze jente doien.

OSEA.— Txarririk, **osea**, solomu, txorizu, odolosti, asko gustetan jate.

ESKE.— Berandu etorri da etxera, **eske**, autobuse be berandu etorri da.

BA ESTO.— **Ba esto...**, ni enaz eskola jun.

HONBRE.— Diskotekak gustetan jatzuz? **Honbre**, antxe da ba martxie.

BUENO.— **Bueno**, eztakit zer esan be.

ETA YASTA.— Etorri za, **eta yasta**, dana apurtuozu.

EN GENERAL.— **En general**, andrak etorten die bakarrik, baina iñoz, gizonen bat be bai.

CERO A LA IZQUIERDA.— Ori mutilloi? **Cero a la izquierda**, eztau bape bali-xo.

POR SUPUESTO.— **Por supuesto**, lagunen artien, bardiñe a be.

FUERA.— Etxebarritik **fuera**, ezta ezer gutzet.

ENFIN.— **Enfin**, ezpozu ezer esan nai, ni banoie.

BASTANTE.— **Bastante** ibiltzen na mendixen.

Ez pentsatu au, bakarrik gaztetxoek errua denik; bestela ikusi ogei urtetik ogeta emeretzira bitarteko gazteek parra parra esaten dituztenak. Leen aipatutakoak: osea, bastante, eske, segun, ugarienak ba dira ere, ba dira beste batzu. Adibidez:

PORKE.— Bai, **porke** gaztiek ez dauke bape errespetoik.

OSEAKE.— **Oseake**, eztotsezu deitxu?

A TOPE.— **A tope** ibilli zan dantzan.

KLARO.— **Klaro**, eziñen etorri ta oiñ eztakizu.

LO KE PASA KE.— **Lo ke pasa ke**, ni txikitxen etorri nintzen ona, baiña, jaixo an ein nintzen.

SE AKABO.— Pozik genbizen baiña ama etorri zan eta **se akabo**.

APARTE PORKE.— **Aparte porke**, neuk nai izen dotelako eindot orreta.

NORMALMENTE.— **Normalmente**, ezta ain berandu arte egoten.

DEAKUERDO.— Ni **deakuerto** na zuekin.

PORREJENPLO.— Leku askotako jentie gabiz, **porrejenplo** Markiñekuk, Berritxukuk...

AUNKESEA.— **Aunkesea**, geu jungo ga, berak ezpadau nai etorri.

DE TODAS FORMAS.— **De todas formas**, sasoz deitxukotzut.

SEGUN ZER.— **Segun zer** erakusten dan jungo naz ikusta edo ez.

OIN DE MOMENTO.— **Oin de momento**, emen bizi na baiña, gero eztakit.

Berrogei urtetik berrogeitaameretzira bitartekoetan, ez da orrenbeste erdalkeri entzuten. Nik batu ditudan elkarrizketetan auek nabari dira:

YA KE TA.— **Ya ke ta** etorri zarien, jokuen enbiou.

TOTAL.— **Total**, esan, nai ez esan, berak nai dabena eingo dau.

POR MAYORIA.— Oñ, illebeta bakaziñoietan, **porrmayorrak** eitxen dau.

Talde ontan ere ugariena, beste adinetan ere entzun izan dugun **osea** da. Uste dut adin denetan erantsita dagoela au. Bearbada irurogei urtetik gorakoetan entzungo da gutxien. Jende onek, gazteen aldean oso erdalkeri gutxi erabiltzen badu ere, inoiz entzuten zaizkie onelakoak: **segun, enkanbio, bastante...**

Nire lanaren atal hontan, Etxebarriko euskeran, erdera zenbat eta zelan erabili oi den eta erabiltzen den, aztertzen aalegindu naiz. Konparaketa egiteko, textu zaar batez baliatu naiz. Baina au ikusi aurrez, jakin dezagun zein lotura duen onek eta bere idazleak, gure erriarekin.

Aita Prai Bartolome, aukeratu dudan textuaren idazlea, Etxebarrin jaio zen 1768. urtean, naiz eta bere gurasoak Markiñako biztanleak izan. Mutil koxkorra zela, Etxebarritik Markiñako Karmeldarren komentura joan zen emengo sermolaria izan zen.

Aipamen auek, idazlearen eta gaiaren arteko lotura, argi eta garbi adierazten dutelakoan, irakur eta konpara dezagun ondoren, Fray Bartolome Santa Teresaren, "Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco - gatz - ozpinduba", liburuaren zatitxo bat:

AITA BARTOLOMEN TEXTUA

"Jocua da olgueeta bat berez, inoc bere condeneetan ezdavena. Guraari laarreguijagaz, ta gogotasun vitzijagaz jocatuten bada, beti izango da paltia. Jaungoicuaren veguijetan guichiago edo gueijago. Bacochoa bere laneetan cansauta dagianian, pusca baten jocuan olgueetia, berez pecatu dala, ezdau inoc esaten. Baina bagoz legue batzuc, jocuaren gainian gorde biar dirianac, ona izango bada. 1. Suerteco jocuac eragotzita dagoz legue guztietan, descuido utsecuac dirialaco. 2. Jococo diversinoia artu biarda, demporia iragoteco, ez ango irabacija gaiti. 3. Jococo ornidute edo tantu bacochian errial bat baino gueijago jocatutia, eragotzita dago Espanaco legueetan

aberatseentzat ta guztientzat. Ta errialta bera escuban dala, ez guero pagueetacuan.

ETXEBARRIKO GAURKO AOZKERA

"Jokue da berez, olgeta bat, iñok be kondenetan ez taberna. Gurari larreixaz ta gogo bitxixaz jokatzen bada beti izengo da falti. Jaungoikuan begixetan gitxia edo geixa. Bakotxa bere bierretan kantsaute dauenien pixkaten jokuen olgetie berez pekatu danik, eztau iñok esaten. Baiña badaz lege batzuk jokuan gainin, gorde bidienak ona izen daitxen. 1. Suerteco jokuek debekaute daz lege guztixetan, descuido utsekuk dielako. 2. Jokuko dibersiñoie artu bida denporie paseta-

ko ez ango irabazixe gaitxik. 3. Joku- Españako legietan aberatsentzat ta ko ordaintze edo tantu bakotxien erriel guztientzat. Ta erriela bera eskuen dabit baño geixa jokatzie debekaute da la ez gero pagetakuen.

IKA, ETXEBARRIAN

Ez dago joera andiegirik ika mintzatzeko. Ez da emen, Bolibarren (Kilometro gutxitara dagoen erritxoa) gertatzen dena gertatzen. An, danak orrela mintzaten dira: gizonetzko ta andrazko; ume, gazte ta nagusi.

Etxebarrian, ordea, oso gutxi entzuten da, eta entzuten denean, gizonetzkoei lagun artean batipat.

Baiña, jakin dudanez, leen ere ez zen asko geiago egiten. Zergatik? onen arrazoa zera da; orrela itz egitea, sekulako errespetu falta zela sasoi artan, eta egiten zuten banakek, neba-arreba artean egiten zuten.

Ara, ondoren, gaur bertan Etxebarrian zenbat biztanlek, eta ze jendetartean erabiltzen duen ika izkera:

60 urtetik gorakoak:

5 gizonetzkotik --- bostak --- anai;arreba, lagun eta gazteekin

5 andrazkotik --- bik --- nebarreba eta lagunekin

5 andrazkotik --- iruk, ezer ere ez

40 urtetik, 59 bitartekoak:

5 gizonetzkotik --- iruk, asko --- anai-arreba, lagun eta gazteekin

5 gizonetzkotik --- batek, zerbait --- anai-arreba, eta sasoi gizonekin

5 andrazkotik --- bik, zerbait --- nebarrebekin

5 andrazkotik --- iruk, ezer ere ez

20 urtetik, 39 bitartekoak:

5 gizonetzkotik --- bostak --- lagun, gazte, ume, andrasko naiz gizonetzkoekin

5 andrazkotik --- bik, zerbait --- gazteekin

5 andrazkotik --- iruk, ezer ere ez

11 urtetik 19 bitartekoak:

5 gizonetzkotik --- bik, asko --- lagunekin

5 gizonetzkotik --- batek, zerbait --- lagunekin

5 gizonetzkotik --- bik, ezer ere ez

5 andrazkotik --- batek, zerbait --- lagunekin

5 andrazkotik --- lauk, ezer ere ez

Ikusi duzuenaz, Etxebarrian ez dio edonork edonori, ika itz egiten.

Eta nola mintzaten ote dute?

Galdera oni erantzuteko, idatziko ditut ondoren, jendearengandik jasotako iruzpalau elkarrizketa:

— Orrek, bakarrik dauezenien, edarto kontestetauk; baiña, bakik, kuadrillan jarritxekuen Santak laitxe egotetxuk, ixil ixillik.

— Bestelan, ez zitxuan izengo andraskuk, pe.

— I, lengo baten abade zar batek an, bakik ze esautsen? gizonak domiñau eziñeko iru gauza euezela; ta, ze etezien preguntau jotsan. Emaztie, astue ta urdaille. Ta egixok, orrek, egixak ditxuk, nik siñistu eitxe juat. Emaztiaz, geu be aprobaute gazak, astuaz be bai pixkat ta onetxaz, urdaillonaz geixen gaña.

FRAY BARTOLOME SANTA TERESA. "Euscal - errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco - gatz - ozpinduba". Hordago, publikapenak. 28, 29, 30 orrialdeetan.

- Astue ei dok terkuena atzatzaka.
- E! Atsuk... etxakixat asko kentzautzen. Astuai zikidan, makillekadi be emon eitxejakok, ta ekixuek ba orrei; orrei ekixuek ba.
- Batzuk ekitxejotzek...
- Ori gogorra izengok orratxiño! Gero ekarrixaz arek eskure! Makillekadi emonda gero.

~~*


- Matio Zuluak be, zigarru erretiai itxi jotzan baiña...
- Len, bazkalonda artin etxuan erreten; oiñ, bazkal aurretik pe ekin jotzek.
- Oiñ, puru erreten asiok gaña!
- Orrek kalte gitxia eitxen eijok eta...
- Jaixegunai jai itxuri emon bikotsau orraitxiño!


~~*

Lengo biak, gizonezkoen arteko autuak izan badira ere, oraingo au, gizon eta emakumeren artekoa dugu:

- Gaztetxeko medizina bat jiretan asi ari, ortik zier junde.
- Ai, ai... asko kostetan jatek niri oiñ ori!
- Asko kostata be jirau ezkeru zoze eiñ leiken baiña... Paseten dana don, asko kostata, ta jirau ezin gaiña.
- Ibilli eingonok, da, ezin gero ezebe jirau, ta alperrik nekatzeik etxatek komeni niri.
- Kantsaute agonala pentsetan junat nik ta ia, ezton nai alperriko bierrik eiñ.
- Ai, ai zuen modun gazti banintzok ni, ibilliko nintzake ondio neu be.

Maribel Aierza





ASKO ETORRI DIRA ALA ASKO ETORRI DA?

Bere "Sustrai bila" liburuan Alvarez jaunak au dio:

"1.6 - Mugagabe edo indeterminatua noiz erabil.

Ohar bat aurretik.

(Emen nik bi oarpen egingo nituke:

1) "mugagabe" ez tute uste "indeterminatu" itzaren itzulpen ona danik, "mugagabe" itzez-itzez "ilimitado" baita; "indeterminado" ZEIN adierazten ez tuana danez'kero' "zeingabe" esatea egokiago litzakela esango nuke;

2) "noiz erabil" dio Alvarez'ek. Itxuraz "noiz erabili bear dan" adierazi nai zuan. Altube'k zionez' aditzari-i, -tu muturrak kentzea "ezan" eta "edin" aditzekin bakarrik egiten da; esate baterako'etor dedin, ekar dezan, sar dediñ, eska dezan. Beraz "iñoiz etorri izan da, zerbait ekarri edun du, noiz erabili duan, atzo ibili zan" esan eta idatzi bear dira, aditzari muturrik moztu gabe.)

"Euskeraz, beti ezkeroztik, bi taldetan banatu ditu euskaldunak, lumeroeri dagokionez, gauzak eta ideiak: hiztunekiko ezagunak eta mugatuak batetik (ETXEA/ETXEAK); eta hiztunekiko ez-ezagun edo mugagabeak bestetik (ETXE). Horregatik gure deklinabidea: hirukoitza, eta ez bikoitza.

"ETXE" hitza aipatu dugun ezker, ekin dizaiogun berari. Lumerorari gagozkiola beti, españolak eta frantsesak bi talde bereizten ditu:

"Batean: CASA (la, una) = MAISON (la, une)

"Bestean: CASAS (las, dos, tres, cien, pocas, muchas, cuántas?) = MAISONS (les, deux, cent, peu de, beaucoup de, combien de?).

"Horregatik, ERDERAZ ESKOLATUAK GARELAKO, euskeraz ere BIKETA HORRI EUSKAL BIKETA BAT AURKITUNAH IZATEA. (Euskaldunak ez bait daki artikulua erderaz berex doala; eta euskeraz loturik). Alegia: erdal estrukturari, kopiakeria bat eginez, euskal sasi-estruktura bikoitz bat erantsi nahia. Kalko edo berdinkeria hau, hain zuzen, hizkuntza-estruktura truke bat den aldetik, zuzenki doa euskal gunaren kontra eta gaitzetsi egin behar da.

"Euskerazko lumero-estruktura HIRUKOITZA baita. Oraindik ere gure indeterminatua eta gure plurala bereizten ez dakitenek, ez dute ez euskaldun intelektual izenik merezi, eta ez gutxiagorik ere. Zeren-eta gure hizkuntzaz mintzatzen eta idazten egokiro jabetu ez den euskalduna, besterik izan bait diteke apika; baina ez euskaldun intelektuala eta Euskal Herriaren aintzindari kultura-gainean. Hau esan beharrik ba ote dago oraindik?" (Sustrai bila, 40-4 aa).

Asiera orren ondoren' eziñ ukatzuko egi aundieren batzu espero zitezkean. Eta ona zer dion:

" - Andoniri bi LIBURUAK galdu zaizkio.

"Hitzegiten ari direnek badakite zein diren bi liburu horiek; bestela hau galde-tuko lukete: 'zein bi LIBURU?'"

"Baina eman dezagun orain beste hau:

— Andoniri bi LIBURU galdu zazizkio. (Bego horretan oraingoz 'zaizkio' hori).

"Hitzegiten ari diranek hau konprenituko dute: bi direla galdu diren liburu horiek, baina zein liburu ote ditezkean ez dakitela.

"Lehenengo esakuntza, beraz, 'mugatu-anitza' dugu (=plurala); eta bigarre-nean, BI ALE IZANIK ERE, 'mugagabe'(=indeterminatu) bat.

d) Eman dezagun orain:

— Zenbat ADISKIDE ikusi duzu?

Ez dakigu ez nor diren adiskide oriek, ez xehetasunik bat ere. 'Adiskide' hitzak, beraz, mugagabe izan behar du.

e) Eman dezagun:

— GUDARI asko hil zen urte hartan.

Berriz ere: 'asko' izanagatik ere, hizketan ari direnek ez dakite xuxen nor diren gudari horiek; hitza, hortaz, mugagabe gisa doa: 'gudari', ez 'gudariak'.

Mugagabe edo indeterminatuak, beraz, ez du ezer ikustekorik BAT/ASKO erdal zatiketarekin: erdal biketa hori erauzi egin behar dugu euskeraz. Mugagabe izatea ala ez izatea, beste honi datxeko: EZAGUNA / EZ-EZAGUNA izateari datxeko hain zuzen.

Arreta jarri ezkerro, bestalde, hau erreparatuko dugu: euskerazko indeterminatuari artikulurik eza dagokiola erderaz." (Sustrai bila, 42-43 aa).

Garbi dago azkenik dion ori orrela ezтана: gaztelaniz voy a casa esatean guztiek badakie mintzo danaren etxea aipatu dala. Eta euskeraz ere berdiñ: etxera noa esaten dudanean 'jakiña da nere etxera noana. Eta oietan eztago gaztelanizko "artikulurik", eta euskerazko "zeindungarririk" ere ez.

"Andoni'ri bi liburu galdu zaizkio" eta erderazko "A Antonio se le han perdido dos libros", "Antoine a perdu deux livres" berdin berdiñak dira auzi oni buruz: zein liburu galdu zaizkion ezta adierazten.

"Andoni'ri bi liburuak galdu zaizkio", "A Antonio se le han perdido los dos libros", "Antoine a perdu les deux livres" gai oni buruz berdin-berdiñak dira: arako bi liburuak, los dos libros de marras, les deux livres en question.

Itxuraz Alvarez'ek beste zerbait eztu ikusi: euskerazko batzutatuko zenbait itz erderaz plural-itxuraz naiz singular-itxuraz erabiltzen dirala, eta euskeraz berriz batzu-itxura naiz bakarr-itxura aditzak ematen diela. Ona adibide batzu:

"¿Qué amigo has visto?" eta "qué amigos has visto?" "Quel ami as-tu vu?" "Quels amis as-tu vu?" oietan visto eta vu batentzat naiz batzuentzat berdin da; euskeraz alderantziz da: "¿Zeiñ adiskide ikusi duk?" eta "¿zeiñ adiskide ikusi dituk?" aditzak adirazten du adiskide bakar bat ala adiskide batzu aipatzen ditugun.

"Ha dicho una palabra" eta "ha dicho muchas palabras"; "il a dit un mot" eta "il a dit beaucoup de mots"; "itz bat esan du" eta "itz asko esan ditu".

XXII- EUSKERA - 1977

Gaztelaniz batzuetan "muchos" ordez "mucho" esaten da; prantzesez "beaucoup" bietara erabiltzen da, eta euskeraz "asko" ere bai. Erderaz izenari -s gibel-letra erantsiz bereizten ditude, guk aditzaren bidez:

"Ha comido mucho pan" eta "ha comido muchos panes"; "il a mangé beaucoup de pain" eta "il a mangé beaucoup de pains" (emen belarriak ezin bereizi dezake); "ogi asko jan du" eta "ogi asko jan ditu".

"Ardo asko edan du" eta "ardo asko edan ditu" bi gauza dirana ikusten ez-tuanak'euskeraz ez-taki ongi.

Aipa dezgun Alvarez beraren adibidea: gudari asko hil zen urte hartan. Au gaztelaniz bitara esan diteke: aquel año murió mucho combatiente, naiz aquel año murieron muchos combatiientes. Prantzesez ere berdintsu joka liteke: Ce

matin il es mort beaucoup de combatants naiz Beauco pu de cambatants sont morts ce matin. Euskeraz ere bai: Urte artan gudari asko il zan, naiz gudari asko il ziran. Euskeraz ezin duguna asko itzari batzu-itxura ematea da: gudari askok il zan ezta euskera, eta gudari askok il ziran ere ez.

Alvarez'ek diona, alegia "biketa hori erauzi egin behar dugu" eta beti asko da idatzi'idazle orrek "intelektual" izena sekula-santarako ukatuko baldin badit ere' ezin onets nezake. Arau ori beti erabilliko bagenu'sekulako astakeriak idatzi bearko genitue. Esate baterako:

Atzoko biltzarrera euskaltzaiñ asko etorri zan. Eztago gaizki, baiña "euskaltzaiñ asko etorri ziran" ere ongi dago, nere ustez obeki. Baiña itz egiten duana ere euskaltzaiña eta biltzarrera etorria baldin bada, eta Alvarez'ek nai duan bezala mintzo bada' onako aldrebeskeria esan bearko du: atzo euskaltzaiñ asko etorri nintzan. Eta ori ontzat emango duan euskaldunik eztago. Ori ontzat emango lukenak'besterik gabe'euskaldun ez tala adieraziko bailuke.

Itxuraz' gure zeintze-atzizkiak eta erderazko artikulua jatorriz zer diran eztu ikusi Alvarez jaunak. "Este hombre", "ese hombre", "(aqu)el hombre" = "ille uomo" = "il uomo" euskerazko gizon au, gizon ori, gizon a dira, loturik gizonau, gizonoi, gizona; prantzesez eta bizkaieraz berdiñ: "onako gizon au" = "cet homme-ci", `arrako gizon ori" (prantzesez ori'ren ordekorik ezta, eta beste izkuntza askotan ere ez), "arako gizon a" = "cet homme-lá".

Alvarez'ek au dio: "euskerazko indeterminatuari artikulurik eza dagokio erderaz". iNoski!: artikulua ortarakoxe baitude, zeinduntzeko (1). Alvarez'ek aipatzen duan bat ikus dezagun: Nere etxean izan zen, gaztelaniz eta prantzesez estuvo en mi casa eta il fút á ma maison, beraz artikulurik gabe, baina beste erdera batzuetan artikulurekin da: "fu stato nella mia casa", "ele foi na minha casa". Ona onlerkari portugaldar batek idatzia:

Ai! astros da minha terra

Quem me dera o vosso alvor! (Francismo Gomes d'Amorim, O desterrado)
eta italiar batek:

Questa barca rattoppata

E il mio trono imperial,

La mia culla, la mia bara

Il mio talamo nuzial. (G. Pennacchi, II marinaio)

Obe dugu, beraz, erderak utzi eta euskaldun jatorren euskera ikastea.

Alvarez'ek beste liburu batean onako au dio:

"Erderakada" esan ohi duguna, estruktura-aldaketa da: geure estruktura alde bat uzten dugu, bitxikerizat jorik, eta atzerritar estruktura "logikoa" onartzen, bai fonetikan, bai semantikan. Hau guztia, jakina, oharkabean gertatzen da: hizkuntzaren erroa Inkotzientean dago, aurrerago erakutsiko dugunez. Baina oharkabean gertatuagatik eta gertatzeagatik, pentsakera-aldaketa sakon baten zantzua dira. Alegia: atzerritarrek berezten dutena, berezkuntza logiko eta egokitzen hartzen dugu, eta eutsi egiten diogu; atzerritarrek berezten ez dutena, aldiz, bai fonetikan eta bai semantikan (eta honi buruz ari naiz bereziki liburu honetan), "beharrrik gabeko berezkeriatzat" hartu eta bazterrera. Hau gertatzean, beraz, geure etnia-pentsakera berezia galdu, eta hizkuntza berriari Jotzen gatzazkiola esan daiteke. (Hizkuntza eta pentsakera, 25a).

Ontan Alvarez'ekin zearo batera natorr, eta adibide nabarmen bat aipatu nai dut emen. Idazle zaarrek orrelakoak idatzi zitudela eta besterik gabe'idazle batzu onelakoak idazten asi zaizkigu:

(1) Ageri danez'zeinduna eta zeingabea erderaz ere badira, euskeraz bezalaxe.

"Peru etor dedin nahi dut, eta etor dedin etor dedila esango diot".

Au erderaz bezelaxe pentsatu eta idatzia da: "Quiero que venga Pedro, y para que venga le diré que venga". Que venga, que venga, que venga, que venga: iru aldiz aditz-joko berbera. Prantzesez ere berdintsu: "Je veux que Pierre vienne, et pour qu'il vienne, je lui dirai de venir"; vienne, vienne bi aldiz berdiñ. Euskeraz iru aditz-joko erabiltzen ditugu: "Peru etortzea nai dut, eta etor dediñ'etortzeko esango diot". Etortzea nai dut, etor dediñ, etortzeko esan: iru jokaera (2).

Alvarez'ek diona garbi-garbi dago emen: erderatikako itzulpen kaxkar bat euskeraz "klasiko" eta bikaintzat sartu nai digude. Eta orrelako erderakadak idazlerik onenek era egiten ditude; ona bi ale:

"Ezpatatik hilarazi zuen" (Duvoisin) "Il fit mourir para la glaive" (Crampon) "Il fit périr par la glaive" (Bible de Jérusalem) "Y nató a cuchilla" (Cantera-Pabón) "Y mató a espada" (Straubinger) "Hizo morir a espada" (Martin Nieto) "Occidit autem Jacobum fratrem Joannis gladio" (Vulgata). Olabide'k jatorr euskeraztu zuan: "Bizia ere Yakob'i, Yon'en anayari, ezpataz kendu zion. (Act. Apo. 12.2.)


"Eta... deliberatu nuen... liburutto baten... egitera" "Et je me décidai á faire un petit livre". "Y me decidí a hacer un librito". (Axularr, 6) Egitea bear zuan.

"Ordea gero eskatu zeikanean londone loannes Baptistaren buruaren, galdu zuen iuramentuak indarra, etzen konplitu behar". "Quand on lui fit la demande de la tête de S. Jean Baptiste..." "Cuando se le hizo petición de la cabeza de S. Juan Bautista..." Emen burua bear zuan. (Axularr, 172.9)

"...Hala balira nahi zendukeien gauza batzuk." "... algunas cosas que quisiérais que fuesen asi". Emen hala izatea nahi zenukeien gauza batzu bear zuan. (Axularr, 108)

Berriz diot: idazle bakar batekiñ ere ezin piatu gindezke. Alvarez'ek berak uste duan baiño ere arrazoi aundiagoa du.

Zatarain A.



(2) hil zedin galdatu zaroen bere biziari (Duvoisin III Reg. XIX, 4) petitiv animae suae ut moreretur.



GOI -YAKINTZA GOI-YAKINTZA'RUNTZ URBILTZEKO NAYEAN EUZKERAZ EGI NDAKO URRATS TXIKIAK: **OROIMENA**

Zer ote da oroimena? Guziok dakigu ori, ongi. Gure bizian barna egin, oldoztu, jasan, ikusi, entzun, iraku i edo oartu duguna, be iz gure oldozmera eka i, ots, guzia izan dan bezela gogoratzeko dugun almena.

Beraz, auxe da lenengoz oartu beat duguna: Oroimena gure baitan dugun almen bat dala, gafantzi aundikoa dan almena. Ta berealaxe gaidetzeko: Oroimena gure adimenean al dago?, ala gure oldozmenean?, ala beste nunbait gure baitan? Eskie da, eiki, gure baitan dagoela, baña ez, ene ustez, beste almen batean; alakotz, almen guztien artean oroimenarena beste almen azke dala esan bea dugu. Noski, beste almenekin a emanean ari dala ontzat artzekoa da, bidezko ta bea ezkoa danez.

Eta oroimena, aundia naiz txikia, gizaki guztien baitan ikusi bea da, beraz guztion izaeraren azpegi bat bezela dala onartu bea dugu, giza-izaerari dagoiolarik; o ela izaera ori bizi aundiagoa ematean.

A emanik ote du oroimenak gure irudimenarekin? Bai, arean, eta ez txikia gure iritziz, irudimenak askotan zerbait gogoratzera eramaten gaituelako. Irudimena, jakiña, beste almen bat bezela begira dezakegu, baña bai ta giza-izaeraren jokera lez be, ta apika almen bat baño egokia dirudi jokera dala esatea. Irudimena gure baitan azke ta bere kabuz ari dalako, gure naimenetik azke alegia; ta oroimena naimenak erabil dezake neufi zabalean eta maiz. Nolabait irudimenak oroimena izateko leguntzen gaitu, ez, aitzitik, oroimenak irudimena erabiltzako. Argi dago, beraz, gure bi almen oyek geron baitan nola ari zaizkigun.

Oso onuragafia zaigu oroimena sa itan, azpegi askotan, guretat guztiz lagun ona bezela agertzen zaigulako. Eiki, oroimena ona ala txa a izan diteke, ta o engatik gure onurako obeto ala gaizkiago berez edo jokutzen du; ta ba-dirudi bakoitzari bata ala bestea jayotzetik eman zaigula, txa a izan ezkeru obetzeko biderik ezta goela dirudielako.

Batzuetan, egindako edo jasandako zerbait gogoratzea ez da guretzat atsegina ta orduan oroimenik ez izatea nai-izango genuke, baña orduan ere orimenak ezeren pean egon gabe jokatzten du geuk nai ala ez. Ortik atera dezakegu oroimenak beti naimenaren pean ari bea ez duela, ta ondorioaz argi ikus dezakegu maiz berez diarduela.

Oroimena era askotan ari da gure baitan eta, o ela izanik, oroimen-mota batzuk ba-dirala ere esan genezake, azpegi batzuei buruz zuzenduta agertzen zai-gulako. Batzuetan edo batzuegan oroimena tokiak so erazten du, ta oni toki-oroimena deitu dizayokegu. Asmoak ere nolabait o ela jokatzten du ta oni, era berean, asmo-oroimena deitzekoa da. Zerbait ikusi edo entzuten badugu, ikusita-koak naiz entzundakoak beste ainbeste dagite gurebaitan; eta antzekoak diran beste bideak orobat egin lezaket gure orimena so erazteko ala lanean ari-izate-ko; alakotz, berdin izan ditezke geron baitan beti: Iraku i-oroimena, idatzi-oroi-mena, egin-oroimena, bidezko oroimena, edesti-oroimena, elerti-oroimena, margo-oroimena, ta abaf eta aba .

Oroimena, beraz, gure oldozpenetan barna ari zaigu jokatzten eta, ofela dalarik, argi agertzen da gure gogo-bizirako lagun ona bezela zein ederki ari zaigun; oroimenik gabe, askotan, ez giñake ezertarako ezer izango ta guztiz geldo beze-la agertuko giñake; aitzitik, oroimen onari esker askoz egokiago joka dezakegu, gure bizirako e aztasuna izatean, eta ongi esan edo ditezke nolako oroimena ala-ko bizia eraman daikegula.

Oroimenaren ondoria lez oroipena dugu; ura almen bezela ta biga ena oroi-egipena dugu, oroimenak ematen digun zituaren antzekoa; ta len oroimenari bu-ruz esan duguna berdin esan dezakegu oroipenaz ere, oroipen onak eta txa ak ezan ditzakegula, lenengoak geron atsegiñerako, bigafenak geron atsekabera-ko. Ta len ere, beste azpegiak buruz oartu dugunez, emen be gure atzizkiak diran -men eta -pen ongi bereizten dituztela adigai zeingabea ta adigai zeatza.

Oroimenaren aurkakoa bezela aitzutzeko gaitasuna dugu, ta gaitasun o i, zeinge izarian, aanzmena dei genizayoke, bai ta bere ondorio zeatzari aanzpe-na ere.

Bizi ontan, geyenetan, gauzak berez aitzutzten dira, e az batzuk eta zailki besteak, guregan eta gure baitan nola ari-izan diran arauz. Alakotz, ba-ditugu geron baitan alkaten aurkakoak bezela bi almen oyeak: Oroimena ta aanzmena.

Noizean bein gogoratu edo aitzu nai ditugun gauzak gure baitan irauten dute aurkako lez, ots, gogoratu nai duguna aitzutzten eta aitzu nai duguna gogoratzean, eta alderantziz, gogoratu nai ez duguna gogoratzen edo aitzu nai ez duguna aitzutzten. Ortan gure naimena, sa itan, ez da ezertarako ezer; eta ortik atera bear dugu almen bi oyeak gure baitan beren kabuz edo bakarik ari-izateko bizi dirala.

Oroimena ta aanzmena ez dira berdin agertzen gizakien baitan esaten danez batzuek oroimena ona dute, besteak ez ainbeste ta besteak oroimenik ez dute-la esan bea , eta urteetan barna au erazten danean gizaki bakoitzean galtzen ari dala ikusten da. Orobat aanzmenari buruz ere esan edo bea dugu. Ta zer-gatik gogoratzen ditugu, geyenen aldetik, obeto aurtzaroan jazo zitzaizkigunak arestian gertatu zaiguna baño?, ta zergaitik aitzutzten zaigu e ezago orain gutxi bizi beaf-izan duguna txikitian gertatu zitzaiguna baño?. Oía of bi almen auei buruz ondo ulertzeko ez duguna; ta ortik ere argi ikus dezakegu almen biak gure naimenetik at ari dirala.

Dana dala gure baitan bi almen oyeak ba-ditugula ezta zalantzan egoteko ez asmo ez usterik; ta biak gure baitan ari zaizkigu au ak izan giñanetik eten gabe jokatztean, bertan dugun gogo-bizia benetan mardul eta eraginko a dala erakusten. Ez da bizi ori edonolakoa ta, egitan, berak ematen digu bakoitzaren nortasunaren neu ia; gaya baka ik ez gerla adierazten eta Ludi'ko beste izaki guztien oso gañetik ibili eta ari gaitezkelak erakustean.


Gure gogo-bizia, berez oso mardula agertzen bada ere, edonolako gayak ikasteen indartzen eta zabaltzen zaigu oso, gero ta gai geyago ikasteen geyago ere edatzen gure baitan; o a ikastearen inda a, of bai, gure naimenak egiz eragin dezakena lan egokia betetzean. Baña ortan be oroimenak yarduten due-la, ikasten duguna ez aiztutzeko bitarte biñaka lez agertzean; noski aanzmenak ere, o en aurka jokatzean edo, beste aldeko lana dagi geron baitan beti; o ela oroimena ta aanzmena, alka en etsai bezela agertzen zaizkigu, beren arteko bo oka ori iñoiz amaitzen eztala. Orixe, bera, geron baitan tai gabe eraman edo jasan bea dugun jokera itsua, sendo eragiten duena.

Maiz esaten da gayak ongi ikasteko, buruz ikasi beat ez dirala, orixe gauza ariña dalakoan eta ikasi beat dan guzia sakonago gureganatu beaf dugula. Ba-dago, of, jakiña, egia dan zerbait, baña alaz ere ez dugu baztertu bea , iño-la be ez, oroimenaren laguntza ede a, ta gure ustez bide bi oyek, sakon ikas-tea ta oroimena, alka ekin erabili bea diralakoan egon eta yardun bear dugu beti. Ezin ibili ta ari bea bide oyek alkafen aurka jokatzen, alka en lagun onak bezela baño, biak, azkenez, alka en betega iak izan bea dutelako.

Ez da, gero, aiztutzeko, gure oroimenaren gaitasun ede ori, ta aitzitik, oso egokia noski, o ezaz, ongi gogoratzea ta ez aiztutzea, gure gogo-biziari, o ela bereziki, bere ga antzi guzia emateko ta gizatasunari egoki ta beata zayon mailean eten gabe ja aitzeko gure egiñalak be jokoan ipintzeko, azkenez giza-duintasuna guztiz aintzakotzat arturik izan diteken.

Argi ateman diteke, ondorioaz, geron baitan bizi zaigun oroimenaren almena nola eda diteken eta noraño eldu, guzcion gogo-biziari laguntza egokienetakoa ematen.

U estarazu'ta Andoni





MARI JESI AK

1

Abendu Santu onetan
Kristoren jaiotzian
Kontutuaren aundiz
Guztiok poz gaitian.
 Maria Jose!
 Jose Maria!
 Maria Jose!

2

Adan formadu zanian
Lenengo lurrian
Pekatu egin eban
Paradisu[e]ternalian.
 Maria, Jose etab.

3

Linborian egozan deiez
Bost milla urtian
Jauna zerutik lurrera
Etorri zeitian.
 Maria, Jose etab.

4

Erabagia izan zan
Trinidad altuan
Biar zala biraldu
Lurrera aingerua
 Maria, Jose etab.

5

Biar zala biraldu
Lurrera aingerua
Erremediatzeko
Adanen pekatua
 Maria, Jose etab.

6

Nor emen mensajerua?
San Gabriel aingerua
Egingo dabena ondo
Jaunaren agindua.
 Maria, Jose etab.

7

Edegi dirade zeruan
Ate diamantezkuak;
Arixekin batera
Bentana izarrezkuak.
 Maria, Jose etab.

8

Gizonik ez dot ezagun
Lurraren ganian;
Eginik deukat boto
Ni jaio nintzarian.
 Maria, Jose etab.

9

Espiritu Santu Jaunak
Emonik argia
Zeure kontzebidua
Izango da garbia.
 Maria, Jose etab.

10

Ez daukat nik errurik
Banaz ni esklabia;
Jaunak ordenadu dau
Ni onela izatia.
 Maria, Jose etab.

11

Marabilla andi bat
Zerutikan lurrera
Konzebidua izan da
Zeruko Erregiña.
 Maria, Jose etab.

12

Ez dator gizonetatik
Ez gizonaren obratik
Elejidurik eguan
Eternidadetik.
 Maria, Jose etab.

13

Nabegadua izan zan
Bederatzi illabetian
Mundu onetako
Itxasuaren gañian.
 Maria, Jose etab.

14

Josepe ditxosua
la da denporia
Neugandik jaioteko
Jesus salbadoria.
 Maria, Jose etab.

15

Eguzkia nola doian
Kristalaren artetik
Semia jaioa dala
Amaren sabeletik.
 Maria, Jose etab.

16	23	30
Kristalian argia Bezela pasatu; Eginda gero bere Dontzella geratu. Maria, Jose etab.	Iru Errege Maguak Ain bide luzian Milagrosamentian Juntatu zirian. Maria, Jose etab.	Erodesek esan eutsen Erregiari gabian Emendik zatozela Ni bere jua neitian. Maria, Jose etab.
17	24	31
Eguzki dibinala Gaubaren gauberdian Etorri da mundura Gizonaren jantzian. Maria, Jose etab.	Iru Erre Maguak Ain bid [e] luzian Bakotxak eroiela Beren presentia. Maria, Jose etab.	Erodes koitadua Burladu zaitue; Erregiak jua dira Zeu ikusi gabe. Maria, Jose etab.
18	25	32
Trinidad altuko Bigarren persona Transformadurik dago Belengo estalpian. Maria, Jose etab.	Iru Errege Maguak Ain bide luzian Ostatua artu eben Ain etse pobrian. Maria, Jose etab.	Erodes Erregia Faltso traidoria Zeren damu eban Kristoren jaiotzia? Maria, Jose etab.
19	26	33
Otzaren ikaraz dabil Jaio dan infantia. Bere amak dirautso: Ixi ene semia. Maria, Jose etab.	Belengo portalera Eldu zirianian Ango zaldiaren otsak Espantadu zeukian. Maria, Jose etab.	Mendian egozala Jagoten ganadua Manifestadu jakon Zerutik aingerua. Jesucristo Ay qué bonito! Buen Niño Jesucristo.
20	27	34
Astua ta idia Daukaz aldamenian Arnasaz berotzeko Oztuten danian. Maria, Jose etab.	Aurra adoratzean Iru Errege emen Ikusirik pobrezan Arritu ziraden. Maria, Jose etab.	Corrían los pastores Dejando el ganado Que daban grandes voces: ¡Jesús sea adorado! Jesucristo, etab.
21	28	35
Astuak arrantzia Idiak arnasia Alan berotzen eben Jaio dan infantia. Maria, Jose etab.	Erregaluak bere Ekarri zituen: Urna, intzentsua Mirra irugarren. Maria, Jose etab.	Txik egun ditxosua Degu Eguberri Zegaitikan Jesus dan Gugana etorri. Jesucristo, etab.
22	29	35
Astua ta idia Jaten egozarian Seña euki ebela Biaren bitartian. Maria, Jose etab.	Gasparrek urria ta Beltxorrek intzentsua Baltasarrek eroian Mirra preziosua. Maria, Jose etab.	Txik egun ditxosua Degu Eguberri Zegaitikan Jesus dan Gugana etorri. Jesucristo, etab.

36

Ai ze kontsuelua
Orain guk deukagun!
Jainkuaren Semia
Etorri da lagun.
Jesucristo, etab.

37

Guztiok biar degu
Disposiziñoan jarri
Graziak emoteko
Gaur jaio danari.
Jesucristo, etab.

38

Erakutsiko deusku
Zer egin biogun
Beraren alabantzan
Kantadu dezagun.
Jesucristo, etab.

39

Jose eman diote
Manan esposo
Biak izan deitezen
Jesusen guraso.
Jesucristo, etab.

40

Karguan jarri dira
Jose ta Maria
Anparatzeko Seme
Estimagarria.
Jesucristo, etab.

41

Agur dontzellia
Graziaz betia!
Zeure izena dozu
Birjiña Maria.
Jesucristo, etab.

42

Birjiña arritu zan
Agun egin eutsenian
Onelango mensajia
Nork ete leikian.
Jesucristo, etab.

43

Dontzella galant ori
Orbanik gabia
Zeure izena dozu
Birjiña Maria.
Jesucristo, etab.

44

Arkanjel San Gabriel
anunziadora
Ez gaizuz espantadu
Ain jente umildia.
Jesucristo, etab.

45

Denpora desiadua
Etorri zanian
la gara eldu
Kristoren etsian.
Jesucristo, etab.

46

Josepek dirautso
Maria Birjiñiari
Noz deklaratuken daben
Esperantza geure ori.
Jesucristo, etab.

47

Biak Belenera
Dute kaminatu
Ara eldu zirianian
Ostatuaren itandu.
Jesucristo, etab.

48

Eskepe etsetxu baten
Dagoz atiak joten
Gizona bentanara
Txito nekez urteten.
Jesucristo, etab.

49

Gizonak bentanatik
Au dau erantzuten:
Nor da ordu onetan
Atiak joten?
Jesucristo, etab.

50	57
Nor eta nor bizi da Etzetxu zar onetan? Nor eta zer gura zenduke Jaunaren ordu onetan? Jesucristo, etab.	Bedarrak almueda Ogetzat pesebria Aurrian beleniko Bere Ama umildia. Jesucristo, etab.
51	58
Ara or etsetxu zar bat Uriaren kabuan Aberiak eta baño Ezta sartzen barruan. Jesucristo, etab.	Arantzaren arteko Jaio zanian Kulpa orijinalaren Mantxa gabia. Jesucristo, etab.
52	59
Pobrezan izandu zan Jesusen jaiotza Batetik elurra ta Bestetik izotza. Jesucristo, etab.	Seme Jauna daukela Urre ardui eder baten: Bere Ama beleniko Aurrian adoratzen. Jesucristo, etab.
53	60
Sutxu bat egiten asi Pesebre bazterrian Aiziak eta otzak Lenera erorian. Jesucristo, etab.	Jose eta Maria Euren Jesusarekin Duaz Belenera Kunplietan legiakin. Jesucristo, etab.
54	61
Seña billosik dago Lur otzaren ganian Ama beleniko Negarrez aurrian. Jesucristo, etab.	Obligaziño bagarik Kunplietan legia Guri erakustiarren Zerurako bidia. Jesucristo, etab.
55	62
Amiak artu eban Semia besuetan Semia ta Jainkua Zituan adoretan. Jesucristo, etab.	Ara gura badozu Ortxitik dago bidia Zeren justoa dan Kristoren legia. Jesucristo, etab.
56	63
Billosik bazagoz bere Etzara zeu pobria Zeruetan josirik dago Zeuretzako erropia. Jesucristo, etab.	Sakramentu Santua Zeledradu zanian Izena imiñi eutsen Jesus Salbadoria. Jesucristo, etab.

64

Emen esan badogu
Berbarik deungaro
Elexama Santiari
Parka eske naiago.

Jesucristo, etab.

65

Ogetalagarrena
Degu abenduan
Deseo genduen
Logradu genduan.

Bai Belenen
Eta bart Belenen

Jaio da Jesus Nazaren.

66

Gabeko amabiak
Jo daben orduan
Gure Salbadoria
Jaio da munduan.

Bai Belenen, etab.

67

Belengo portaban
Estalpe batian
Jaio da Jesus ona
Ganadu artian.

Bai Belenen, etab.

68

Belengo urian
Gabon gaberdian
Birjiña Santia dago
Kontsolaziño andian.

Bai Belenen, etab.

69

Mundu guztia dago
Gaur pozez beterik
Semia jaio dalako
Mantxa bagarik

Bai Belenen, etab.

70

Goiko mendietatik
Pastoriak datoz
Esanik aingeruak
Jaio dala Jesus.

Bai Belenen, etab.

71

Pastore santu birtuosuak
Balia zakiguz gaur emen
Bart arratsian zer pasatu dan
Konta dezagun Belenen.

Bai Belenen, etab.

72

Korraletako ardiak bere
Jantzan ebizan orduan
Gura Jesusa Salbadoria
Jaio dalako munduan.

Bai Belenen, etab.

73

Jesus dibiño! Gabaren otza!
Jausten da iñetasie
Erleju bien onelan bada
II da ganadu gustie

Bai Belenen, etab.

74

Ortixik gora niñoiela
Ospiteletxu zar baten
Aita San Josepe topadu neban
Astotxuaren txalmatzen.


Bai Belenen, etab.

75

Nazareteko tenpluan dago
Dama eder bat jarritik
Izena bere Maria dau te
Dana dao graziaz beterik.

Bai Belenen, etab.

(Manuel Lekuonak Gernikan bildu eta EFn 1933an argitaratua)



ARGI BIDEAN

Asko gara bizitzan, batera edo bestera jokatzan alegindu gareanak.

Asko lanean mindu gareanak.

Beti brankaz jokatu bearrean aurkitu izan garealako, ekaitzari, denboraleari eutsi naian, itxasoan negu garratzetako ekaitz artean gora ta bera, ezker-eskuma olatu eta bagaen zapladak artzen dabillan txaloparen antzera...

Euskal mundua dogu aurrean: euskal itxasoa. Kantauri itxasoaren antzera sarri arrotu ta gangartzen dan itxasoa. Kalma zuri baiño aize berde edo ipar baltzetan sarriago ezagutzen dogun gure itxasoa.

Itxas onetan era guztietako patroiak ezagutu izan doguz. Oituren jarraitzaleak, tradiziño baten menpekoak, eta zela-ala iraultzale izan diranak.

Or esateko Azkue berbera, or Lekuona. Or baita Federiko Krutwving, alemaniarra odolez, gizon jakintsu eta ikasia. Euskaltzain autatu ebenetik gizon ezta-baidatsua. Muga igaro bear izan eban Euskaltzaindiko lenengoko itzaldi bat amaitu orduko.

Jakina, ez euskeraz, ez gerkeraz, txistik egiteko aukerarik ez gendun garizuma illun eta luze aretan gertatu zan ori.

Ba dirudi beste gauza asko eteteko burrukan, euskeran ere iraultza egin nai izan gendula. Eta bide barrietan asi giñan, euskeraren urak bide barrietatik obeto joango ziralakoan.

Analisi zur, argi eta alderdikeri gabeko bat eskatzen dauan bide barritze baten sartu giñan.

Ba dagoz bide ori dala-ta buruari eusten ari diranak, nora ete garoazan sinistu eziñez; urteera bako pendiz arriskutsu baten sartu eta garean larri, euskeraren bidea ortik joan bear eta dan salatzen...

Baiña lenago ere egon ziran lekaroan ots egin ebenak.


Asko dira ori ikusten dabenak. Asko baita, —bakoitzak daki zegaitik— mutu irauñ eta jarraitzen alegintzen diranak.

Alaz eta tartean agertzen da egia ikusten asia dan norbait. Mutu jarraitzen koldarti izan nai ez dauanen bat. Eta bere aitorten bakoitza, salaketa garratz izanaz batera, jokabide askorentzako ostikada da.

Guk ez dogu guretik ezer esango.

1.990'ko Iraila'ren 30'n, "Deia" egunkarian agertu zana, etorran lez gogoratuko dogu. Datorran tokitik etorrira, pentsagarri ta pentsabide garratza askorentzat.

A. Zubikarai



Según el lingüista

"Ha fracasado el proceso de euskaldunizaciÓn"

IV

Federico Krutwing es duro y tajante al hablar del proceso de euskaldunización. *"Ese famoso batua es un desastre, es una cosa negativa. La lengua no se hace así sino por tradición literaria con los grandes literatos y no con cuatro "pelagatos" que procesan. Para mí, el proceso de euskaldunización ha fracasado ya que la filosofía con que se ha seguido ha sido populachera: que lo hable mucha gente aunque sea poco y mal"*.

El lingüista tiene una particular versión del euskera, lo define como *"un vascuence un poco "pichi"; peor que el esperanto y con el que puedan decir cuatro cosas: yo venir tú comer, si tú comer yo no venir. Es el idioma español con sonete vasco"*.

Krutwing no critica por el mero hecho de hacerlo sino que también aporta soluciones. Para él estaría en *"dar valor literario al euskera, entre otras cosas. Hoy en día la literatura en euskera no vale gran cosa. Además, están los críticos literarios que no saben nada, son bastante ignorantes"*.

Según el lingüista el *ejemplo lo tenemos en que la literatura que más se vende en el País vasco es la de libros de cocina, la de "casuelitas". La gente no sabe nada y para el futuro va a ser muy negativo, se las van a ver muy mal"*.

En cuanto al castellano, que lo califica como *"idioma del proletariado"* asegura que será un caos cuando Europa sea un mercado único ya que el inglés, alemán o francés se apoderarán de todo.



AKATSAK

ETA ERDERAKADAK

- 1.— "Ni naiz INFRAKTOREA..." (EITB, 1989-XI-26'an) Zer ote da ori?
- 2.— "Sufragio unibertsala... Autaketa egin daiteke sufragio unibersalez". (EITB, 1989-XI-27'an).
- 3.— "Ezkerreko fronte anplioari eman diote baiezkoa". (EITB, 1989-XI-27'an).
- 4.— "Promozio publiko ta sustatze ofizialeko gauza" (EITB, 1989-XI-27'an)
"Sustatze" orrekin, sustotarako aiña ere ez dugu izango.
- 5.— "Egongo zara geldi?" (EITB, 1989-XII-1'ean) Euskeraz pentsatzen dakianak, onela esango luke: "Geldi egongo al zera?"
- 6.— "Telebista jarriko dut?" (EITB, 1989-XII-1'ean) Non jarri bear ote zuten, bada? Obeki zegokean onela: "Ikustirratia piztuko al dut?"
- 7.— "Metro bat eta 65 zentimetro neurtzen du". (EITB, 1989-XII-1'ean) Nork neurtzen du, eta zer neurtzen du? Obeki zitekean onela: "Metro bat eta 65 zentimetro ditu luzeran".
- 8.— "Sentitzen dut gertatu zaizunagatik". (EITB, 1989-XII-10'ean).
- 9.— "Bederatzi komisio lanean daude". (EITB, 1990-V-17'an) Aspertuko dira, orratik!, lanean "dauden" oiek lana egingo duten zai daudenak.
- 10.— "Txirindulariak indarrean dagoela PROBATU zuen". (EITB, 1990-VI-13'an)
"PROBATU" ondoren, zer? Goxoa ote zegoan?
- 11.— "Lanean egon zen bitartean, Loiola'n zen kongreso". (EITB, 1990-VI-13'an).
- 12.— "Enfrentamentuak egon dira ikasle ta polizien artean". (EITB, 1990-VI-13'an).
Talde bien artean EGOTEKO, zer ote dira ENFRENTAMENTU oiek?
- 13.— "Euri apurren bat egingo du". (EITB, 1990-IX-4'an) Ogiak eta antzekoek izaten dituzte APURRAK, baiña... euriak APURRIK izaten zuanik, sekulan ez dugu entzun.
- 14.— "Biar odei gutxi EGONGO da". (EITB, 1990-IX-5'ean)
- 15.— "Zortzi milla errekorritu ditu belauntziak". (EITB, 1990-IX-6'an).
- 16.— "Egokitze ekonomikoa egongo dela". (EITB, 1990-IX-12'an).
Ekonomi-egokitzea", esan ba'lute, gaitz-erdi! Ala ere, non EGONGO ote litzake?
- 17.— "Giro tensoa Unibersitatean". (EITB, 1990-IX-12'an) Ori bai dala, "euskerera ablatzeko manerial"

18.— "Pensoa ekartzea... Penso bezala ekartzea. (EITB, 1990-IX-12'an).

19.— "Eskola Bertsogintzarako ere laguntza ere eskatzen du...".

Eskola Kantagintzarako ere laguntza eskatzen du..." (Eusko Jaurlaritzza, HEZKUNTZA SAILA dalakoaren orrietatik artuak, oraintsu).

Alderantziz bear lukete, noski: Kantagintza Eskolarako, Bertsogintza eskolarako...

Eta orri beroietan onako beste arribitxi au:

20.— "Beraietako zuzendarien baimen ESPRESUA lortu behar da".

21.— "Gizona etorri BEAR DA... Emaztea joan BEAR DA..." Aditza "intransitibo" danean, joan, etorri, erori, ibilli... BEAR DA, erabili bear ornen. Eta au Irakaskintzako liburu batetik artua da.

Gaztañaga'tar Jesus'ek

Akats geiago

Eskerrikasko zure ikustia. (Gracias por su visita).

(Gasteiz'en Postas kaleko Berebiltokiaren sarreran).

Edesti Erdirako Udal Sailla. (Departamento del Centro Histórico).

(Gasteiz'en, Postas kalean. Plaza-Berriruntzko sarreran).

Unibertsitate Kanpua. (Campus Universitario).


(Filosofi eta Elerti Ikastetxearen alboan).

Laudioko Abertzaleen Egundialdiak lenengo. (1^{as} Jornadas nacionalistas de Llodio).

Santa Maria benetako eliza. (Iglesia de Santa María la Real. Zarautz).

Eguraldia arrazoia ematen digu. (El tiempo nos da la razón).

(Ikusirratian, Zanussi'ren iragarkia).



LANAREN POZA

Poza dakar lanak; gauza bakotxaren guna eskertzen dakiarentzat alan be. Zergaitik kantuz txoriak? Nekatu diralako, nik uste; ara-ona ibilliz, edo jateko billa jatzuz, eta asti-unez atsegin jake soiluaren poza. Gure ortuan, uda ta negu, txori mota ugari dabilta, geienak kantari. Udazkenean, ostera, ez usoak bakarrik, beste klase batzuk be, iparretik egora doazanak, egun batzuetako egotaldia egin oi dabe gure baratz inguruan. Aldra bat, txepetx antzekoena, emen euki dogu egunokaz zugatzez zugatz kantari; euron kanta gozo-gozo be etzan arren, bakotxak bere erara kantuari ekiten. Ostera, ibillaldi luzeko nekeari kantatzen. Gaur barriro egazari ekiñez Afrika'rantza joanak dira. On egin daizuela!

Guk Euskerazaintzakuok, oraingoz beintzat Deba'n daukagu geure egoitza, lan eta barriketan egiteko lekua, antxe batzen gara illero, illaren azkenengo zapa-tuan. Bizkaitik, Gipuzkoatik, Gazteiz'tik eta abar. Ez gara askorik, ogei bat geien alkartzen gareanok; lanari gogoz ekin gure izan ezkerero, naikoa: zenbakiak baiño gogoak geiago esan nai dau emen.

Noiztik orrela? Aspalditik. Ez naz orain gogoratzen, baiña lenengo urte mordoa dala, Durango'n, Jesuiten aretoan batzen giñean talde; "Euskerazaintza" izena be berton asmatu genduan. Gero, Donostia'ra joaten giñan (Ni Gotzon Garitao-nandia'k eroaten nindun, arakoan beti gasolina arturik Arrua'n. Ondoren, gauzea polito antolatu zanean, Larrako komentuan egin genduzan batzar batzuk, gero Eibar'en urte batzuetan eta azkenez Deba'n Anez Lazkao'ren etxean. Beti alkar arte eta armoni eder-gurian. Lanerako leiak ez dakar zezio ta iskanbillik.

Sarri erantzun bear izan dautsat itaun oni: "Asko zarie?" Autortu dot ogei bat batzen gareala. Geienetan alkartzen gareanak. Ba-dira batzuk ille batzuetan etorri, eta gero zergaitik esan bage, etorteari muzin egin dautsoenak; beste batzuk kargu garaian ipiñi dabezalako, ez datozenak; ona bi. Bat Agustin Orbegozo, leen utsik egiteke etorten zana, urte batzuk dirala Euskalerriko Pasiotarren Nagusi aukeratu eben, eta ez jakon errez gure batzarretara etortea, eta gero orain urte bete lez dala, Pasiotar orrekin Jeneral izendatua izan zan; orain Erroma'n bizi da. Bestea, Aita Luis Arostegi da, euskaltzale errime-errimea, karmeldarra; onek be laugarren urtea daroa Euskalerriko karmeldarren nagusi eta naikoa zeregin dauko; gaur Ego-Amerikatik dabil, Guatemala, Kolonbia, Peru, Txile ta Panama'n karmeldar komentuek ikertzen. Iñoiz idatzi dabe geugaz dagozala lanez eta amasaz.

Zer da Euskerazaintza? Alkarte bat, euskal lanerako nai kementsu adoretua, erri euskeraren Akademia. Izkuntza guztiak lez, —ez guztiak—, daukiez euren Akademi bereziak, bakotxak bere izkera zaindu ta bide onez zuzentzeko. Ori egiten dau gure Euskaltzaindiak be, zaindu ta zuzendu, baiña ez derrigorrez idazle ta erri osoak egiten ditun uts eta akatsen zuzentzaile. Euzkadi-n akademi bi daukaguz, bata goi-goikoa Euskaltzaindia ta bestea beeragokoa Euskerazaintza, erriak egiten dauan euskera bide artezetik eroaten alegintzen dana.

Gure akademia erritar euskera zaintzeko sortua da. Eta orretan darabiltz bere indarrak. Gizaldietan egon gara gu olako barik, zuzentzaile barik; orregaitik sortu jakuz ainbeste izkelgi ta dialekto. Naparroan naparru goi ta beekoa, Gipuzkoan, Bizkaian bertokoak, eta mugaz andik Laburdi-Bexanapar-zuberotar izkerak. Bada dabe diferentzi apur bat, aditzean batez be, baiña ez esaten dan beste; egizuz igande ta opor-aldietan erbestera egin oi dozuzan beste ibillaldi ta laster ikusiko dozu ez dagoala aldarrikatu daroagun beste diferentzia; ibilli gaitez an erriz erri,

irakurri daigun irakurten dogun baiño zerbait geitxoago izkelgi guztietatik, eta or egiñik guk opa dogun batasuna.

Batasuna? Batasunaz, euskal batasunaz berbatzen gara batzarretan, eta ez dogu ortarako biderik ikusten; danok nai dogun gauza baterako biderik ezin aurkitu; naiko zoritxar ez al da? Nik sarri gogoratu izan dot gerra aurreko giroa; orduan danok gentozan bat euskerearen alde jokatzeko; orduan lider —nagusi— bi geunkezan, Lizardi ta Aitzol. Zelako nagusiak! Orain guztiok gara nagusi ta llder. Zoritxar ikaragarria dogu lepo gaiñ!

Lengo zapatuan "egunkariaren" auzia mai gaiñeratu zan gure artean. Zelako naigabez gero! Idazle, izkelgi, diru, dana aztertu zan, besteak aztertua be gogora ekarriz... Zenbat eragozpen eta oztopo! Lizardi'k ez eban olakorik gogoatan izan artikulu giarra ortaz idatzi ebanean! Idazle, izkelgi, diru, esku artean eukan dana. Baiña gaur danok gara maisu, danak gara dirutsu, danok gabiltz aurrrenengo izan nairik. Eta "anarkia" orritxeri esaten jako. Eta orrela ez dator gauza onik, bururik eza baiño. Egunkari eder bat eukiteko aukera dogula, ez dogu ezer egingo. Gure mukerkeria! Ari ta oni errua botatea gauza erreza, baiña danok gara errudun.

Eztabaidatu ziran or eta emen agertzen diran iragarki ta olako petralak. Esan dot: gaur edozein da maisu, asko ikasi da azken urteotan euskera arloan; baiña maisu izateko lain? Ez dot uste; gauza bat da ausart izatea, eta beste bat, naiko diferentea, maisu izatea. Lenago iragarki (anunzio) bat ipiñi bear zanean, noberak ez ba'ekian, itandu egin oi zan; gaur ez, dakidan lez jarri eta aurrera. Eta zenbat disparte bazterretan! Pillo aundiak daukaguz, olakoak, Euskerazaintzan. Baita guztiz ondo adierazo ta idatzitakoena be. Au da gure lana, erritar izkuntza zaindu ta iraun-azo.

Ba-dogu beste sail bat be, liburu saila. Asi giñanetik ona idazti mordoak dauka-gu ak eta onek euskera garbi, gozo ta jatorrean osotu ta argitaraturik. Eta saltzen dira? —askoren itauna. Bai, mutillak! Euskerazaintza'k eztau atxerik onartzen, eta ainbat etsai ta izterbegi ditu saltzerakoan; baiña saltzen dira, ez dira euskaldun guztiak atxe-zaleak. Eta au diño, ez dabela oraindik zentzunik galdu; beraz, zentzuna galtzea ete da atxe jartzea? Dana dala, Euskerazaintza'k ez darabil atxerik bere idaztietan, ez aldizkarietan, ots, "Euskerazaintza"n "Saski-Naski"n. Eta irakurlean eritxiz irakur-errezago dira onein idaztiak.

Lan asko idazten ete? produkziño edo ekarpen ugaria dau Euskerazaintza'k liburu arloan. Or Akesolo, Zubikarai, Latiegi, Gastañaga, Oñatibia, Jakakortajarena, Onaindia ta besteak idaztiak, J.M. Mokoroa ta Anbortsi Zatarain saiets itxita be.

Liburu Santuak diñoenez, eder da gizaseme baliotsuak gorestea. Euskal Literaturak ba-ditu olakoak eta orrein omenaldiak ospatu ditu: Nemesio Etxaniz'i Azkoiti'n, Gabirel Manterola'ri Zeanuri'n, eta besteak beste, azkenengo orduan, Karkastelu'n, Markelin Garde'ri, Meza, itzaldi, bazkari ta lagunarte ederrez apain. Eta biziai, Aita Lino Akesolo'ri, Euskerazaintza'ren buru danari, Dima bere jaioterrian.

Batzar ekarri onekoak osotu nairik, bertan euskal gramatika, esaera ta modismoak, batuak noski, bazkide bakotxak ekarritakoak, irakurri ta gero Euskerazaintza'n argitaratu ez-ezik, zeintzuk dagozan euskera jatorrean eta zeintzuk ez be, aztertu ta eztabaidatzen ditugu; onein artean ba-dira batzuk erdel kutsuzkoak eta ba-dira beste batzuk, euskaldun-euskaldunak, zoragarriak... Onek benetako poza damotso ikerlariari. Ez al zara gibel-urdirin zale? Bai atsegiña bat aurkitzean. Olakoxea dozu diñodan lan au bere.

Illero, beraz, Deba'n alkartzen gara lan orren atsegiña gozatzeko. Ez al dau merezi? Urrangoan geiago.

Aita Onaindia

BIZKAITARROI DIÑOTSUET

Idazten ari nazan neori gipuzkoarra nozue. Zerbait adierazo gura deuntsuet. Zueri zuzentzeko, bizkaiera iduritzen jat egokiena.

"Batua" dala-ta, euskalkiak edo euskal-izkelgiak galduan urten dabela baieztatu gura neuke. Euskeraz, leitekena da zoritxarrez, ez da beste berbetakoa jazoten. Aietan izkelgiak, dialektuak, izkuntzaren des-itxurazpenak dozuz, aldaerak.

Nori bururaten jako, esate baterako, doixteraz, ingeleraz, "dialektu" dalakoan idaztea? Ez da arrunta. Ingalaterra'n egoizkera baldin ba'da ereduia, Almania'n, Doixterri'an, iparrekoa da berriz. An, dialektuan dala edo goi-izkuntzan dala, (estandar), bertako izkuntzan idazten dute beti.

Euskeran, ordea, dialektuak ez dira ogiaren papurrak; dialektuak euskeraren izaera dira, bizia, biotza. Orrela, DIALEKTUAN, IZKELGIAN EGITEN EZ BA'DA, OR EZ DAGO BESTERIK. Dialektuak, euskeraz, ez dira izkuntzaren deformazioak, IZAERA bera baiño.

Batzuk zera diño: "Zergaitik ikasi bear dogu bizkaieraz?", ta beste batzuek: "Ori ez da euskera"...

"Batua" ostera, batzuen "batua" maitea, bai, "batu" dalako ori, berez, bakar batzuen "batua" da, ez danona, ezta gutxiago ere. NOREN eta NONGO izkera ta ama-izkuntza dan jakin gura dot. Bizkaierak, "batu" orrek baiño eskubide gelago dituala pentseutan dot.

Bizkaiera antziñak sortua dau, gizaldiz gizaldi; gaur goizeko "batua" berriz, "in" eta "ezkertiar" (etiketaz, ez ekintzaz, jakiña!) amorratu batzuen kutixi litxarre-
roek sortu dabe.

Dirudianez, danerako bear da politika aberri ontan: jazteko, jateko, edateko, izkuntzarako... Oso ederra askorentzat, politikaz itzegitea, etiketak ipintea, sistema latza beartzea, baiña politikak egitera, oso jende gutxi oldartu, azarten da.

Nere ustez, IZKUNTZA BAT LARDASKATZEKO, EZ DU IÑOLAKO TOKIRIK, EZ ESKUBIDERIK IÑONGO POLITIKA-TALDEK EDO ALDERDIK! Erria da izkuntza egokitzeo eskubidea dauana.

Bizkai'ko zaar edo gazte, ez eizue zeuen miiña gal...! Lagun eiozue zeuen ele-
ra geixoari!



EUSKERATZE-BIDEETAN

Comunismo: Orokidetasuna, Batzukidetasuna, Batzkidetasuna. Baltzakeria itza ere erabilia izan da.

Comunismo de Estado: Laterra-Komunismoa.

Sinónimo: Esnai-berekoa, Esnai-berdiñekoa, Esanaikide.

Antónimo: Esnai-aurkakoa.

Alienación: Bestetartze.

Urbanizarse: Uritartu, urikotu.

De paso: Bidenabar, bide batez, bidez.

Colectivización: Bateratze. Planes de colectivización: Bateratze-egitamuak. Tierras colectivizadas: Lur bateratuak (batera landuak). Primera medida de colectivización: Lenen bateratze egipidea.

Jurídico: Lege- situación jurídica: lege-egoera.

Laboral: Lan- Problemas laborales: Lan-arazoak.

Oraindik entzuten jarraitzen dugu "juridiko" eta "laboral" erdalkeriak.

Saneamiento: Osasuntze, garbiketa (ta ez "saneamentu")

Domesticar: Etxekotu, ezi.

Provisional: Bein-beiñeko.

Jerarquía eclesial: Eliz Aginte-maillak.

Soso: Gatzilla, gatzbakoa, motela, geza.

Tartamudo: Itz-motela, totela, itz-totela.

ETXE: zein itz onartu bear genituzke, eta zeintzuk ez?

ETXADI: manzana de casas. TXAKI (etxe+ki): gela...

TXAIDE (etxe+kide): kale, karrika. TXADON (etxe+done): eliza.

Etxaburua'tar Asier



ESALDI JATORRAK

- 1.— Beya onera etortzen asi al da?
Bai! BIZKARRA EGITEN asi zaio beintzat eta...
- 2.— ALA BEARRARI iges egiterik ez dago. Ayar batek.
- 3.— LANARI UTZITA, E? Bizimodu onari EMANA zaude ortaz? Getariar batek.
- 4.— EZIÑAK JO ZUANEAN, orduan joan zan medikuarengana.
- 5.— Seme soldaduxkara joan zaik, ezta?
Bai, gizona! EDERRIK JO BEAR DIAT... Zumayar batek.
- 6.— Sagarrak ALPERRIK GALTZEN ari ziran eta jaso egin ditugu. Orroaga'k.
- 7.— Aurra ikaratu ta nere besoetara igoaz, nere lepoari ESTU-ESTU LOTUTA EGON zan lasaitu arte.
- 8.— Ondartzan: Ura EPEL-EPELA dago!
Epela? OTZ-ASKOA egon da-ba Gallastegi'k.
- 9.— Zu eritexean zeundela zu ikustera joateko TXARTEL TA GUZTI gertutu giñan, baña ustegabeko zerbait gertatu ta JOAN-EZIÑIK gelditu giñan.
- 10.— Bide au ez da EGIN-ZARRA!
Ez! EGIN-BERRIA da.
- 11.— Nik esandakoa egin al dezu?
AURRETIYOKO LANIK izan det eta burutik joan.
- 12.— BUSTI LUZEA DOA ta belar danak alperrik ondatu bearrean dira. Bitorio'k.
- 13.— Semea nola dago?
Oso gaizki! GAUR-BIARKO dago. Abeta-berri'k.
- 14.— GOIZ-ILLUNTZETAN otz egiten du. Abendaño'ko Juanita'k.
- 15.— Tratua azkar egin dezu!
Ez! LEN BEGIZ JOA nuan. Aintzane'k.
- 16.— Euri ederra egin du...
Bai! GAIN-AZALA busti du beintzat eta... Olazabal'ko oñordekoak.
- 17.— Eudia ZAILDUA dago!
- 18.— Nik zerbait egitekotan, EGIN-ALA errez saltzekotan, bestela ez.
- 19.— Automillari IRRIXTAKO BAT emateko astirik ez al dezu artu bear?
Mirentxu'k.
- 20.— Erauntsi orrek zure oñetakoei DUNDA ederra eman diyo! ITXURATUKO OTE DIRA GERO! Mirentxu'k.

Manu Oñatibia'k jasoak



Garde'tar Martzelino zena,
euskeraren eta euskaldunen
alde lan asko egiña Napa-
rroa'n.

GARDE'TAR MARTZELINO APAIZ EUSKALTZALEARI OMENALDIA KARKAZTULU'N

Irailaren 22'an egin zion Euskerazaintza'k omenaldi bat Garde'tar Martzelino apaiz euskaltzale aundiari bere jaioterri Karkaztulu'n, ain zuzen ere Erribera'ko lurretan, Aragoi'ren mugan, erda!-erritik sarrera berean. Ausardia bear du, noski, muga aietan euskaltzale zalako omenaldia egiteko!

Antziñako eliza bitxian, 12'etan Meza Donea zazpi apaizek aldarean elkarrekin: Akesolo, Arrinda, Gaztañaga, Larrarte, Latiegi, Olazar eta Solozabal, ain zuzen. Eliza artan bertan bataiatua ez-ezik, antxe Meza-berria eman zuana izaki gure Garde adiskidea, aren animaren alde ta ark lurrean lortu ez zituan asmoen alde izan zan elkar-meza; eta jakiña, aren gurasoen alde ta ildako gure bazkideen alde ere bai. Goian bitez betiko pozean.

Antolatzaileak arrotzak giñanez, eta urrutikoak gaiñera, ez giñan ausartu zabalkunde aundirik egiten: "Diario de Navarra" egunkarian euskeraz eta gazte-leraz albistea zabaltzea doi-doi. Eta ala ere erritarrik aski agertu zan bai Mezata-
ra ta bai mintzaldietara. Albistiaz batera, dei egin ba'genie erritarrei, geiago joan-

go ziran, baiña... nork jakin edo asmatu alde zuretik karkaztularren arrera? Nola-nai ere, dei egitea beti ongi dago.

Erri-eskolako areto nagusian izan zen akademi-jarduna. Maiburuan, berriz, jaun-andre auek egon ziran: Arbeloa'tar Biktor Manuel, Estrasburgo'n, Europar Legebiltzarrean ordezkari dana; urrena, Akesolo'tar Lino ta Gaztañaga'tar Jesus, Euskerazaintza'ren Lendakari ta idazkaria; gero Erbiti'tar Bakarne, euskera-gaie-tako arduraduna; omenduaren anaia, Garde'tar Anjel, eta illoba bat, Askunze Garde'tar Jenoa.

Aurkezpenen ondoren, Garde zanaren ikasketak, apaiz-lanak, euskeraren aldeko ekintzak eta diktaduraren aurkako egiñaalak, eta bien ondorioz jasan zituan erri-aldaketak, zigorrak eta gurutzbidea, luze ta zabal azaldu zizkigun Gaztañaga'tar Jesus'ek. Erribera'n izaki, gazteleraz mintzatu zan. Egia esateko, ez dute ezagutzen naparrek nor izan zan gizon ura, benetan borrokaria ta bide-urratzaile ausarta.

Ondoren, aipaturiko illoba neskatxak, Askunze'tar Jenoa andereñoak, euskal-filologiari dagokion ikasketak gairatzeraino euskeraz jakite lortu duanak egin zuan bigarren mintzaldia. Karkaztularren gogoia euskeraren alderako piztu nairik, antziñako euskal-aztarna batzuk azaldu zizkigun.

Adibidez, 1571-1577'gn urteetan Karkaztulu'n bizi ziran zenbaiten abizenak, oso-osorik euskerazkoak zirala, eta euskeraren bidez bakarrik uler ditzakegula, argibidetu zuan, itzulpenak eskeiñiz. Eta gauza bera gertatzen da zenbait toki-izen ulertzekoan ere.

Garde zanak berak ere bazituan onelako ikerketak egiñik eta egunen batean azalduko dira. Eta orduan ekar ditzakegu aldizkari ontara, bertatik argita eramateko.

Ondoren, senide ta sendikoen izenean, eskerrak eman zizkien guztiei Garde'tar Anjel, anaiak. Eta aldi berean, Ikastolaren alde egin zituan joan-etorriak gogoratu zituan, batez ere Madril'go agintariengana egiñak.

Urrena, gurasoen etxeko orman dotoreki ezarritako oroitarria azaltzea izan zan. Ain juxtu ere, Arbeloa ta Gaztañaga jaunek elkarrekin, biek batera agertarazi zuten guztien txalo artean.

Besteak beste, ikusiko duten guztientzat auxe aitortzen du oroitarriak, laburki euskeraturik: "Naparroa'ren ikastun eta maitale aundia, Euskeraren aldeko borrokan ta martiria".

Ango ez-euskaldunei gorrotagarri ez gertatzearren, eta uler dezaten, gazteleraz onela dago idatzirik:

"Marcelino Garde Villafranca, Apaiza - Sacerdote.

Carcastillo 2-10-1925 + 6-5-1990

Amante y estudioso de Navarra

Defensor y mártir del Euskera.

GORATZARREA - HOMENAJE, Carcastillo 22-9-1990

EUSKERAZAINTZA, Euskeraren Erri-Akademia del Euskera".

Eta gero lagunarteko bazkaria, senidetasun ederrean elkarturik euskerazaiñak eta senitartekoak.

Omenaldi au ez da naikoa. Udaberriz aurrera eta Iruña uriburuan bertan beste bat bikaiña egin bear dio Naparroa'k euskaltzale guztien artean. Zor diogu euskaltzaleok, eta zor aundia dio Naparroa osoak bereziki.


Zor au jatorri ezagutu ta aitortu du Arbeloa jaunak, jakite-alor askotariko ornenaldia egin bear geniokela, idatzi duanean. Beraren itzez esateko, "un homenaje multi-disciplinar" alegia. Eta prest dago bere agiñaala eskeintzeko.

G. Garmendia Esnaola'k

IL
B
U
R
U

B
A
R
R

A
K



Eskuetan duzu, irakurle, Eliz-Edesti onen laugarren liburua. Seguruaski, lengo lauak ezagunak izango dituzu:

SAÑ IÑAZIO'REÑ DEÑBORAKO ELIZA: Elizak Birjaiotza edo Rinascimento" aroan, 1447'tik 1623'ra arte XV eta XVI mendeetako giro naasian ibilli bear izan zituan bideen azalpena.

DEÑBORA BERRIETAKO ELIZA: "Argikuntza", "Illuminisme" "Illuminisme". "Ilustración", "Enlightment", edo, "Aufklarung" esaten zaion aroko Elizaren edestia. "Azkoiti'ko Zalduntxoan" eta zaldun onuragarri aundi aiek eta beren lagunek sortu ziguten "Real Sociedad Bascongada de Amigos del País", eta Alkarte bikain orrekin batera irasi ziguten Bergara'ko Seminario aintzagarriaren denboretako edestia, ain zuzen. 1623'tik 1814'era artekoa.

DEMOKRAZIAREN DEÑBORAKO ELIZA: 1814'tik 1914'era Elizaren ariketa aurkezten dizun liburua.

Laugarren onek, **GURE DEÑBORETAKO ELIZA** darabilki azterketa-gaitzat, 1914'ean XV Benedikto Aitasantu egiña izan zanetik 1978'an I Jon Paul il zitzaigun arteko denbora. Ortik onuntzarakoa gugandik urbillegi dagoalako, ez bait daiteke izan oraindik edestiaren alor egokia.

I Jon Paul'en aurretik ere, II Batikan-Kontzilioa bera, eta, jakiña, Kontzilio bikain orren ondorengo gertakizunak ere ez dira oraindik bear bezala, aro luze baten altzoan, eldu, ondu, eta zoritu, oso-osoa edestiaren mami lez erabilliak izateko.

Idatzi, bai; idatzi dira azkeneko gertakizun oietaz liburuak ugari. Baiñan oraindik, azken denbora onen mamia erarik onenean ezagutu ta ulertu aal izateko, aldizkariak dituzu lanabesik egokienak.

ESAKERAK

Esakerak doguz izketeari gatzeta edertasuna ezarten dautsienak.

Esakera bagako alkarrizketak adirazpen makaleko autuak izan daroaz.

Esakera egokiz ugaria dogu euskerea ta guztiak jakitea ez da erreza; alde batzuetan batzuk eta beste alde batzuetan beste batzuk erabili be egiten dira-ta. Baiña ba-doguz aldakuntza andi barik euskelki guztietan erabilten direanak bere.

Lenagoko zaarrak esakera asko ekien eta atsegiña izaten zan arei itz egiten entzutea: Benetako elederra genduan, ba, arein izkera apain eta ugaria. Orain, gazteak, euskerazko esakerarik ez dake edo gitxi baiño ez dakiez eta, euskeraz diarduenean bere, erdel-esakerak esateko oitura ganorabakoa dabe.

Lengo baten, abade euskeldun batek mezatan egin eban euskerazko itzaldiak, orain asko esan baiña gitxi egin egiten dala adirazteko, erderazko esakera auxe esan eban: "Del hecho al dicho hay un trecho". Euskerarearen artean erderazko itxusikeri au entzun izan nebanean, zurtz egin neban eta auxe bururatu ekidan: Abade orrek ez ete-daki "agindua bat eta emona bi, aginduaz pozik izan adi" edo antzeko beste esakeren bat esangura ori euskeraz adirazteko?

Euskeldun jator asko (geienak) ez dira apur bat bere aleginduten dakien euskerea obeto ikasi, ugaritu ta apainduten: Amaren altsoan eta errian ikasi eben euskera urria sakonago ikasten alegindu bagarik diraue. Eta, gero, ez esakerarik dakie, ez aditzak egoki erabilten, ez itz jatorrik esaten ez adituten emon gura leukiena ondo ulertuteko eran azalduten be. Tamalgarria!

"Batzuk ikasi bagarik jakin nai dabe euskeraz" irakurri izan neban, bein, Orixe maixu aundiaren lan baten. Sakontasun aundiak ditu euskereak eta beti ikasten aleginduarren bere, beti aurkituten dakioz ezkutuak.

Guk geuk, euskeldun jatorrok egiten dogun euskeratik orain ezarri-guraz diarduen **euskera** lorrin orretara troka aundia dago ta alegiñak egin-bearra dogu troka illun orretara amildu ta benetako euskerea ondatu ez dagizkuen.

Euskeraz diardogunean autuan erdel-esakerak sartutea, barregarria baizen kaltegarria dogu izkuntzearentzat eta ardura andia izan bear genduke alik ondoen geure izkuntzea apaindu ta erabilten.

Alperreko h, izki mutu ori nun ezarri ez dakiela diarduen eta euskereari kalteak-kalte egiten daragoioen **euskeltzale** orreik, txoriburukeriak itxi ta erriak darabillan benetako euskerea ikasten alegindoko ba'lira: euskel-esakerak, itz egokiak joskera zuzena ta aditzak ondo erabilten eta abar, oba egingo leukie.

Alegindu bagarik ez dago, ba, euskeraz ondo jakiterik, batez bere oraingo, erdel-kutsuz beteriko aro naasi onetan. Nora ezean baiño euskeraz egin ez, taiuzko ezer irakurteko gogorik ez, idazteko, barrizt, gitxiago; eta euskeraz egin bearra dabenean, larri aurkituten dira zeozer adirazi bearra izanezkeroko.

Izkuntzea ondo jakiteko jardun eta ekin egin bear izaten da, gogaitu barik, eta alan be, eragozpenak aurkituten dira, esangureak garbi azalduteko.

Alde guztietatik alkartze-bideak oska irrati, irratikuskin eta abar, erderaz eta euskera ganorabakoz, benetako euskel-sena ta zaletasun bizia bear dira geureari eusteko: Bene-benetako abertzaletasunak baiño ezin daikioe zarata naskagarri orrei entzumenak itxi ta geure izkuntzeari ta izakereari jarraitu.

Aurre- Apraiz'ek